



Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (I eta IV)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1991

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalLaburrak.htm>

ANTZERKI LABURRAK (1934-1966)

Piarres Larzabal

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

PIARRES ZOZO

Lehen Akta

GANIXON: (*Bere seme zozoari*)

Piarres, o, Piarres, ez duka aditzen?
Mutiko debrua, ez bahaiz muhitzen,
Kasu emaiten ahal duk, badakik!

KATTALIN: (*Ganixonen andrea*)

Gizona, zer, oihuka goiz-goizetik?
Akabo beraz egungo bakea;
Piarres zozo ez delakotz jeikia,
Utz-azu ogean, ase dadien loz.

GANIXON:

Emaztea, adin liortara geroz,
Jeiki ditake tenore huntako.
Ez naiz gero beti mokoka hariko.
Bertze aldian, hartu bi zangotik
Eta «pamp» artikiko dut ogetik...
Egun baitugu merkatu haundia,
Erosi behar ginuke urdea,
Ezen orai kariotuko dire;
Manez-eta jin beharrak baitire,
Ez naiz gaten ahal merkatura,
Bainan Piarres ganen da urde eroatera.
Izanikan ere frango zozoa,
Badaki urde baten prezioa
Eta sobra maite baitu dirua,
Lotsarik gabe du eginen tratua.



KATTALIN: (*Piarresi*)

Piarres, jeiki merkatura gateko,
Urdea hik duk erosi beharko:
Aita ez zukek atera nehondik,
Etxeko lanak bertzeri utzirik.

PIARRES: (*Sartzzen da abo zabalaka*)

Egun on, Ama, fite hunat ene gosaria!
Muhi, nik erosteko zeria!

GANIXON:

Zer, bertzeri muhitzeko erraiten!
Zertako ehorre ez haiz egiten?
Hire faltak dituk: Bertze aldian,
Sobera egoten bahaiz ogean,
Gosaldu gabe ganen haiz lanerat
Eta gurekin duk izanen jaterat.

KATTALIN:

To, har-tzak esnea, zalu zalua!
Eta merkatura hemendik hoa!
Nola frantsesa ez baituk ikasi,
Oroit hadi, deitzen dutela «cochon»
Ale! Dirua emozu, Ganixon!

GANIXON:

To, berrehun eta hogoi libera!
Ganixtegitrat hoa bazkaltzera,
Han bertzetan baino merkeago duk.
Dirua ausarkian izanen baituk,
Ekarriko dauzki(gu)k bi ote segal!
Huna zeria estekatzeko soka!
Eros gero niri urde bat ona,
Eta ez gero ile luzeduna:
Zerri ileduna duk maiz idorra.
Zeren sobera baitik jan ezkurra.
Berrehun libera azpiz paga-zak
Eta diruari kasu egin-tzak!

KATTALIN:

Ba, gizona, ba, beti hola ze(ra) zu!
Heiako lanak laster egin zatzu!
Esnea behar da goizik ereman,
Eta hi, hoa hemendik, segidan!

Ekar gero ononak haurrendako!

PIARRES:

Ba, Ama, ba, ez dut ez ahantziko...
Banoa beraz, adios, sarri arte!

KATTALIN:

Ba, sarri arte! Zeina hadi, gan gabe...

Bigarren Akta

(*Piarres merkaturan*)

PIARRES: (*Ostatu batean sartzzen da*)

Etxeko andrea, eka-tzu fite,
Baso bat arno eta bi arroltze:
Goseak hila nago; pentsa emazu,
Goizetik hunat ibilia nuzu,
Beti lasterka, jo harat, ho hunat
Eta, futxo, ez hatxeman urde bat.

OSTALIERA:

Ez bide haiz mutil ainitz nekatu,
Obra baino gehi(ag)o duk espantu:
Neri nahi duka sinets-arazi,
Ez dukela zerri txar bat ikusi?
Gizonak behar dik izan itsua,
Hemen ez ikusteko merkatura.

PIARRES:

Hola da ba: izatu naiz denetan,
Elizan, ur hegian, ostatuan,
Bainan ez nehon urde bat ageri.

OSTALIERA: (*Badoo irriz, diolarik*)

Jesus, zoin zozoa den gizon hori!
(*Orduan sartzzen den zerri saltzaille bat*)

PIARRES:

Jauna, milesker, huna bat bederen...
(*Urde saltzailleari*)
Badakit Jauna, zer erraiten duten,
Ikusi nahi zintudan hoinbertze!

**ZERRI-SALTZAILEA:**

Ye ne konpran pa moa bask, ye ziu prantzel!

PIARRES:

Karanba! Zer behar diat orai egin?

Gizon debrua! Eskuara ez jakin!

Halere bazakiat «urde» erraiten

(Urde saltzailleari)

Nik «cochon» bat erosi nahi niken,

Ttípi batekin izanen diat aski.

ZERRI-SALTZAILEA:

Zui pa kotxon moa, bie krutzen darkadi!

PIARRES:

Hunek bazakik eskuaraz mintzatzen,

Beha nola dugun elgar aditzen.

Nik galdetu-eta bazuen urderik,

Badituela frango ihardetsi dik.

Joka nezakek ene trufan hari dela,

Bainan zer zaiat? Balia daiela

(Urde saltzarleari)

Nik behar nikek «kotxon» bat gizena,

Berrehun liberetik beheiti dena.

ZERRI-SALTZAILEA: *(Zartako bat erraiten dio, erranez)*

Tien, taka te moke, zi ti be aprezan!

PIARRES: *(Errabian)*

Gizon zirtzila, zu, zure hortz hoitan

Merezi zinuek kolpe bat ona,

Urde ohoin, jito, kaskoin zikina!

Beharrik hemen ez duk Eskualdunik:

Ganen hintzen muturra beroturik.

Ze! Eskualdunari Kaskoina nausi,

Hemen oraino ez duk hori ikusi.

Deus faltarik gabe, zertako ni jo nauk?

Ator konpora, kuraia balin ba(d)uk!

BERTZE ZERRI SALTZAILE BAT.- *(Mahainetik altxatu-eta)*

Utz-ak mutil, gizon tzar hori gatera!

To, jar hadi, emaiten haut edatera.

Urde ttípi bat erosi nahi baituk,

Hik behar bezalako bat izanen duk:

Nik baitiat arras pollitak saltzeko.

PIARRES:

Gogotik o(ra)ino zaitut erosiko:

Urde ikusteko denborarik ez dut,

Bainan zure baitan konfientzia badut.

Ez ahal nauzu ebatsiko tratuan!

ZERRI-SALTZAILEA:

Ez iragan holakorik gogoan!

Merke izanen duk, berrehun liberetan.

PIARRES:

Merke dela diozu, prezio hortan?

Ehun eta berrogoi ta hamar,

Zehorrek ikus-azu: Utz edo har.

Ez dut sos bat gehiago emaiten.

ZERRI-SALTZAILEA:

Atsegin haundirekin dautzut salduren.

PIARRES: *(Lorietan)*

Gizon on bat z(ar)ela ikusten baitut,

Hameketakoa pagatzen zaitut.

Hirugarren Akta

(Ganixon eta Kattalin Piarresen beha sukaldean)

KATTALIN:

Jes, o(ra)ino ez ageri mutil hura!

Non ote dago hoinbertze denbora?

GANIXON:

Etorriko da ba, emaztekoa!

Ori, atera nazu afaria!

KATTALIN:

Haurrak ogerat ereman bahar tut:

Ale, altxa, Esteban, Maixan, Mattut!

Ez hor lo egon, atozte ogera,

Muhi, Aitari musu emaitera!

ESTEBEN.- *(Musu emanez)*

Jainkoak dautzula gau on, Attatto!

MAIXAN.- *(Musu emanez)*

Jainkoak dautzula gau on, Attatto!



MATTUT.- (*Musu emanex*)

Jainkoak dautzula gau on, Attatto!

GANIXON:

Egin zuen otoitzak, ez ahantz batto.

(*Haurrak gan-eta, bakarririk ari*)

Non ote zioik Piarres tenore huntan?

Ez duk ba galdu, nonbait, bide hoitan.

To, norbait heldu kantari, kanpoan:

Ze! Gure mutiko hura ziminoan?

PIARRES: (*Kanpoan kantari*)

Zerri ttipi bat erosi nuen, bizi moduan saltzeko,

o, o, o,

Hiru pezeta pagatu nuen, kasta onetik zelakotz...

Pan, pan, pan!...

GANIXON: (*Barnetik*)

Sar hadi, hoinbertze harramantza gabel!

PIARRES: (*Sartzen da*)

Zakurrek ere saingatzen ez dute.

GANIXON:

Ez hoin gora! Haurrak ogean dituk.

KATTALIN:

Eta urde pollita erosi duk?

PIARRES:

Arras merke eta urde ederra,

Dena gusta zait berrehun libera.

KATTALIN:

Haurrendako ekarri tuk ononak?

PIARRES:

Erosi tut, bainan jan tut denak.

KATTALIN:

To, ez ziken balio erosteak!

GANIXON:

Ez duk ahantzi sega ekartzea?

PIARRES:

Hala da, haatik, ez naiz oroitu?

GANIXON:

Non duk burua? Bi gauza manatu

Eta bat Donibanen ahanzteko!

Jou, ager-zak urdea, ikusteko!...

PIARRES: (*Buruan batz eginez*)

To, to, to, merkatuan gelditu da:

Estekatzean kurrinkaz hari zen-ta,

Nik lepotik haitz bati arrimatu!

GANIXON:

Horra zer behar zitzaikun gertatu!

Mutikoa, hoa, otoi, bistatik!

Debekatzen haut hunat hurbiltzetik:

Nahi balin baduk bizi etxe huntan,

Ator galdu tukenak eskuetan!

(*Kanporat emaiten du*).



IRRI ETA NIGAR

(*Gertaldi batetako jostagailua. 1934*)

Jokalariak:

MARIA: 50 bat urte.

KALIXTRO: Haren senarra.

BI OHOIN

Joka-lekua:

Sukalde bat, oren zahar handi batekin zoko batean. Maria, su ondolan jarririk.

MARIA: Gauerdi, eta ez ageri! Gizon filda! Datorla, dator! Aditu behar ditik bereak eta asto beltxarenak.

KALIXTRO: (*Haren boza entzun ditake gero eta burbilago. Kantuz ari da mozkorra*)

Aurten ardua merke da,
Lau bortz sosetan pinta da,
Andriek ere edaten dute
Erreberua bezala...

(*Sartzen da sukaldean*) Bonsoir tout le monde!...

(*Badoa mahain bati buruz*)

MARIA: Hor haiz, urde errementa, arnoz usaindu tzarra. Ez haiz ahalke ere.

KALIXTRO: «Doucement» andria, zer uste duzu mozkorra naizela!!!

MARIA: Mozkorra ez, arraila; ez haiz ahalke ere. Igande guziz gauza bera, ostatur ostatu, arno asean!

KALIXTRO: Zaude ixilik otoi! Zer dakizu non ibiltzen garen gu? Eta bertalde, nori egiten dugu kalterik?

MARIA: Familiari beti, bat ederra. Zorrrak ezin pagatuz hor hari gare, futxo, eta zu beti han, han, irabazi guziak ez aski, xahutzeko.

KALIXTRO: Baietz, baietz, emaztekoa, beti hola zare zu. Ekar-azu jaterat, hobeki eginen duzu.

MARIA: Jaterat? Ez duzu oraino tripan aski sarturik? Makila kolpeak ba, merezi zintuzke eta ez jaterat!

KALIXTRO: Beha zan. Ez naun gero batere jostakura. Etxe huntan, nik manatzen dinat gero, eta ez hik. Zer, igande guziz, gauza berak aditu behar ditugula! Badut gero leporaino entzunik.

MARIA: Ba eta ez halere bertzelatzen. (*Jaterat emanetz*) Halere igande guziz, zure hamar liberakoa aintzinat gastatzen.

KALIXTRO: Zer, hamar liberakoa gastatzen! Huna, goizean eman dautazun hamar liberakoa. Eta huna oraino gehiago. (*Sekulako diru paperak ateratzen ditu*) Eta, horra oraino bi botoila arno gainerat. (*Bi botoila arno sakelatik agertzen ditu*) Baduzu orai zerbait arrangurarik?

MARIA: Zer dire horiek? Nondik dituzu horiek?

KALIXTRO: Horiek hor, nereak. Egundaino ekarri duzu etxerat horrenbertze, zuk? Horra hor, bi, hiru, lau, bortz mila libera, garbi garbiak.

MARIA: Nondik dituzu horiek? Zer egin dituzu, norbaiti ebatsi bederen?

KALIXTRO: Ebatsi nik? Noiz ikusi nauzu ni ohointzan? Ebatsi! Holako hitz bat berritz aipatzen baduzu, gaten ahal zare begien bixtatik. Ni, ohoina! Egundaino, ez nuen holakorik aditu eta horra norganik behar nuen entzun. Behazu, xuhur balin baduzu, zaude ixilik, holakorik erran gabe.

MARIA: Nork erran dautzu, ohoina zarella, gizona? Nondik duzun diruketa hori nahi nuke jakin. Eman zaite bada, ene orde, ean ez zinen zu ere kexatuko.

KALIXTRO: Ba, hori da ba. Ni beti gizon tzartzat naukazu. Ni beti hau eta hura, Kalixtro mozkorra, Kalixtro ez dakit zer. Bainan, ni gizon ona bainaiz haatik. Ni gabe, ez bailitake etxe hau luze xutik egonen.

MARIA: Baina, nondik duzu diru hori?

KALIXTRO: Hori duzu, zuk ere. Egia ez aditu nahi, ni gizon ona naizela. Bainan, erradazu egia, ezkondu baginen ezkondu, hartu duzu niganik egundaino makila kaska bakar bat?

MARIA: Baietz, baietz, gizona. Bainan, diru hori?

KALIXTRO: Ni, gizon ona, nahi duzuna erranikan ere. Ez da hala, Maria? Bertzenaz, ez zinen hoin luze biziko enekin.

MARIA: Baietz, hala dela, gizona; bainan...

KALIXTRO: Hala balin bada, zertako ez erakuts. Ekazu hunat musu bat. (*Besarkatzen du, xutiturik*) Andre debrusa; zer den haatik!



Jaun ona duela berak erraiten eta halere beti hari mokoka hari behar.

MARIA: Bainan, diru hori nondik duzu?

KALIXTRO: Emazteak, begi luzeak zirezte haatik! Zertaraino sudurra sartu behar! Kondatuko dauzkizut beraz hastetik, denak, diren bezala. Heldu nintzen, hamarrak airean, ttanpa ttanpa, etxeari buruz. Ergeleneo ondoan iragaitean, han aditzen dut halako arkuma hat. Zer debru ote zen intzirin hura, gelditzen naiz eta gizon bat ikusten dut kandolan luze luzea.

MARIA: Gizon bat kandolan?

KALIXTRO: Ba, gizon bat. Laster ezagutu baitut. Badakizu, hor baita etxe berri bat egina... Jes, nola du ba harek izena?... Hango bordaria beti galtza petazu alimale batzuekin ibiltzen zen ba!!!...

MARIA: Zer, villa «Les Myosotis»?

KALIXTRO: Ba, hura bera. Hango nausi amerikano tripa haundi hura zagon, luze luzea kandolan. Nik, frantximena ez jakin eta, egon niz beha, zer errar behar ote dion. Azkenean egiten diot: «Maufais ça» Batere ez ihardestik. Nere baitan, dudarik gabe edana zela, ateratu dut izakatik eta ederki izerturik ere ereman etxeraino.

MARIA: Beharrik ez zen urrun.

KALIXTRO: Urrun edo ez urrun, zer uste duzu halako karga ibiliko nuela, mozkorra izan banintz? Ez, sekulan. Etxerat heltzean, ez dio andreak hitz bat atera ere. Ez da ez hura, zu bezala. Eta bizkitartean ikusi nauzu ni egundaino tentu hartan?

MARIA: Eta, gizon hari zer egin diozue?

KALIXTRO: Gizona, ubel ubela zen. Ohe gainean izpirituarekin dena gantzutu dugu, bien artean, eta futxo, frango laster bere-baitaratu. Han zen, han, gero atsegin. Nahi bezenbat jaterat eta edaterat eman dautes; mahain gaineko trapu xuriek oraino. Sekulako mileskerrak izan ditut, gizon harenganik. Ba eta, bizia salbatu niola, niri esker zela oraino mundu huntan, eta nik ez dakit zer. Azkenekotz, ahur bat diru paper eman dauzkit, ziolarik haurrik ez zuela, trufatzen zela hura zombait mila libera goiti beheiti izanik ere eta hek neretzat zirela. Gero ariko zira zu, ni ez ernea, ni beti bertzez amonatu. Egundaino egin duzu zuk holako kolperik?

MARIA: Hauxok, zer xantza! Hori, tenore oneko dirua izanen dugu hau. Gure Katzo saldu eta, ederki eros dezakegu bertze uztarriko behi hat. Aipilu berri bat, baitezpadakoa da gure etxean. Errenta ere hor dugu gainean. Ba, gure etxean, ez da dirurik luze zahartuko.

KALIXTRO: Aski badut janik. Irrintzinaka hasi behar dut. Ai, ai, ai, ai, aufa!!! Jes zintzurra zoin idor dutan! Ekazu edaterat. Behar dugu arno hotarik bat hustu. Edazu, zuk ere. (*Kantuz hasten da*) Andre Madalen, Andre Madalen...

MARIA: (*Edaterat emanaz*) Gizona, zaude emekiago, auzoengatik ere.

KALIXTRO: Nork zer behar du? Ez naiz ni hemen nausi? Zer eman dauzazu baso hau? Erdi arraildua da. Dirua, hola ausarki dugun kasuan, ez dut gehiago baso arraildurik nahi etxean. Doala lurrerat. (*Botatzen du eta hausten*)

MARIA: Zer hari zare burutik xoratzen, hola basoaren hausteko?

KALIXTRO: Hala da eta, dirua badugunaz geroz. Hunako bi gatilu hauk ere ongi zaharrak dire. Doazila hauk ere. (*Hausten ditu lurrean*)

MARIA: Otoi, jar zaite eta zaude geldirik, gizona! Zer behar dituzu, baxera guziak porroskatu?

KALIXTRO: Badugunaz geroz dirua, zertako behar dugu beti bizi puska zahar haukiekin? (*Hausten ditu lurrean, hiru lau baxeraki, bereziki gatilu bat*)

MARIA: Bainan gizona, burxoratu zare naski! Horra, ene gatilu ederra hautsia! Kattina zenak, ezkontzeko present egin zautan gatilua. Gaizoak, beharrik ez zaitu ikusten. Onik entzunen zinue.

KALIXTRO: (*Jarririk, pipa erretzeko prestatzen*) Gaizoak, hobe luke ba, ikustea. Hori edan behar dugu. Baso onetan haatik. (*Edanez*) Ba, egiazki, arno gaitza da hau: Zer mitxa duen!!! Ha, ha, ha! Bazinaki! Ene diruak hartu eta segidan izan naiz Arnoren ostaturat. Han ziren Xalbat, Beñat eta bertze lau lagun. Sartu-eta, erraiten diotet: Hale, nik deneri kafiak pagatzen; ttottekin oraino. Arno berritz —gizon xirtxila da haatik hura— ez zaut ba hasi bere boz meharrarekin: Hobe zinue zehorrentzat kafea pagatzeko dirua bazinu. Urde gizon zifera, halako hitzak ateratzeko hoinbertze gizonen aintzinean! Beharrik da, den bezalako. Bertzenaz paparotik tinka-aldi bat ona hartu behar zuen. Ba, laster ixildu dela



jaunttoa, nik ahur bat diru paper agertzean! Ikusi bazinu gero haren grazia! Ba, bainan, ez nik ere, kasu handirik gehiago eman. Gizon ustela, halako solasak behar zizkidan erran, denen aintzinean!

MARIA: Oas! Halere, osorik ekarri baitituzu zure diruak. Nola ez daukiztuten nehork ebatsi!

KALIXTRO: Ebatsi! Ha, ha! Nahiko nuen norbait lotu balitz lan hortan. Ori, Pisueneko gizon apostolu hura zu bezala mintzatu zaut. Han ibilki baintuen diruak purtzupilka, jin zaut apeza kobesatzerat bezala, ba eta kasu eman nezala, bazirela erne zagozinak, eta ez dakit zer.

MARIA: Arrazoinekin, holako diruketa!

KALIXTRO: Arrazoinekin, diozu? Hara bertzea berritz. Ez nauzu beraz oraino ezagutzen? Zer uste duzu, ohoin baten beldur naitzela. Laster baten lanak eginak nituzke. Ba eta hamar ere lotzen balaizkiet, ez nituzke aise eskolatuko. Ez, zer nahi joka nezake!

MARIA: Zaude, zaude ixilik, espantu!

KALIXTRO: Espantu? Batere. Ori, mahaineko diru paper horiek guziak baino nahiago nuke bizpahirur etortzen balire hunat. Iku-siko zinuke zoin laster... *(Atea, idekitzen da arrabotsean. Bi gizon sartzen dire armatuak eta bisaia tapatuak)*

OHOINA: Dirua edo erretzen zaituztegu! *(Maria erortzen da, oihu bat eginez)*

KALIXTRO: Zer behar duzue gure etxea errekarat...

OHOINA: Ez hitz bakar bat atera, edo erretzen zaituztegu. *(Ohoinak, mahain gainetik diruak harturik, ateratzen dira)*

KALIXTRO: *(Jartzen da daldaran)* Hau, izialdura! *(Edaten du. Obartzten da, Maria lurtean etzanik dela, intzirik ari)* Zer egin zare, izitu? Ez da, ez, deusere, emazteak! Ori, edazu poxi bat. Zertaz kexu zare? Ez naiz oraino bizi?

MARIA: Horra, horra, zerk atzeman gaituen.

KALIXTRO: Zer nahi-uzu ba? Zer nahi-uzu? Ez da fitsik egiteko.

MARIA: Urde mozkor tzarra. Hire faltak dituk oro. Horra, horra baxera guziak xehatuak, eta zorrak ere hor, hoinbertze denbora hautakoak! Arnoz hantu debrua, horra azkenean hire ondorioak!

KALIXTRO: Hauxok emaztea! Laster piztu zare! Non dituzu oxtiko solas hekiek? Ala ez ziren zinezkoak! Jes, ez kontent, ez bainaute hil.

MARIA: Arnoak, arnoak! Gure etxean, bai kalte gogorrek dakarki dituela! Gizon edale tzarra!

KALIXTRO: Emazte debrua! Hobeki zintake, dudarik gabe, lotu banintz ohoineri papotik. Jainkoari, segur, eskerrak bihurtzen ahal diozkatzu, naizen bezalako jauzikorra, ez baitut holako lanik egin.

MARIA: Etxean, hi bezalako gizon edale bat baino, hobe duk tu bat. Eta berea bertzerik, ez aditu nahi; hori da makurrena! Berari bakarrik kalte ekartzen balio oraino edariak! Bainan, familia hor baita ba! Eta ez holakorik konprenitzen! Arnoa, arnoa! Emozue hura ausarki horri! Ha, gizon mozkorra! Hameka nigar egin-arazi dik orai arte eta egin-araziko ere bai! Har zazu, har argia. Goazen oherat. Gargehiago, hola iragan beharko du gure biziak. *(Biak ateratzen dire sabetseko ate batetik)*

OIHALA



MERKATUTIK

Euskaltzaleen Biltzarrak saristua 1937an
(*Gertaldi bakarreko antzerkia*)

Jokalariak:

PIARRES

MANEX

GANTZUME: Hiruak edanak hastetik.

GAXINA: Gantzumeren emaztea.

KATTALIN: Piarresen emaztea.

OSTALERA

Joka-lekua:

Ostatu barnea. Marres, Manex eta Gantzume mahainean jarriak.

MANEX: Ba, harritua niagok zer pisua egin duen nere aratzeak. Bi kintal xuxen xuxena. Ez nian sekulan uste hoinbertze eginen zuela.

PIARRES: Ongi baliatu duk?

MANEX: Ba, bortz-eta-erdiko hortan eman diat.

GANTZUME: To, nik baino bortz sos gehiago egin duk. Nori saldu diok?

MANEX: Tratulant kaskoin bati. Ba, ez beihalakoan ez! Debruen urdea! Bazakik, bazakik jende enganatzen! Ahatik ez nauk ni ere gero edozoin eskutako xoria. Nere frantses sikun-sakunean, nik beti bortz-eta-erdiko hori egin.

PIARRES: Alo, pinta ondar hau huts dezagun. Bertze bat edanen diagu ba, solas zirrizta batzu eginez? Ostalera, ekazu bertze pinta bat!!! (*Ostalerak botela bat ekartzzen*) Ori dirua! (*Piarresek dirua emaiten*)

MANEX: Nahi duk hori sartu sakelan? Zer beraz, beti hik? Nere aldia duk orai. (*Dirua eskainiz. Ostalerak hartzen du dirua eta xebea itzultzen*)

GANTZUME: Ba, ez duk gero beti zuen aldia. Nik ere behar diat noizpait pagatu.

MANEX: Bertze aldian, hiri izanen duk pagatzea.

PIARRES: Ikusi behar diat idiak atean geldirik dagozin. (*Leihora doa*) Andrea ere etortzekoa diat merkatutik. Egun, biak batean sartzekoak gaituk iluntzeko etxean. (*Leibotik oihu*) Ooo idiak, etxerat ez abiatu gero niri, ni gabe. Ooo!...

MANEX: Baietz, baietz, mutila. Utz-aitzik idiak eta andrea bere gisa. Etxerat ganen gaituk ilun-nabarrean. Behar orduan argia ere hartuko diagu. Zer duk hemendik gure etxerat. Oren baten bidea?

PIARRES: Ba, halatsu.

MANEX: (*Gantzumeri*) Hik ere baduk dudarik gabe astia?

GANTZUME: Ba, neregatik ez dik balio kexatzea. Ni etxearen gainean nauk kasik hemen.

PIARRES: Zoin alderditan bizi haiz hi hemen?

MANEX: Ez dakik oraino hau non bizi den? Hemen, mutikoa, plaza hegian.

GANTZUME: Ba, ba, hemendik hamar minutetan.

MANEX: Bon, bon. Badiagu astia, edazue, alo, edazue! (*Edatera emanaz*) Oas, oroitzen haiz, Piarres, oroitzen haiz, gerla denboran nola egon ginen hiru egun, ez ur, ez arno xortarik edan gabe? Zer egarria!

PIARRES: Ean oroitzen naizen! Haurtua behar nikek.

MANEX: Oraiko gaztetan ote lukek bakar bat, guk jasan ditugunak jasan lezazkenik?

PIARRES: Ez, ez, ez diat uste.

MANEX: Oraiko gazteak pitsik ez dituk. Bertzela zukan to, gure denboran.

GANTZUME: Ba, ba, oraiko gazteak, dena neska, dena ergelkeria. Ez ditek bertzerik gogoan.

MANEX: Non dituk Domingo zena. Pattin zena, Kaskosoil bezalako gazteak? Nehon ez, oraiko egunean... Oroitzen haiz nola Hazparneko bestarat gaten ginen? Ez orai bezala adurretan, bainan oinez tapla tapla. Ba naski, bertzelako zangar aztalak gintien ba guk.

PIARRES: Ean oroitzen naizen?... To, sekulan ez diat ahantziko nola behin jaten parioa egin-eta, gu biek garaitu baigintien bi Hazpandar jalerik handienak. Oroitzen haiz, nola bi mutil tripa handi hek errautsi gintien lukainka jaten? Ba naski, eta, hek baino ufako gutiago ibiliz oraino...



GANTZUME: (*Kantuz*) Gazte ginen gazte, hogoi bat urtetan...

MANEX: Hago ixilik. Edanak garella erranen ditek bertzela. Ez gaituk gero oraino hortan! To, eda-zak, edazue ba. (*Edatera emanex*)

PIARRES: Andrea ere ixtantean hemen diat ba.

GANTZUME: Ez dik, ez, hire andreak hire beharrik. Ganen duk etxerat hi gabe.

PIARRES: Ez, ez, etxerat gan behar diat goixko. Aziendak edan-araztekoak titiat.

GANTZUME: Ez ditik andreak eginen?

PIARRES: Ez, miga bat badiagu, mixterioa tzarra. Ez dik nehor, ni bertzerik, ondorat hurbiltzerat uzten.

MANEX: Zoin miga? Niri erosi hura?

PIARRES: Ba hura bera... Hartan hik haatik ederki enganatu nindukan. Saldu dautak miga, ernari zela eta goxoa zela, eta hau, ta hori, ta hura, eta gero, miga antzu izaki, eta izaten ahal den zakarrenetarik.

MANEX: Piarres, ez zakala erran miga hura antzu zela. Zazpi hilabetetan zukan. Hori ez!

PIARRES: Ernari izan balitz umea eginen zian. Eta, ez dik umerik egin.

MANEX: Ni segur nauk harek umea egin duela. Hi, ez haiz ohartu. Harek larrean ume hila bota bide dik.

PIARRES: Ez ohartu? Zer nauk ni atzo sortua! Ez ohartu etxeko buru batek umea egin duela?

MANEX: Beha-zak, Piarres, ez daiat gero egundaino faltsokeriarik egin.

PIARRES: Hortan ba beti, bat ederra.

MANEX: Beha-zak, Piarres, xuhur baduk hago gero ixilik. Ez daiat hala ez zenik erran, miga hura saltzean.

PIARRES: Ez zaik, ez, baliatuko. Behingoan nahi dukana egin duk. Bainan, kasu hire aldiari.

MANEX: Oraintxet asexea nauk, Piarres! Gezurrik ez diat maite.

PIARRES: Gezurra ez, bainan egiak hoik.

MANEX: (*Hasarre*) Zer nahi-uk ba, ni ohoina? Badiat hiri deusik zor? Errak, bai ala ez?

PIARRES: (*Xutitzen da*) Hik beti miga antzua ernaritzat saldu niri.

GANTZUME: (*Bakezale*) Alo, alo, jar-zaitezte. Zer dituk manera hoik, Manex? Hi, ere ba, Piarres. Alo, jar zaitezte. Edan behar diagu.

KATTALIN: (*Leibotik barnera mintzo*) Hemen naiz, Piarres. Hale, gan behar dugu!

PIARRES: (*Jarri da*) Ba, zaude ixtant bat.

GANTZUME: Zer dituzue haurkeria hoik, alo? Jes hauxe duk planta! Edan behar diagu, mutilak... Ostalera, hunat bertze pinta bat!!! (*Ostalerak ekartzen du*) Hauxe duk baaa... To, badakik, Manex, nor ikusi dutan bidean? Petrieneko Jakes. To, edazue! Eta, badakik urde zikin harek zer egin daitan? Neri ba, neri Gantzumeri? Urde zikina! Ba, konpanian bazitukan gurekin, hiru edo lau gorri bandako hoitarik. Eta, badakik zer egin daitan? Denen arnoa pagatu eta nereza ez. Ni bakarrik berexi. Ez omen zukan segurki zuri asetzen ari beharra. Ustel tzarra! Datozila bozak! Jakinen diat nori eman enea.

MANEX: Harek egiteko ez duk ez handi. Ni ere, bere ustez, ganden bozetan bildu nindikan. Arnoz ase ba, haren gustuz, bainan ez bainion haatik nik hari eman ene boza!

GANTZUME: Hori ez zaiat gizontasuna. Nik ez zioiat hari egundaino deusik egin. Nik, izan ere nor-nahi mahainean, denen edaria berdin pagatuko diat. Ez diat nehor berexiko. Hori hola duk gero!

MANEX: Ba, hori hola duk. Ni ere, hi bezala nauk, hortan.

GANTZUME: (*Piarresi*) Hiri ongi zaik egitate hori?

PIARRES: Hori ez. Hori zirtzilkeria duk.

GANTZUME: Ba naski. Haatik, ni trufatzen nauk munduko gorri guziez. Ez diat gero nik hoikien beldur pikorrik. Berdin zaiat non-nahi izanikan ere. Nik beti: «Biba xuriak» oihu eginen diat.

PIARRES: Hago emeki, hago emeki. Ez dakik non haizen hemen.

GANTZUME: Emeki, hori ez: (*Oihuka*) «Biba xuriak!», «Fuera errepublikanoak eta gorri guziak!»

MANEX: Mutikoa, hago ixilxago!

GANTZUME: Ixilik? Ixilik? Gizonak duen ideia behar dik agertu. Ez nauk gero ni «Errepublika». Hori ez!

KATTALIN: Alo, Piarres. Mugi zaita. Etxerat gan behar dugu. Badakizu etxea nola utzia dugun.

PIARRES: Ba, Kattalin, heldu naiz, heldu baso hau hustu-eta.

MANEX: Ez, ez, bertze pinta bat nik pagatzen diat.

PIARRES: (*Xutitzen da*) Ez, guk badiagu aski edanik. Orain etxerat gan behar diagu.

MANEX: Ez, ez duk pitsik egitekorik. Bertze bat edan behar diagu. Nik pagatu-eta.



GANTZUME: Bon beraz, bota bertze bat! Edan behar bada, edanen diagu.

PIARRES: (*Jartzzen da*) Bon, bertze bat edanen diagu. Hau haatik azkena.

MANEX: Ba, ba hau azkena. (*Ostalerak ekartzzen du*) Zer mutikoa! Badiagu astia. Aski goiz sartuko gaituk ba etxean.

GANTZUME: To, azken pinta hau deskantsuan edateko, ni xorta baten ixurtzerat nihoak.

MANEX: To, ni ere aspaldian gan nahia nindukan. (*Jalitzen dira balantzaka*)

KATTALIN: Alo ba, Piarres, ixtantean iluna dugu. Idiak ere hasiak dire kezaten. Etxerat gan behar dugu.

PIARRES: Heldu naiz, Kattalin. Ez zaitela kexa. Ba, egonen dira ba idiak. Konpainia ez dezaket hola utz. (*Leibora hurbilduz ta*) Oix-tian entzun duzu nola, zirt, lau egia erran diozkatan Manexi? Ba naski!!

KATTALIN: Zer egia?

PIARRES: Gure migaren gainean. Zer uste du, nerekin nahi duenaren egitea? Hori sekulan. Entzun ditu beti eneganik, muturrerat, nahi ez zituenak. Kataska gogorra ibili dugu. Oraino, hortan gelditu baigare, paso. Gertakari izigarriak gertatuko ziren, ukitu banindu. Zer uste du, haren beldur naizela? Ez zait ba xutitu, eskainiz!!! Egin balu den gutieneko keinurik, emaiten nion, emaiten nion... buuu, ez baitzen bizirik aterako. Zer uste du? Zer naizela ni? Haur bat? Halere hortan gelditu baigare, harritzeko da. Beharrik hor zen Gantzume.

KATTALIN: Ba, ba gizona. Beti hola zuek. Ez gero, arno hori edan-eta, bertzerik mana. Gero etxerat gan behar dugu.

PIARRES: Baietz, emaztekoa. Ez zaitela kexa. Iguzkia oraino gora da. (*Piarres jartzzen. Manex ta Gantzume sartzen*)

MANEX: Nik ez diat beti, hori bezalakorik, egundaino ezagutu.

GANTZUME: Zer dik ba horrek, bertze batek, baino gehiago?

MANEX: Hori, apeza duk gero. Egiazko apeza. Ez duk hala, Piarres?

PIARRES: Nor hori?

MANEX: Gure jaun erretora.

PIARRES: Ba, pixka bat hala dela! Ez duk ez inguru hautan horrek bezalako izpiritua duen apezik.

MANEX: Ba naski. Horrek nola erraten dituen gauzak prediku alkitik! Xuxen eta garbi. Loria duk horren entzutea.

PIARRES: Ba, ikasiak dituk-eta. Buu, apez hoik bazakitek!.. Gu bezalako deusik ez duk. Hoik berritz, non-nahi agertzeko on dituk.

MANEX: Zer nahi duk. Guk besoz bezala, hoik buruz ditek jokoa. Bakotxak bere ofizio, to.

GANTZUME: Ba, bazakitek beti hoik berena ongi. Ba, debrua, bazakitek bazakitek biltzen.

MANEX: Hori hala duk. Bainan, horiek ere, gure kontuan, bizi behar. Bizitzekotan jan behar. Eta deusik ez badute, deusik ezin jan. Ez duk hala hori?

GANTZUME: Ba, ba. Ez diat erraten, ez diat erraten. Bainan, bakarrik, nola den.

PIARRES: Edazue ba, mutikoak. Zer, basoak beti beteak dituzue-eta! (*Edatera emanex*) Ba, oraikotik, etxerat buruz ere abiatu beharko diagu. Atxoa hasia zaiat kezaten.

MANEX: Zer! Andreaz haiz kexu? Ba, egonen duk ba andrea ixtant bat. Ez haiz maiz ateratzen.

PIARRES: Ez, egia, ez nauk maiz ateratzen. Bainan nik andrea maite diat gero eta ez zioiat den penarik ttipiena ere egin nahi.

MANEX: Hortan ez diat erratekorik. Nik ere andrea maite diat eta...

PIARRES: Hik ez duk uste, bainan ez duk gero herrian gizon bat, ni bezenbat, bere andrea maite duenik... Merezi dik-eta. Non duk, oraiko egunean, gure Kattalin baino emazteki baliosagorik? Gure etxe guzia, horrek zaukak xutik.

MANEX: Ba, nik ere maite diat ba andrea. Ez duk bada hura ere, herabe hetarik! Badik harek ere larderia etxean. Behar ere, hoinbertze haurren artean.

PIARRES: Beha-zak. Nik andrea maite diat. Eta, batere ez zaiat ongi andrearen jotzea, batzuek egiten duten bezala. Ez duk hori girixtino legea. Andrea jotzen duen gizona, pitsik ez duk.

MANEX: Ba, arrazoina duk hortan. Ni ere, hi bezala nauk.

PIARRES: (*Gantzumeri*) Eta hik, ez duk deusere erraiten?

MANEX: (*Piarresi*) Utzak hori bere gisa. Horrek ixilik egon behar dik. Ez dik horrek, nahi duena egiten ahal andrearekin.

GANTZUME: Andrearekin nik ez nahi dutana egiten? Errak uste dukala.

MANEX: Ba, alo. Ez dik balio ukatzea. Denek bazakitek. Hire etxean, emaztekoa duk nausi, emaztekiak dik manatzen.

PIARRES: Emaztekoa galtzak soinean? Hori ez zaiat ongi. Hori ez. Ez duk hori girixtino legea.

GANTZUME: Ni andreak manatzen? Ni? Nork erran dauk holakorik?

MANEX: Ba, hi, ba, hi, pitsik ez haiz. Hi andreak noiznahi panpatzen omen hau. Ez dik balio ukatzea. Denek bazakitek.



GANTZUME: Nahi duk ixilik egon? Ahalge behar niked. Zer naizela uste duk ni?

PIARRES: Emaztekiaren meneko balin bahaiz, gizon ttipia haiz beti. Hori hala duk.

KATTALIN: Are, Piarres, orai pinta hustua duzue. Orai gan behar dugu.

PIARRES: Ba, heldu, heldu. Hale, gan behar diagu. Altxa gaiten. (*Xutitzen da*)

GANTZUME: Ez, ez, bertze bat pagatzen diat. Ez! Agozte ixiant bat, alo!

KATTALIN: Aski orai, Gantzume aski! Orai, gan egin behar dugu.

GANTZUME: (*Piarres besotik hartuz*) Agozte, agozte. Ez duk pitsik egiteko. Behar duzue bertze bat edan, ene gosturat... Ostalera! Bertze pinta bat huna!!! (*Beste pinta bat ekartzen ostalera eta pagarratzen*)

PIARRES: Hauxe duk, gizona! Gan behar diagu!

GANTZUME: Ez. Hau edan-eta ba, bainan ez lehenago. Ni ere, zuek bezala, etxerat goizik gatekoa nauk. Alo, hau, azken pinta. Gero ganen gaituk. Hau, xutik edanen diagu, bideko indarrak hartzeko. (*Edataren ematen du. Denak jartzen dira*)

MANEX: Bon baaa! Egonen gaituk. Zer nahi duk egin dezagun?

GANTZUME: Ba, ez diat, ez, nik ere, astiarekin egoiterik. Oraikotz etxean behar nikan. Gargehio atxoa katixima onean bide diat.

PIARRES: To, hi ere atxoaren beldur haiz aparantziaz?

GANTZUME: Ez diat hori erraten. Nik atxoarengatik, nahi dutana egiten diat.

MANEX: Hori ez duk hola. Hirengatik ba, harek zernahi egiten dik. Pertsuak ere merezi dituzkek, andrearekin deramakan bizitziaz.

GANTZUME: Hori ez duk arras hola, Manex.

MANEX: Hi, pitsik ez haiz. Andrearen meneko haiz. Pertsuak merezi dituk.

GANTZUME: Ba emaiten ahal dituk pertsuak, holako fantasia balin baduk. Bat baino biga nahiago ditiat. Ez nauk gero zazpi probintzietako pertsularien beldur.

MANEX: Bazakiat badakikala pertsutan. Bainan, ez zakiat haatik, hasten bagine Piarres eta ni, hire kontra, ean nausi hinteken uste bezain aise. Bagaituk gero gu ere zer bait.

GANTZUME: Ba mihiz zarete zuek ere gehienik.

MANEX: Mihiz? Hitz horrek panpakoak merezi lizkek. To, Piarres, emok pertsu bat, erakutsok badakigula guk ere, teolosia.

PIARRES: Ba, ni ere horixe bera gogoan nindagokan.

GANTZUME: Bon, ederki etorria duk. Bota beraz!

PIARRES: (*Edaten du, xutitzen, buru-basten*) Bon kasu orai!
Ene adixkidea, ez otoi samurtu.
Zuk nausi behar-eta, oi zer gizona zu!
Galtzak berak soinean ezin atxik tutzu;
Andreak, zure orde, ibilki baititu.

MANEX: Atx Gantzume! Ez duk hori ongi emana? Non haiz orai? Egun, hik, larrutu-eta, gan beharko duk hemendik.

GANTZUME: Zer uste duk, zafratu nauela? Ez nauk oraino ere, batere horren beldur.

MANEX: Bon, bon; ikusiko diagu. Ikusiko diagu. Emak lehenik pertsua!

GANTZUME: (*Xutitzen ta buru hasten*)
Ez diat gero saltzeko, nik, nere andrea,
Larderiarengatik, baituk langilea.
Galtzak soñan dituela, derautak auzia;
Hirea, gabe zabilak, oi hi, zer nausia!
Non dituk, orai, hire espantuak, Manex? Ez duk hori pertsua? Ba naski. Eskolarat gaten ahal haiz ba oraino ikastera, neri nausitzeko.

MANEX: Ba, egia duk. Zafratu gaituk. Bainan, nik emanen diat orai bertze bat. (*Xutitzen eta buru hasten*)
Andreak galtzik gabe, ibili ditazke.
Zaiak gordaki-eta, modak alde tuzte.
Bañan guretzat hoi ongi dela ez dut uste,
Zakurrak berak laster ondolik gintuzke.

PIARRES: Ederki emana duk.

MANEX: Ba naski. Eta egia duk gero hori. Gizon bat aski ditek zakurrek galtzik gabe ikustea, erbiari bezala saingaz eta zalapartaka lotzeko.

GANTZUME: Bon, hago ixilik. Orai nik bat emanen daiat, oraino haundiago. Errautsiko zaituztet. (*Xutiturik*)
Hire zakurrak beti saingaz tiat entzuten.
Doike, galtzik gabe haiz etxean ixiltzen.
Zertako sainga hoiek ezin pentsa niken.
Oraintxet garbiki diat egia ikusten.
Ah, Manex, non haiz orai, non?

MANEX: Ba hortan, nausi uzten haut. Hortan hiri xapela!



GANTZUME: Ba naski. Eta nik egia erraten diat gero. Zuen zakurrak fama badik ez dela ez gau ez egun saingatik ixiltzen.

MANEX: Ba, etxea zaintzeko aritzen duk hola.

GANTZUME: Batere ez zakiat, ez ote duzuen gosea atxikitzen gaizo zakurra.

MANEX: Zertako erraiten dautak hori?

GANTZUME: Zuen azienden arabera balin baduk beti, ez bide duk soberra gizen.

MANEX: Nere aziendek zer ditek? Ez dituk hireak bezain gizen?

GANTZUME: Hire idiak ez beti. Duela zortzi egun, ikusi nintikan. Gaixoak! Bazitekan lana kurritzen.

MANEX: Nere idiak, nere idiak, hireak bezain azkar dituk. Herriko pare hoberenari jokutzen zioiat, nahi duena, zoinek karga haundiagoa ereman patarra gora?

GANTZUME: Ba, nahi dukalarik. Eta nik jokutzen daiat oraino gehiago. Hire idieri, nausi naizela, ni, nere behiekin, karga ateratzen, patarra goiti.

PIARRES: Huum! Hori ez zakiat! Neri ez iduritzen. Idiak eta behiak, bi dituk gero, Gantzume.

GANTZUME: Berdin dik. Jokutzen diat halere.

MANEX: Hago, ixilik, hago. Ez nitek jokatu nahi ere. Sobera segur nindukek irabaztea.

PIARRES: Bon, edazue, alo, azken ondar hau. (*Emaiten du edatera*)

GANTZUME: Zer eginen diagu? Bertze pinta bat manatuko diagu?

KATTALIN: Ez, ez! Hortan aski. Ostalera, ez gehiago edaterat eman gizon hoikieri!!!

GANTZUME: Bon, beraz aski. Haatik, xigarro bat behar diagu egin ganaintzin. (*Tabako keta xutitzzen da eta erortzen*)

MANEX: Zer egin zaik, mutila, hola erortzeko? Zer haiz arras edana? Ez diagu ba hainitz garbitu.

GANTZUME: Edana, batere ez. Goizean bezain fresko. Bainan, aspaldikoan, zangoak ditiat flako. Ez zakiat zahartzeak edo zerkegiten duen hori, bainan niri zangoek huts egiten daitatek.

MANEX: Altxa-adi ba fite, mutikoa! Zer! Hola egon behar duk?

GANTZUME: Ez zakiat altxatzeko on naizen, mutil. Ez zakiat. (*Laubazka, ezin xutituz*)

MANEX: Zer ari haiz malobra horietan?

PIARRES: Hobe diagu laguntzerat gatea. Hori, ez duk bertzenaz egun altxatuko. (*Xutitzzen lagundiruz*)

MANEX: Xo, norbait baduk hor!

GAXINA: (*Gora mintzo*) Errazu, Kattalin, gure gizon hura hor da ostatuan?

GANTZUME: To, nere andrea! (*Ahapetik*)

KATTALIN: (*Gaximi-ri*) Ba, emaztekoa ba. Hor dire zuena eta gurea ere. Ezin aterarazi ditut ostatutik oren bat huntan!

GAXINA: Ai urdea! Ateraraziko dut ba nik! (*Erasian sartzen da*) Hor haiz, mozkor tzarra! Bi oren huntan hire beha niagok. Esneketariak han ditiat etxerat etorriak eta behi deizlerik ez. Haur guziak nigarrez hari dituk, esne galdeka. Eta, hi hemen, zintzurerraino asea. Ez haiz ahalkatzen ere, mozkor tzarra!

GANTZUME: Bon, andrea, bon. Xo, xo! Ez haserra! Heldu naiz, heldu! (*Badoa ixil*)

GAXINA: Noiz etorri beharra! Ahalkatzen ere ez haiz. Haur guziak nigarrez!... Ha, hi ba hi! Arnoa emozue, arnoa!... (*Gaxina urrun-tzen da. Manex eta Piarres, xutik, zigarrata pizten*)

PIARRES: Atso hori, ha zer putikoa ahal den!

MANEX: Ikusi duk, Piarres? Ikusi duk haren larderia? Atso buzoka! Beharrik ez zukan nerea!

PIARRES: Nerea izatu bazen beti hola, laster fixti faxtak izanen zitian.

MANEX: Bo, pitsik ez duk, Gantzume. Holako gizonak tu bat ez dik balio... Boo, to, to, to.

PIARRES: Ez duk gero hori girixtino legean ere zuzen. Gizonak behar dik manatu eta andreak obeitu. Hala duk legea.

KATTALIN: Heldu zarete? Ez egon orai hor zahartzen.

PIARRES: Ba, ba. Heldu gare. Orgak ematzen bidean.

KATTALIN: Ba, emanak ditut. Lastoa ere hedatua dut gainean, zuek orgetan gateko.

MANEX: Orgetan? Ba, ganen gare ba, gu, oinez ere. Ez gare oraino hortan.

PIARRES: Ez. Egun, besta behar diagu ongi bururatu: karrosan behar diagu etxerat sartu, erregeak bezala. Andreak eginen dik itzaingoa.

MANEX: (*Zigarreta berriz pizten du*) Bon beraz. Hik nahi dukan bezala... Pul! Emazteki batek hola behar duela gizona ibili, haurra bezala!

PIARRES: Ba, hori ez zaiat ongi, Manex. Beha-zak: Guk xorta bat edaten diagu. Bainan barkatzeko duk. Ez gaituk gero maiz ateratzen. Andreak jakin behar dik barkatzen. Ba, guk ere barkatzen ziozuk zenbeit aldiz!



MANEX: Arrazoina duk hortan, Piarres. Behar diagu jakin elkarri barkatzen. Denek baditiagu gure erraitekoak. Bainan, guk bereziki, jaun andreen artean jakin beban diagu gauza hainitzen, ixil ixila jasaiten. Bertzenaz, ez badugu elkar aditzen, debruakgana dik gure bizia.

PIARRES: Egia haundia hori, Manex... To, ekar-ak sua! (*Piarresek zigarreta pizten du Manexenarekin*) Bon, goazen kanta aire bat emanetz! (*Besoꝝ beso ta balantzaka*)

Aurten ardua merke da,
Lau bortz sosetan pinta da.
Andreek ere edaten dute,
Erreberua bezala,
Elkarri diotelarikan,
Motoak xuxen detzatela!

OIHALA

GERLA URTE

—I—

Jokalariak:

PIALES: Ostalera, 45 urte, izil, pisu.

ANTON: Ostaler seme, 22 urte, sentibera, erne.

MIGEL: Antonen laguna, 25 urte, erne.

TRAIDOREA: 35 urte, aldakor.

ALEMAN AINTZINDARIA: 35 urte, mehe ta idor.

FRANZ: Aleman soldadoa, edale, gaizo.

FRIEDRICH: Alernan S.S. gogor.

ALEMAN SOLDADO BATZU

Joka-lekua:

Ostatu barnea: nausia eta honen semea, dabantal urdina soinean Alemanen zerbitzatzen. Hauek irriz eta kantuz: Ali, Alo! Ali, Alo!

MIGEL: (*Antoni*)... Urde zikinak! Fier direla, fier!!

ANTON: Leher egin bezate denek!... Ez zitziotat jasan... Nahi nikek pozoinatzen balietz denak! Errak, baduk arrebaren berririk?

MIGEL: Deus onik ez! Bardaz geroz, au fort du Hâ, joana die!

ANTON: Au fort du Hâ, gaixo Mayi. (*Nigarrez*)

MIGEL: Ez zakiat, Anton, bainan, hire ezkontza hori Mayirekin ez duk aise eginen!

ANTON: Batetik, aita ezkontza haren kontra... Bertzetik hola balin bada, (*Hats handi bat hartuz... Berotuz*) barraka guziak utzita makietarat joaiteko gogoia diat... Hauk hemen direno, ez diat berdin gogorik.

FRANZ: (*Hurbiltzen, su eske... Migelek ernaiten dio sua*)... Cognac prima... Gut... bon.

ANTON: Leher egiten anal duk horrekin!... Gaixo Mayi...

FRANZ: France, alles prima... Cognac, Femme!

ANTON: Oui, et en Allemagne, tout saloperie... A commencer par toi



FRANZ: Ia, Ia, Allemagne, grande armée... Allemagne commander Europe: France Kaput, Churchill Kaput, Staline Kaput, Amerikanisch Kaput.

ANTON: Oui, et Deutschland bientôt Kaput, Hitler prisonnier... moi garder toi...

FRANZ: Neni, neni... Hitler grand général. Hitler tête. (*Burua erakutsiz*)

ANTON: Hitler un bandit... Hitler, (*Hitleri, alegia tu eginez*) ...voilà Hitler...

FRIEDRICH: (*Xutitzen hasarre eta Antoni oldartzen*) Was! cracher sur Hitler.

ANTON: Ia, Hitler bandit, Hitler Kaput.

FRIEDRICH: (*Eskua haramen gainean eta alemanez mintzo*) En prison toi Kaput.

SOLDADOA: Achtung! (*Denak xutitzen, guardian jartzen. Aintzindari bat sartzen, guziak alemanez erasiatzen eta kanporatzen*)

ANTON: To, eniak egin dik! Oraï, hobe diat hemendik urruntzea.

PIALES: Mutiko tristea, hoinbeste aldiz errana daiat... Utz-utzik aleman horiek bakean! Ez zaukutek pitsik egiten!... Zendako beraz beti eskandala mia hoikieriz?

ANTON: Ba, zu beti hola zira! Herri guzian badakizkate zure opinioneak... Zu horien aldekoa zirela-eta, nahi zinuke gu zu bezala izaittea!

PIALES: (*Botza altxatu*) Beha zak, Anton, ni horien aldekoa! Holakorik ez diat entzun nahi! Gerla egina diat nik... Ni ez nauk hi bezalako mukuzu tzar bat! Aditzen duk gero!

ANTON: Zuk, ez dakit gerla edo zer egina duzun, bainan, beti horien alde mintzo zira... Hoik ontsa zerbitzatu behar... Hoik ixilik utzi behar... Hoik zure semeari ere preferatzen dituzu... Nik, ahoa ideki orduko, nik hitzik ez erran behar.. Hoiek beti arrazoin, zu egundainotik ene kontra zira... Oraï ere, ezkondu nahi dudala, eta hortan ere, ene kontra!

PIALES: Ba, eta hortan ere, hire onetan ari nauk! Ezkonduko haiz, nahi baduk bainan erraiten daiat, nigar goxorik beharko dukala ondoko egunetan ixuri!

ANTON: Zerendako, nigarrak ixuri!

PIARRES: Ikusiko duk! Sar hadi familia hortan! Ondoko egunetan ukanen dituk berriak!

MIGEL: Zer du gure familiak erraiteko?

PIALES: Hiretzat, pitsik ez diat erraitekorik, ni, ene semearen onetan ari nuk.

MIGEL: Ene familia duzu aipatu... Deuseren zorretan gira zurekin! Zer duzu erraiteko?

PIALES: Zuen arrazan ez diat nik konfiantzarik... Ez diat hori hiretzat erraiten... Hi mutiko ona haiz...

MIGEL: Bertzaldi batez, kasu emanen duzu gero noren aintzinean mintzo ziren Piales... ni edo ene familia hunkitzen duenak atzemanen du gero ihardesle. (*Arrotz bat sartzen, traidorea. Baso but arno eskatzen*)

ANTON: (*Migeli, ahapetik*) Ba, mutikoa... Ikusten duk ene aita! Hola duk hemengo bizia!... (*Jartzen dira eta edaten dute*)

MIGEL: Gure etxean, ez gaituk ostatu eder baten jabe... Bainan oneski bizi garela, hori nehork ez zaukuk kenduko.

ANTON: Baietz, baietz, mutikoa... Gure zaharrek ziteian elkarren fantezia... Guk, gaztek ez diagu deus behar hortan.

MIGEL: Ni beti, kontent nindukek, Mayik hi bezalako senar bat balu.

ANTON: Ba eta ni ere kontent nindukek hi bezalako koinat batekin. (*Ixilik. Zigarreta pizten*)... Errak, eta, uste duka oixtiko Alemanek zerbait eginen dautatela!

MIGEL: Ez zakiat... Gordetzea hobe, naskil!

TRAIDOREA: (*Eskua joz, nausia deitzen. Semea xutitzen*)

ANTON: Qu'est-ce-que vous voulez!

TRAIDOREA: Ah! Vous êtes aussi patron!

ANTON: Oui, le fils.

TRAIDOREA: Vous avez des cigarettes à vendre!

ANTON: Non, pas un paquet.

TRAIDOREA: Je paierai ce qu'il faut.

ANTON: Nous ne faisons pas de marché noir.

TRAIDOREA: Dommage... Je crève d'envie de fumer.

ANTON: Oh! Pas la peine de souffrir tant. Tenez une cigarette. (*Zigarreta bat eskaitzen*)

TRAIDOREA: Oh! Merci, vous me rendez bien service.

ANTON: Vous n'êtes pas du pays, vous... vous venez de loin?

TRAIDOREA: Oh! Je suis avec un camion, je fais du transport, je suis de passage... Il y a pas mal de Fritz dans le pays.

ANTON: Ah! Parlez-m'en! On en est infesté.

TRAIDOREA: Ah! Quelle engeance!... Quand va-t-on les flanquer dehors!? Ils sont aimés dans le pays?

ANTON: Oh! non... Tout le monde est contre eux, sauf quelques vieux.



TRAIDOREA: C'est comme chez moi, mon père est pour eux, et moi, je ne peux pas les voir en peinture.

ANTON: Chez moi aussi, c'est un peu ça. Mon père est plutôt pour eux, mais moi je les grillerais tous vifs... Tenez, je me suis même presque bagarré avec eux: il y en a un qui m'a colleté, pas plus tard qu'il y a une demi-heure.

TRAIDOREA: Ah, et pourquoi?

ANTON: Il était en train de hurler: Vive Hitler... et je ne sais quoi... et moi, je lui ai craché sur son Hitler et ça a fait des étincelles!

TRAIDOREA: Ah! Je vois que vous êtes un dur... vous êtes inscrit à la résistance!

ANTON: Non, mais je me demande ce que je dois faire, à présent... Le boche ne me le pardonnera pas.

TRAIDOREA: Ça vous plairait d'être à la résistance!

ANTON: Qu'est-ce-que je devrais faire?...

TRAIDOREA: Ecoutez-moi, j'en suis... Et là dessus, motus hé!... Sinon, vous seriez proprement descendu. Vous voulez travailler avec moi?

ANTON: A quoi?

TRAIDOREA: C'est très simple... Avec mon camion, moi je vous transporte des gens qui veulent passer en Espagne... Je vous les pose chez vous, et vous vous les faites passer.

ANTON: Oh, ça, ça demande de la réflexion. Oh pour ça, j'ai déjà dirigé, oui, des gens qui voulaient y passer... (*Migeli buruz*)... Tiens, celui-là pourra vous le raconter... Pas plus tard qu'hier, deux jeunes gens sont venus. Ça avait l'air d'être de ce monde là...on leur a indiqué la route... Je ne sais pas ce qu'ils sont devenus.

TRAIDOREA: Alors, vous marchez avec moi.

ANTON: Oui, mais je veux marcher, non pas comme quelques salopards qui font des sous en volant ceux qui passent en Espagne, ou en trafiquant avec les deux côtés...

TRAIDOREA: Evidemment vous touchez votre salaire... C'est juste, puisque vous travaillez... Et puis, zut; on fait le reste pour l'idéal.

ANTON: Qu'est-ce-que tu penses!... On marche, tous les deux.

MIGEL: Moi, je suis prêt... Je veux venger ma soeur!

TRAIDOREA: Ah, vous avez une soeur à venger.

MIGEL: Oui au fort du Hâ... C'est sa fiancée.

TRAIDOREA: Bon... on leur règlera leur compte à toute cette verdure... Alors, entre nous, aucun nom... aucun écrit... Ce soir même je vous amène deux aviateurs anglais et vous me les passez.

ANTON: Entendu.

TRAIDOREA: Topez-là, (*Eskua elkarri emaiten. Gero edaten*) Alors, à ce soir... Deux hommes ici pour huit heures environ.

ANTON: Entendu... (*Elkar agurtzen*)

PIALES: Nor zian gizon hori?

ANTON: Hori, makietako bat... Sarritik aita, ez ene gainean konda... gordeka biziko naiz.

PIALES: Zer egin hau? Horrek enganatu?

ANTON: Enganatu? Ez... Nihaurek onartu.

PIALES: Bainan, badakika nor den gizon hori?

ANTON: Erran dautzut... Makietakoa!

PIALES: Makiakoa... Makiakoa?... Berak ba hala erran dauk... bainan, hik badakika segur, nor den hori? Nork zakik ez den Gestapo horietarik?

ANTON: Bo, bakea emazu... Zeren bila zoazi orai? Bitxi da zoin urrun dituzun karkulak!

PIALES: Ez zakiat, Anton... Beldur nauk haurkeria gaitza egin dukala gizon horri konfientzia emanaz.

ANTON: Zu beti hola zira... Beti beldurtua, ikaran!

PIALES: Eta, zer egin behar duk orai, ofizio berri horri lotu?

MIGEL: Ez duzu gero zure semea arrunt haurra...

ANTON: Hik errak, Migel... Uste dik aitag, beti hamar urtetan naizela.

MIGEL: (*Aitari*) Ez zaitela kexa, ez... Jaliko gira! (*Orenari beha*) Jes, jadanik bortzak... Joan behar diat laster... (*Edan eta jalgitzen*) Bon, sarri artio... Erranak barkatu, Piales...

AITA-SEMEAK: Ba, sarri artio...

PIALES: Ba, ba, ahantziak ditiat... (*Ixilik*) Ez nauk halere trankil ni... Erraiten daiat, Anton... gizon arrotz hortan nik ez diat konfidantzarik.

ANTON: Ez zaitela debaldetan beldur aita... gizon hori makietako buruzagi bat da... Hemendik goiti, horrekin ariko naiz lanean. Horrek hunarat ekar gizonak, eta nik Espainiarat hemendik pasa.



PIALES: Bon, bon, hala diote... Bainan ez zakiat! (*Ixilik, leibotik beba*) To, bi aleman heldu dituk... Gorde hadi... (*Gero*) Ez, ez... Ez dik balio. Ez dituk hemengoetarik.

ANTON: Ba, ez naute ez horiek izitzen. (*Alemanek agurtzen*) Bonjour messieurs...

ALEMANA: Un litre vin... (*Jartzen*)

ANTON: Bien, messieurs. (*Zerbitzatzzen*)

TRAIDOREA: (*Sartzen... Antoni*)... Alors, on est toujours décidé?

ANTON: Toujours.

TRAIDOREA: Assez de comédie!... (*Manatzen bi soldado aleinane. Haiek Anton hartzen eta estekatzzen*) Agent de la Gestapo.

ANTON: Salaud!

TRAIDOREA: Pas la peine de faire le récalcitrant, mon petit... Tu vois, ce pétard... C'est avec ça que je règle ceux qui font les cailloux.

PIALES: Mais, Monsieur, vous n'allez pas amener mon fils!

TRAIDOREA: Vous ferez suivre le paquet, s'il en a besoin. (*Bi soldadoei alernanez manuak emaiten eta jalgitzzen*)

PIALES: (*Leibotik semea urruntzen ikusten eta nigarrez hasten*)

MIGEL: (*Ixiltasun apur bat, gero ez tul dei bat eta ahapetik*) Piales! Piales!

MALES: Nor da hor!

MIGEL: Ni naiz. (*Leibotik sartzen, aztoratua*) Ikusi dut Anton joan dutela!

MALES: (*Nigarrez eta hasarre*) Horra! Hori, dudarik gabe nahi zinuten... Ni zaharra, nik pitsik ez konprenitzen! Horra ondorioak... Kontent haiz orai!

MIGEL: (*Gaitzjitua*) Zer da! Dudarik gabe ene falta!

PIALES: Ba hire falta duk! Eta hire etxekoan falta! Zuekin abiatuz geroz zitian holako ideiak Antonek.

MIGEL: Behazu, nik uste baino gizon tipiagoa zira. Bertze memento bat izan balitz, izanen zinuen erreposta, elez bertzerik.

PIALES: Nik beti, semea han!

MIGEL: Zuk semea han! Eta nik badakit zer dudan egiteko... Makietan izanen ahal da ene doia toki! (*Badoo... Ateratzean*) Handik itzultzean, eginen ditugu konduak.

PIALES: (*Apur baten buruan, nigarrez ibardesten*) Itzuliko denak eginen ditik...

OIHALA

—II—

Jokalaririk:

LOUIS: Euskalduna, 30 urte, burua, zentzuko.

PIERRE: Euskalduna, 18 urte, mehe, haurra

ANTON: Euskalduna, 24 urte lekuko.

JOSEPH: Euskalduna, 23 urte, lekuko.

GUILLAUME: Frantsesa, 25 urte, eri, mindua

HENRI: Frantsesa, 22 urte, hetikatua.

ROBERT: Frantsesa, 25 urte, lekuko.

GASTON: Frantsesa 24 urte lekuko.

AINTZINDARI ALEMANA: 45 urte, handi eta basa.

MEDIKU ALEMANA: 50 urte, idor.

HIRU SOLDADO ALEMAN: 40 urte gutienez.

Joka-lekua:

Presoen barraka bat Alemanian. Estaikako etzangiak. Su labe bat. Lau preso elkarrekin, bat xutik, bestea jarririk, biga etzanik.

GUILLAUME: Il n'y a pas de Bon Dieu! Tu crois que c'est juste de venir crever à mille kilomètres de son pays, chez les «Schleux»... en pleine jeunesse. (*Ixilik. Ezgulka*) Parce qu'il ne faut pas se faire d'illusion, nous sommes huit dans la carrée... Les huit nous serons nettoyés. Ça fait déjà trois malades, les trois autres qui sont au-boulot ne tiendront pas le coup non plus longtemps.

LOUIS: Ah, ben mon vieux, tu nous égayes, toi aumoins.

GUILLAUME: Tu verras, Louis, ce que je te dis... Nous sommes ici quatre Basques et quatre Kaskoins, comme tu dis, mais nous y passerons tous... Vous aussi les quatre Basques vous y passerez, quoique costauds... Tu verras, tu verras...

PIERRE: Le docteur viendra, sans doute bientôt passer la visite!

GUILLAUME: Il s'en irait temps... Il n'a pas paru aujourd'hui encore... C'est bientôt six heures... Les autres rentreront du boulot... Et nous, on risque d'attendre toujours le toubib.

HENRI: Je crois que je vais encore cracher du sang!



GUILLAUME: Tu crois qu'on ne pourrait pas l'hospitaliser à celui-là... Non, ils veulent faire crever les gens sur place et les autres avec.

PIERRE: Pourvu qu'Anton réussisse à voler des patates!...

PANTXO: (*Nausia urruntzen da*) A la douane! Oh! Oh! A la douane! (*Ukurtzen da eta burua bi eskuen artean hartzen du*) Hau ixtorioa... Oh! Oh!... Eta pitsik ezin egin!... Xahu nuk!... Xahu nuk!... (*Nigarrez. Beste hiru lagunak hurbiltzen dira gibeletik*)

FERMIN: Pantxo!

PANTXO: (*Burua itzuli gabe*) Ai, ai, ai... ne me frappez pas!

FERMIN: Errak, Pantxo, zer ari haiz hor?

PANTXO: (*Besteak ikustearekin*) Jes! Jes! Zuek hemen?

FERMIN: Ba, mutikoa! Zer ari haiz hor? Non dituk guardak?

PANTXO: Zuek ez zaituzte harrapatu?

FERMIN: Ez, mutikoa, itzuli bat egin diagu eta orai hire salbatzerat heldu gintian.

PANTXO: (*Hats bandia hartuz*) Ba, mutikoa! Ixtorio gaitzak ukan ditia... Doidoietik nuk bizi... Ez zakiat hura hala den edo ez!

FERMIN: Nor, Hura!

PANTXO: Guarda, mutikoa, guarda... Ez zakiat, bizi den edo ez!

FERMIN: Bainan, zer duk, mutikoa?

PANTXO: Ba, gauza itsusiak iragan dituk hemen, ixtant bat huntan. Krimak ez bertze guziak... Guarda batekin ari izan nuk hilka kataskan... Harek lepotik hartu nik... Nik hura gorputzetik... Eta, ari izanak gituk, ostikoz, ukamiluz, ausikiz... Ez zakiat, to, batere, bizi den edo hila den... Oraitxet hemen nihaure flakatur, egin indarrez. Emazue, emazue behako bat inguruko sasi hoieri, ean ez duzuen bederen hil gogorra, haren gorputza harrapatuko. (*Nausia agertzen da*)

FERMIN: To, horra guarda, horra, horra. (*Nausia xutik*)

PANTXO: (*Izjitua*) Ba, hura duk, hura duk naski! Ai, ai, ai.

NAUSIA: (*Bere burua ezagutarazten du*) Eh ben Pantxo! Piztu hiza berritz. Hi bezalako gizon baten gainean kondatzen ahal ginian he! Banian ba, lehen ere, zerbait duda hire baitan.

PANTXO: Bainan nausia, zu zinena?...

NAUSIA: Ba, ni nintuian... Hi bezalako kontrabandista pitsik ez duk. Egiazko kontrabandistak ez ditik, ez preso joanik, ez hilik ere bere lagunak eta bere nagusia salatzen. Eta, egiazko kontrabandistak ele guti ibiltzen dik bere obrez. Batere ez baditu aipatzen, hobe!... Are, hortan aski... Har zak hire karga. Zoazte hola hola aintzinerat. Bideak libro dituzue... Hik, Pantxo, gau huntako saria ukanen duk, bainan hemendik goiti ez diat hire beharrik izanen... Bon, ni hemendik nioak... Sarri artio. Piai on.

FERMIN: Ba, sarri artio, nausia!



DENDARIETAN

(*Gertaldi bakarra*)

Jokalariak:

AMATXI. Xaharra.

LUIXA. 30 urte, alabixia, emazte gazte zintzoa.

MAYI. 28 urte, honen ahizpa, ederra ta zuzena.

MARTXALINA. 26 urte, ahizpa, koska.

GAXUXA. 19 urte, sentimentalala.

PELLO

Joka-lekua:

Edozein barnetan, Luixa salbu, beste lauak josten ari.

AMATXI: Nun ote dugu Luixa?

MARTXALINA: Ba, dudarik gabe, estazione egiten ari bide horietan...
Badakizu, Amatxi, gu lau ahizpetarik, hura da beti luzeena,
komisio egiteko.

MAYI: Ba, ez haiz ez hi ere laster heietarik... bereziki tailurean haizelarik.

AMATXI: Ah! Ez ditun ez zuen aitamak bizil... Ikasiko zintuten heiekin
orena zer den.

MARTXALINA: Badare, zenbat orenak dira?... (*Orenari behatzen dio*) Bortzetan oroitaraz niri badudala zerbait handi egiteko.

MAYI: Zer handi?

MARTXALINA: Ikusten dun letra hau, ene biziko sekretua hemen dun.

MAYI: Zer da hori?

MARTXALINA: Erranen dautzuet, gero ere jakinen baituzue. Bainan ez
nauzue mokokatuko. Amatxi, ez nuzu mokokatuko?

AMATXI: Atx! Orratza sartu dinat eritik. Neska zozoa! Eman bakea, eta
ari hadi lanean!

MARTXALINA: Bai, Amatxi, bail... Bainan ez ni mokoka!... Baionan izan
naiz, katedraleko ondoko etxe hartan.

MAYI: Zein etxetan?

MARTXALINA: Emazte sorgin haren etxean.

AMATXI: Sorginetan! Jesus, Maria, ta Josepe! Horretan girea? Ez baihez
ahalge!

MAYI: Betitik errana da, sorginkeriarri lotzea, erlisione tipitzen ari delako
marka.

MARTXALINA: Ez has orai predikuan eta erasian! Agindua duzue ixilik
egoitea.

AMATXI: Neska zozoa! Alahen zozoa!

MARTXALINA: Ixo, Amatxi, ixo!

GAXUXA: Eta sorginak zer erran daun?

MARTXALINA: Eman zautan «envelopa» hau; barnean badun paper bat;
ideki behar dinat, egun, bortz orenetan zuzen, ene geroa
zer izanen den jakiteko.

AMATXI: Jesus! Jendea hoin zozoa izan daitekela!

MAYI: Zer uste dun, ala senar bat izanen dunela «envelopa» horrekin?

MARTXALINA: Nork ziakin?... Eta beharbada hiriko gizon gazte aberats
bat!

MAYI: Hi beti hola haiz. hemengorik nehor ez dun aski hiretzat... beti hiri-
koak hobeak!

AMATXI: Bai eta entzun ezan hau. geldituko haiz ez kanpainarrrik ez hiri-
tarrrik gabe.

MARTXALINA: O, o, o!... Hori ageriko! Ni hasteko ez nun kanpainar tutu-
la horiekin ezkonduko. Ah, non Its sont trop grossiers!
Barda ere Pellok egin zaitan konplimendu. «Xu behoka
pollita!». Ah, non alors! «Behoka», ni?

AMATXI: Ba, ez zunan batere gaizki Pello, hiretako.

MAYI: Hik ere, neska, Pello horren eletarik jujatzen baditun kanpainetako
mutil gazte guziak!...

MARTXALINA: Ba, no!... berdin din. Lurra zikinegi dun enetako; nik, nahi
ditinat eskuak xuri, eta behatzak hola gorri. Ikusten dun?
(*Eriak erakusten ditu*)

AMATXI: Behoka lilitua: hura haiz hi. Ez erraiteko, Astaña lilitua!

MARTXALINA: Eta gero, ukanen dinat apartamendu tipi, pollit bat, muble
berri ta garbiekin, erridau pollit batzu leihoetan. Otoan
joanen gaitun zinemara...

GAXUXA: Eta ni ere gonbidatuko nun?

AMATXI: Horra bertzea ere xutik lo! Zer hago amentsetan galdurik?
Eman lanean, Haurra! Amentsak gauazko utzirik.



MAYI: Nik ordea, nahiago dinat euskaldun sano, mutiko on bat: segurago dun, laborari etxeko andere... Han, nere lanekin, nere haurrekin, ama familiako on bat egin!

MARTXALINA: Ageri dun ez haizela Parisen egona!

AMATXI: Joan jin bat egin dunala Parisera, eta uste dun zernahi badakinala... Xoroo!...

MARTXALINA: A, ez, ez! Haurrik ez bederen! Ça coûte trop cher... Bat edo bi beharbada... Behar dinat moderna izan! (*Zakur ibahusia ozen da*)

MAYI: To, Luixa hor dun.

LUIXA: (*Luixa sartzen da, zarea besoa*) Jainkoak dizuela arratsalde on!

AMATXI: Ba, ordu dunala!

LUIXA: Ez da ene falta, Amatxi! Banituen sekulako komisionek egiteko. Zahia manatzen izan naiz. Odolgi egiteko hertzeak ezin hatzemanek, bizpalau tokitan ibili naiz. Apez-etxean ere «kulta» pagatu dut.

MARTXALINA: Eta jaun erretorak ez daun fisik erran enetako?

LUIXA: Bai, preseski!

MARTXALINA: Baziakinat, bai kexu dela enetako; ez naizelakotz kongregazionean ibiltzen, dantzan ari naizelakotz...

LUIXA: Bai, desohoragarria, hi! Familiako bakarra haiz, holakatu!

MARTXALINA: Hola dun, Ma chère! Ez nun ni mutzurdin higatu nahi kongregazione hortan.

LUIXA: Ez ziakinat kongregazionean mutzurdin higatuko hintzen, bainan segur eginen haiz, hartu dunan bideari jarraikiz.

MARTXALINA: Zerendako?

LUIXA: Zer uste dun, mutiko guziak zozoak direla, hi bezalako petenta baten hartzeko, ezkont-laguntako? Abusatu nahiko dine bai hirekin, ez bertzerik.

MARTXALINA: Zer dut bada nik, bertzek baino gutiago?

LUIXA: Hik dunena hau dun: dena jantzi, ibilaldi eta lan guti. Hortako hehar din diru eta hik hura eskas, dirua. No, joka nezaken, Pello zozo hortaz trufatzen bai hiz, hi baino lehen ezkonduko dela hori.

AMATXI: «Behoka» zenbaitekin! (*Martxalinez bertzek irri*)

MAYI: (*Martxalina-ri*) Arrunt xoroo haiz hi. kongregazionea dun partida; kongregazioneko neskak ez direla ezkontzen; alta mutiko serio guziak kongregazioneko nesken ondotik zabiltzan,

eta igandean ere jaun erretorak, elizako galeria muturretik zenbait urrundu ditin, guri sobera so zaudela.

GAXUXA: Martxalina!

MARTXALINA: Zer da?

GAXUXA: Tenorea, letra irakurtzeko tenorea!

MARTXALINA: A, egia!... Ale, ixo! Ea, zer dioen sorginaren letrak? (*Muntzari so egiten dio, erranez*) Bat, bi, hiru... bost orenak! («*Envelopa*» urratzen du eta irakurtzen) «Ce soir même, après la lecture de cette lettre, plusieurs jeunes gens passeront devant votre fenêtre. Ne leur adressez pas la parole. Contentez-vous de leur sourire. Le premier d'entre eux qui vous parlera, celui-là sera pour vous le mari idéal. Faites sa conquête». (*Esku zartaka hasten da*) Zer xantza! Egun beraz senar-gaia izanen dudala!

LUIXA: A, hi! Xoroo haiz bai, nik uste baino ere!

MARTXALINA: Futxo, behar dinat bai «toilet» poxi bat egin. (*Badoo aldatzera*)

LUIXA: Bainan, Amatxi, nongo odoletik da neska hori, hola burtxoratze-ko?

AMATXI: Aski kexu nun bai, ni ere... (*Gaxuxa bere aldetik nigarrez*)

MAYI: Zer du horrek berriz, nigarrez?

LUIXA: (*Gaxuxa-ri*) Zer dun bada hik ere? Erran zer du nan!

GAXUXA: Martxalinak gizon-gaia eginen baitu eta nik ez!...

LUIXA: Gaixo enuxenta! Hori zunan beraz hire gibelego mina!

AMATXI: Pagatuz bederen, beharko dinau, naski, gizon bat etxe honetan sartu!

MARTXALINA: Horra prest! Ez naiza ederra? (*Bere burua altxatuz sartu da*)

LUIXA: Orai jar hadi, eta lot lanari!

MARTXALINA: Baietz bai! Senar-gaia etorri arte. (*Ixiltasun apur bat*) Errazu, Amatxi neskato pollita ahal zinen gaztetan!

AMATXI: Ez ziakinat bada; hauxe dun galdea!

MARTXALINA: Zure gizon-gaia nola egin zinen?

AMATXI: Nere mereximenduz, ez hik bezala hire girgileriez.

MARTXALINA: Errazu, Amatxi, pollita zena Aitaxi, gaztean?

AMATXI: Bai, nik nahi bezalakoa. (*Denek irri. Zakurrak ibausi*)

MARTXALINA: Ene gizon-gaia, segur! Ea, ikus! (*Leihora doaa*) O, ou! Jaun eder bat auto eder batean. Jausten ari dun. Irri egin behar zionat, sorginak erran bezala.



GAXUXA: *(Martxalinen ondora heldu da, irriz irriz bura ere, baina besteak urrundu nahi du)*

MARTXALINA: *(Gaxuxari)* Hi, gibela hadi!

GAXUXA: Ez, ez, nik ere behar dinat ikusi.

MARTXALINA: *(Bortizki)* Zozoa!

GAXUXA: *(Nigarrez)* Ez, ez nun joanen!

MARTXALINA: No, horra! Berriz autora igan dun eta partitzen dun!
(Gaxuxa inarrosiz) Haizen bezalako xoroa!

GAXUXA: *(Bere lanera itzultzen da nigarrez bipaka)*

MARTXALINA: *(Lanera itzuliz hau ere)* Holako neska! Jo nezake! Ene bizi guzia xahutu baitaut beharbada.

AMATXI: No, merezi dun. Hi ta Gaxuxa ta Sorgina, denek baduzue elgarren eite.

MARTXALINA: *(Gaxuxari buruz)* Ez dun ez berriz hasi beharko lan hurtan. Bertzenaz, ikusten dun orratz hau, sartzen daunat erroraino.

GAXUXA: *(Trufaz eta musikaz mihia tiratzen dio)*

LUIXA: *(Kantuz: «Iruten ari nuz»-ren airean)* «Ezkont mina dutenak seinale dirade...» *(Hortan gelditzen da, erranez)* Ez ziakinat «matel hezurak seko» ditunanetz, baina mihia bai «perde» dun!

MARTXALINA: Neska mentsa, hi ere! *(Zakurrak ibausi. Martxalinalak leibora laster)* A! Etxe gibeletik norbait heldu... Nor ote da? Hala-ko zimiko bat badinat bihotzean. Ene senar-gaia ote? Nahiago dinat ez ikusi... Irriño bat egin behar dinat, hola...

GIZON BOTZ BAT: Ouu! Martxalina, pollita!

MARTXALINA: *(Aurpegia gordez)* Ama maitea! Pello hor. Pello zozo hura dinat hor! *(Leiboa besten du. Bertze guzietan leber egiteko irriz)*

LUIXA: Merezi, merezi, merezi...

MARTXALINA: A, bai, ontsa enganatu nauela sorgin debru hark!

AMATXI: Enganatu batere, ez dun batere gaizki Pello, hiretako.

LUIXA: Erran, eta nola behar ditun ezteiak egin, xuriz ala beltzez?

MARTXALINA: *(Emeki)* Enganatu nin... Ez nin ez bertze behin eginen.

OIHALA

MANEZ OHORETAN

(Gertaldi bakarreko komedia)

Jokalariak:

MANEZ. 50 urte.

MAINAXI. 40 urte, Manezen emaztea.

NANI. 50 urte.

SUPREFETA

ASEGURUZALEA

Joka-lekua:

Edozein etxetako sukaldea.

MANEZ: *(Manez bere emazteak bezituzen ari; lepokoarekin batailan)* Baina, emaztea, ito behar nauzu! *(Berak eskuak sartuz)* Emazu bada hola! Tinka-zazu hemendik! Ori, orizu izkilima! Kasu! Ez sar, haatik!... Ai, ai! Sartu zaitak bai, emazte triste!... Emazu hona! Zu zoazi hortik!

MAINAXI: Emazu zuhaurk, ez bazira kontent.

MANEZ: Zoazi hortik!... Emazu miraila!... *(Ekartzen du Mainaxik)* Brien ariña! Suprefeta, suprefeta, futitzen niz gero, ni suprefeta... Hoinbertze jestu behar ditugula, gizon txar horrentzat! *(Emazteari deika)* Mainaxi! Mainaxi! Zapetak, non dira zapetak? Orai ere ioana zaitak bai!

MAINAXI: *(Sartzean)* Ekartzen, ekartzen... Zer da bada, ontsa ulixetan zira... Zapetak hemen dituzu.

MANEZ: Zer, larru fin, hertsu horiek behar baitituz ezarri? Ez, ez! Ekar hona merkatuko zola lodi haiek!

MAINAXI: Ez haatik! Horiek behar dituzu, horiek...

MANEZ: Emazte debru! Honek nahi dituen guziak beti egin behar... *(Mainaxik eman zapatak ezin jantziz)* Br... Ai, zer mina!... Zinaurriak bezala sendi dituz eri puntetan. *(Emaztea deituz)* Mainaxi! Non zira berriz ere? Zato bada hona zapata eskuin honen sartzen laguntzera!



MAINAXI: (*Senarraren palto luzea besoan*) Heldu, heldu... paltoaren bila joana nintzen.

MANEZ: Lagun nezazu zapata horren sartzen!

MAINAXI: (*Laguntzen du*) Ale, pusa! Ale, sar!

MANEZ: Sar, sar... Emazte demontria, tira zazu zuzen, zuk ere; ez trebeska; tira zuzen, eni buruz, ez saiheska!

MAINAXI: Alo, entsaia zaite berriz!

MANEZ: (*Entsaiaitzen da, debaldetan eta... basarre gorrian*) Zoazi hortik, emazte botigala!... Zoazi, bistatik otoi!

MAINAXI: (*Urruntzen da*) Aski dituzu beraz zuhaurk ezartzea...

MANEZ: (*Deika*) Mainaxi!... Berriz joana diat bai... Ekarazu kuller bat!

MAINAXI: Heldu, gizona, heldu... Horra zure kullera!

MANEZ: (*Zapetak jantzi-ta azkenean, urrats zenbait eginez*) Zer zapetak! Hori duk hori, zangoak galeretan sartzea!

MAINAXI: (*Palto luzea erakutsiz*) Ori, ezar-azu palto hau orai!

MANEZ: Zer, palto hori!...

MAINAXI: Bai hori, bai!... Ezkonduz geroz, behin ezarria duzu bakarrik. Bipiatuko ere da bertzenaz, estrainatu gabe. Bainan ez zaite horrekin jar... gibekeko buztan hori ez zimurtzeko.

MANEZ: Zer, nola? Ez dudala jarri behar ere?... Booo!... Bakeak ere zer-bait balio baitu... Ekar-azu halere! (*Emazteak laguntzen du jantzien*) Ez bainiz etxetik jalgiko, ez dute irririk eginen ni hola bezti ikusirik. Beharrik!... Suprefeta edo ez dakit nor heldu dela... jiten ahal da laster. Bertzenaz ni banoa arto jorrara. Ez naiz segur manera hontan luzaz egonen.

MAINAXI: Bai, engoitik laster hemen izanen da: Bederatziak dira; erran tenorea... Errazu, potta emazu gero, behar bezala, arrabotsik gabe.

MANEZ: Potta Suprefetari? Zer derasazu emaztea? Ala burua galtzen ari duzu?

MAINAXI: Ikusiko duzu: medaila ukaitean eman behar zaio potta.

MANEZ: Bakea emazu hortik, emaztekoa! Baduzu burutik? (*Emaztea urruntzen da ixilik eta Manex bera ari da, bere buruarekin*) Hauk ixtorriak! Suprefeta Baionatik jitekoa dela, medaila ene papoan ezartzeko... Bederatzietako prest izaiteko errana. Engoitik ez dukek urrun... Badiat bai naski, pipa bat erretzeko aizina. (*Zigarreta bat itzulikatzen ari*) Potta, potta... Emazte tetelea! (*Atean joiten dute*) To, hor diat, hor diat!... (*Oihuka*) Aintzina!

NANI: (*Nani sartzen da*) Egun on Manex!

MANEZ: To, hi hintzena? Uste nian Suprefeta zela.

NANI: (*Harritua*) Bainan, bainan, zer gertatzen zaik? (*Irriz*) Ez dituk bada ihauteriak ez, oraino.

MANEZ: Hago ixilik! Hago ixilik! So egi-zak!

NANI: Zer dituk jantzi bitzi horiek? Zer gertatzen zaik?

MANEZ: Ez hadila nitaz trufa! Afera ixilik egin nahi ginian, nehoi fitsik erran gabe. Bainan hor haizen kasuan, ez daiait gordetzen ahal; barkatuko daitak. Horra. Medaila bat emaitetako zaitaie, gerlako balentria batentzat. Suprefeta jitekoa diat, bederatzietako...

NANI: Biba hi gaizoa! Biba hi! Gaitza haiz! Egia erran haatik, iduri duk hola ingeles konte edo duke handi haieratik...

MANEZ: Trufa hadi, trufa!... Berdin dik. Nahiago nitek hemen hola izan baino ongarrri hedatzera joan. Hemen niagok, tink-tinko, ezin jar ere... palto honen buztana ez zimurtzeagatik.

NANI: Bai, zera, mutikoa! Hola egon behar baituk, zutzuta? Nik laster altxatuko daiait eta estekatuko palto-buztan hori, goiti.

MANEZ: To, arrazoina duk. Hori egin behar dautak hik.

NANI: Laster egin duk hori. Ekar-tzik izkilima bat edo bil!... To, hago, nihaurk baditiat. (*Salari bizkarrez dagola Manex, Nanik palto-buztana lotzen dio aski gora*) Horra! Ontsa duk hola! Hola bederen jartzen ahalko haiz eta galtzak zikintzen badituk, buztan hori behehitu-eta, denak gordeko ditik.

MANEZ: Milesker, gaizoa, bai milesker! Hik salbatzen nauk! Orai zango hauk ditai gaizki. Zangoak eta... papoa... Booo!... Nola tinkatzen duen haatik krabata honek!

NANI: Bainan mutikoa!... Eman hadi airean... Gero ere Suprefeta jitean laster beztituko haiz. Zer behar duk hola egonik, sofritzen?

MANEZ: To, arrazoina duk. Barraka guziak kentzen ditiat. (*Zapetak kenteta*) Doatzila hortik! (*Krabata ken-eta*) Eta hau ere! (*Hats banda hartuz*) Aaa! Azkenean! Izigarri duk gero, hola tinki-tinkian egoitea! Nik ez diat hori maite, berdin dik!

NANI: Egia duk... Ez duk, ez osasunarentzat ere biziki on.

MANEZ: (*Galtzak goitituz*) To, badakik, zer eginen dugun, ene medailaren ohoretan? Behar diagu Bordaleko hoitarik on bat hustu. Hago ixtant bat! Hortxe badiat bat onxkoa! (*Badoa basoen ta botelaren bila*) Bai mutikoa! Hau edan behar diagu! (*Idelkitzen du botella eta arnoa emaiten*) Oroit hiza, to, nola bieki elgar



kausitu ginuen han gerla denboran, Craonne-ko zilo hartan?

NANI: Oroit naizenetz? Haurtua behar nitek izan, ez oroitzeko! Zer gudukak egun hartan!

MANEZ: Egun hartan merezitu nian nere medaila: Grenada tiraka, izigarriko herexa egin ginian, lagun batekin. Laguna hil zian. Ni bizirik jalgi. (*Topatuz*) Hire osagarriari, gaizoa!

NANI: Bai, agian luzaz! (*Xorta bat edan eta*) Hum! Zer gauza, hau, to!

MANEZ: Grenaden balentria hori egin eta, biharamunean kolpatua izan ninduian: bi obus puska; bat hemen buruan; bestea hortxet, aztal azpian... Ba, baa, zerbait ikusiak gaituk bail... Errak eta... badare... hik ikusi duk behinere hola medaila papoan ezartzen?

NANI: Hortako doia ikusi izan diat bai: Bordalen behin; eta bertze behin suan ginelarik.

MANEZ: Errak eta... Mainaxik errana zaitak —emazte horiek nonbaitik oro jakiten baitituzte— baizik eta behar dela potta eman, medaila ukaitean!

NANI: Bai, nik hola ikusi izan diat bai... Gero hemen ez zekiat. Badakik, hemen etxen bai hiz.

MANEZ: Alo! Zernahi pentsatuko die... alo! (*Edaten du. Atean joiten dute*) To, hor diat Suprefeta!... (*Zapetak berriz hartzen ditu eta Nani-ri*) Hik emak arrapostua!...

NANI: Aintzina, aintzina! Rentrez, rentrez, Monsieur!

ASEGURAZALEA: (*Asegurazale bat sartzen da, bere zakuarekin*) Bonjour, Messieurs!

MANEZ: (*Nani-ri*) Goizegi sar-erazi duk; ez nindian prest!

NANI: Ez kexa, mutikoa! Antolatuko gaituk bai!

ASEGURAZALEA: (*Paper hardi bat hartuz*) Voyons, c'est bien la maison Larre-gain-e-ko-borda?

NANI: Ba, ba, Larregainekoborda.

ASEGURAZALEA: Où est Monsieur Etcheçaharreta ttipia?

MANEZ: (*Soldadoen agurra eginez*) Etcheçaharretattipia... Présent!

ASEGURAZALEA: Voilà, Monsieur Etcheçarre... enfin la suite, vous n'êtes pas assuré? N'est-ce-pas? Je viens vous proposer un contrat d'assurances contre l'incendie.

MANEZ: (*Nani-ri*) Zer erraiten dik, to?

NANI: Ez zekiat... Hire gerlako historioez ari izan behar dik...

MANEZ: (*Alki bat aintzinatuz*) Errakok jar dadin.

ASEGURAZALEA: (*Jartzen da*) Ah! Merci!

MANEZ: (*Nani-ri*) Horrek ere xorta bat edanen dik.

ASEGURAZALEA: (*Basoa hartuz*) Ah! Volontiers! Vous savez, vous êtes loin ici. Il faut faire beaucoup de dé tours pour arriver chez vous.

MANEZ: (*Nani-ri*) Zer erraiten dik?

NANI: Emaiteko, emaiteko edatera.

ASEGURAZALEA: (*Edan-eta*) Il est bon votre vin! Vous ne comprenez pas très bien le français, n'est-ce-pas?

MANEZ: Peu, peu... Gutu, ba, arras guti!...

ASEGURAZALEA: Je vais vous expliquer. Le feu... hé!... Le feu à la maison. Si vous n'êtes pas assuré, vous perdrez tout. Mais si vous êtes assuré, vous perdez moins avec le feu... Le feu... vous comprenez?

MANEZ: A, ba, sua duk le feu. Bai bai errakok baietz, ibiliak girela gu suan. Eta nola? Le feu, oui, oui... Combattant moi... Bi aldiz kolpatua... So egizu, hemen, buruan eta hor ere zangoan... (*Kolpeak erakutsi dito*)

ASEGURAZALEA: Ali, vous êtes ancien combattant! Bravo! J'en suis un, moi aussi. (*Eskua eskainiz*) Topez là! Alors, on pourra s'entendre. Voici, je vous assure votre ferme, cheptel compris, pour 100 000 francs. Ma société s'engage à vous verser cette somme, en tout ou en partie, selon les dommages subis par suite d'incendie. De votre côté vous vous engagez à me faire un versement annuel de 101,50 francs. Si vous acceptez, vous n'avez qu'à signer ici, au bas de cette page.

MANEZ: Zer erran dik, to, prediku luze hortan?

NANI: Zerbait diru historio duk beti... Nik uste, medaila harekin zerbait diru ere ukanen dukek.

ASEGURAZALEA: Alors, c'est bon? Vous voulez bien me donner votre signature?

NANI: Ba, siñatzeko erraiten dik... hor, behereko xoko hortan.

MANEZ: Eginen diagu, ba...

ASEGURAZALEA: Tenez mon stylo!

MANEZ: Hau tresna ederra! Sosak balio ahal ditik! Jabea ere ez baitu nor-nahi, gure jaun Suprefeta! (*Sinatzeit du*)

ASEGURAZALEA: (*Puskak bilduz*) Bien, c'est très bien! Messieurs, au revoir! Je m'en vais! (*Badoa*)



MANEZ ETA NANI: Adieu! Adieu!...

MANEZ: (*Nani-ri*) Errak eta... Medaila hura ez zaitak eman!

NANI: Berriz jinen duk, nik uste. Paperak ere behar ditizke zuzen ezarri!...

MANEZ: Bitxi duk halere... Pottarik ere batere ez!

NANI: Eskua ontsa tinkatu dauk, haatik! Ene arabera, berriz jinen duk. Medaila eta dirua, biak batean ukanen dituk!

MANEZ: Ba, bazukek, bazukek! Beti edan dezagun!... Bertzenaz Suprefeta izanagatik arras gutarteko gizona zian...

NANI: Bai, seinale gerla egina duela!

MANEZ: (*Karrosa bat heltzen da etxe aintziner*) To, karrosa bat! Baduk hor jaun bat baino gehiago ere! Jaunxkila bat hona heldu... Bidez tronpatu dituzke! (*Atean joiten dute*) Aintzina, aintzina!... Rentrez, rentrez!...

SUPREFETA: (*Suprefeta sartzen da*) Bonjour, Messieurs!

MANEZ ETA NANI: Bonjour, bonjour!

SUPREFETA: Je suis le Sous-préfet. Monsieur Etcheçaharretattipi habite-t-il ici?

MANEZ: Ba, ba!... Présent! Présent!... Jes! Ene izena ere jakin!

SUPREFETA: (*Harritua*) Ah, c'est vous? Préparez-vous, je vous emmène dans ma voiture jusqu'au bourg, pour la cérémonie et la prise d'armes.

MANEZ: Zer erraiten dik, to?

NANI: Ez zekiat, bere karrosarekin izan behar dik zerbait historio...

MANEZ: Ez nuk dada ni, horren lauzkatzera joanen.

SUPREFETA: Allez, dépêchez-vous... On nous attend.

NANI: Mugitzeko, erraiten dik.

MANEZ: (*Kexu kexua*) Mugitzeko, mugitzeko... Horrek behar gaitik manatu, ala?... To, kontra egiteko ere, edan dezagun oraino azken xorta hau!...

SUPREFETA: (*Hasarre*) Ecoutez! Il faut vous dépêcher... Je ne vais pas faire ici le pantin.

NANI: Erran dik mugitzeko.

MANEZ: O, hu! Gu honen mutil beraz? Mana-zak kanpora, jauntto hori, ez dugula horren beharrik hemen.

NANI: Hé, Monsieur, fous-le-camp!

SUPREFETA: Quoi? Qu'est-ce- que vous dites? Au Sous-préfet? Vous osez?

MANEZ: (*Corri-gorria*) Oui, oui, fous-le-camp!... Allez, fous-le-camp!

SUPREFETA: Ah! Ça par exemple! Venir gentiment vous chercher en voiture, pour être reçu comme un chien, mais c'est incroyable! Vous aurez de mes nouvelles, Messieurs! Et d'abord je supprime la prise d'armes et je vous donne votre décoration ici même. Je ne pensais pas tomber sur un individu pareil, un ivrogne et un janfoudre! (*Zakua miatzen du*)

MANEZ: Zer miatzen dik zaku hortan?

NANI: Kasu emak! Kolpe tzar zerbait asmatzen dik!

MANEZ: A! Baia? Kasu eman beza berak!

SUPREFETA: (*Mahain gainean pausatu paketa*) Voici votre citation et votre insigne! (*Hurbiltzen zaio Manez-i*)

NANI: Kasu emak! Zintzurretik lotuko zaik!

MANEZ: (*Suprefetari aintzinduz, bera lotzen zaio papotik*) Ez, debruen ariña, ez... nihaurk urkatuko diat lehenago...

NANI: (*Paketa ta zakua Manez-i emanex*) To, emazkiok hauk ere!...

MANEZ: (*Atetik botatzen ditu puskek oro*) Eremazkik hirekin hire piltzarrak oro! Debru gizon kakeria!... (*Erdira jinez*) Hala duk eta!... Zer mila sorgin da hori? Ene etxera, eni eskandala emaitera etorria? Bakoitza bere etxean nausi duk, arazi!... Debrua, ez nie ni hola enganatuko!

OIHALA



FERRANDO

Jokalariak:

FERRANDO: Kantoniera, 50 urte.

GATTILU: Faturra, 50 urte.

TTIRO: Ihiztaria, 50 urte.

ELKORRA: Eskalea, 65 urte.

MANDDO: Eiherazaina, 50 urte.

MARTZALIN: Ferrandoren emaztea.

MIRIKU: Mediku zahar lausoa.

LEHEN GERTALDIA

(Ferrando kantoniera bide bazterrean lanean ari...)

FERRANDO: Hau ofizio dorpea!... Gero erranen duzue zuek «kantoniera bezain alferra»... Uf!... Arroila debrua!... Ferrando, aski! Aski lan baduk eginik. Bere buruaren hiltzea ez duk haizu... Sobera lanek gizona hiltzen dik... Ferrando ez zakala sobe-
ra lan egin... Bestenaz laster hilen hiz... Luzaz bizitzeko segetetua huntan duk dena: kurri baino hobe geldirik... xutik baino hobe jarririk... jarririk baino hobe etzanik; jar giten beraz... Ha!... Lehenik beha dezagun nausirik ez dugun bixtan. Hoinbertze nausi ere badugu kantonierek!... Mera, axuanta, herriko mutila, segetarioa, nik dakita!... To, to! Ferrando, jozak lanari!... Gattilu faturra hor diagu. Jozak, bertzenaz salatuko hau buruzagieri...

GATTILU: Gogotik ari zira Ferrando!

FERRANDO: Ni beti bezala...

GATTILU: Naski egun ikusiko dugu munduko gauzetan karioena!

FERRANDO: Zertaz mintzo zira?

GATTILU: Badakizua zuk zer den munduko gauzetan karioena?

FERRANDO: Nik ez!... Zer da?

GATTILU: Munduko gauzetan karioena da, kantonieraren izerdia.

FERRANDO: Bon!... Eta zuk nahi duzua jakin zer den munduko gauze-
tan merkena?

GATTILU: Zoin da?

FERRANDO: Zu bezalako tipula-buru baten solasa...

GATTILU: Bon, bon!... Orai kitto. Uzten zitut zure izerdiarekin, eta banoa ene tipula-buruarekin...

FERRANDO: *(Bakarrik)* Hala duk eta... Fatur xikin horrek ez zakik ene aldean pasatzen zerbait kixkilkeria jali gabe... Nardarazten ere banik azkenean... Gizona leher egina ari lanean eta ezin here gisa utz. *(Abarrosiaka)*... Ah! Loa ere heldu zaitak... *(Jartzzen da)* Hoinbeste lanean ari-ta, ene lana ez duk ageri ere... Behar diat karkulatu nola lanean ari behar dutan, ene lana ageri izaiteko gisan. *(Berriz ere abarrosiaka, bere boneta kentzen duela. Loari emaiten du)*

TTIRO: *(Hor gaindi pasatzen)*... To, to!... Eni ttiro erraiten daatela, baduk haatik hik ere tiro bat emana!

FERRANDO: *(Loale)* Bakea emak!...

TTIRO: Nik ihiziari tiro, eta hik lanari... Iratzar hadi to!

FERRANDO: *(Zurrungan)*

TTIRO: *(Boneta hartzen dakola)* Ah! Ez dukala iratzartu nahi! To hanbat gaixto hiretzat... Hemen badiat eper bat... Hiri present egin gogo daiat... Ez baduk eskuetan hartu nahi, ezarriko daiat hire bonetaren azpian. *(Irri maltzur batekin ezartzen du boneta behi-korotz meta baten gainean)* To, hor izanen duk eperra bonetaren azpian... Haatik kasu emak!... Eperra ez duk arras hila, kolpatua duk bakarrik. Boneta azpitik har-zak eta tinka-zak hartzean, bertzenaz eperra airatuko zauk. Bon! Ni joan nuk aintzina. *(Urruntzen da doi bat, emeki, piru batzu botaka)*

FERRANDO: *(Begi bat idekiz eta gero bestea)* Egia ote ziok alimale horrek? Jes! Zer da harrabots hori?... Debruen bizkarra!... Behar diat haatik eperra bildu!... *(Hurbiltzen da polliki bonetari eta «blau» hartzen du azpitik... eskuak zikinduz)* Urde zikina!... Zikina!... Behi korotza zian, ala joko! Haren eperra. Bruuuh, zikina!... Pagatu beharko zaitak bere jukutria! Alimalea ez den ba hori!... *(Eskuak xukatzen ditu)* Xooo!... To, to, elkorra heldu duk bere makila tzarra eskuan. Ez dakit ohartuak zareten, ez da elkorra bezalako kuriosik. Hau bereziki ez ditake erran zoin kuriosa den. Eta izpiritutua! Hameka debruen izpirituak berekin ditu... Xo, xo! Behar dakot bonetaren jukutria egin... Hea! Ezar dezagun bone-



ta, oixtitan enetako zen bezala... Hurbiltzen ari da. Alegia lo, etzan behar dut bide hegian.

ELKORRA: (*Agertzen da, luzaz behatzen Ferrandori eta bonetari; bonetari eta Ferrandori; emeki altxatzen du makilarekin bonetaren begia; ohar-tzen zer den azpian, eta sudurra tapatzen*) Hirea dea bonet hau?

FERRANDO: Ba, enea da... Ez hunki!... Ez hunki!...

ELKORRA: Ez hunki, ez hunki!... Zertako?

FERRANDO: Ez hunki! Eper bat da horren azpian.

ELKORRA: Zer biper? Ah!... Biperrentzat bildua dukala?

FERRANDO: Debru elkor, pekada-mokoa!

ELKORRA: Zer erran duk?... Pekada?... Ni pekada?... Erakutsiko daiat elkorretaz trufatzen. To, pekadaz egin saltsa! To... to. (*Zan-gopean eta makilaz nabasten du boneta; makilarekin tiratzen Ferrandori, eta eskapatzen irriz*)

FERRANDO: Gizon zikina! Ene bonet hori utzazu bere gisa!... Zoazi hemendik!... Ale kuxe!... (*Jendeari*) Debru elkorra! Eta beti hola da horiekin. Aditzen dituzte, ez aditzeko erran guziak, bainan aditzea nahi zintuzkenak ez... Hau bonetaren plan-ta!... Phuuu zikina! Nardatua nuk oraikotik... Hanbat gaix-to! Ez diat gehiago pitsik eginen. Hala da-ta... Lanean ari naizelarik trufatzen nute, ari ez naizelarik ere ba. Berdin ikusia zira ari edo ez ari... Ba ote dut bederen tabako puxka bat? (*Sakelak miatzen ditu, zigarreta papera batxemaiten*) Pape-ra badiat bainan tabakorik ez! Hauxe duk komedia! (*Berriak sakelak miatzen*) Sosik ere ez diat ba!... Sos bat ere ez diat tabakoaren erosteko... Eta gainera egarri nuk... Gizon gaixo huntaz ez ote da norbait urrikalduko?... To, to... nor-bait heldu zaitak... Segur nausia, zer ari naizen ikusterat. Jo lanari, Ferrando! (*Hasten da gogotik lanean*)

MANDDO: (*Eiherazaina da, zaku bat irin bizkarrean... Deusik erran gabe, irriz dago, lehenik, Ferrandoren trenpeari, gibeletik*) Kasu Ferrando! Kasu! Hola ariz etendura bat bilduko duk...

FERRANDO: Ah! Hi hintzena?... Iduri duk kamelua, hire zaku tzarra biz-karrean.

MANDDO: Jes! Buruhastua lanean? Ezar-ak bonet hori buruan!

FERRANDO: Utzak bonet hori den lekuan! Ene burua aire beharretan baita!

MANDDO: Iduri dik bonet horrek, behi ongarrion ibilia.

FERRANDO: Ez zaika hiri behin ere, boneta ixtiletarat erortzea, gertatu?

MANDDO: Ez hiz hi ere goiti ari: lehengo miseriak ez askiz, orai burua holako pomadekin kontserbatzen baduk.

FERRANDO: Emak bakea!... Baduka surik? (*Jartzen da*)

MANDDO: (*Zakua pausatuz*) Ba, badiat.

FERRANDO: (*Sakelak miatzen ditu, zigarreta papera ateratzen*)... Ah! Bon... Nun ote dut?... Tabakoa etxean ahantzi diat. Baduka taba-korik?

MANDDO: Papera hartu, ta tabakoa ahantzi, behin ere ez zaitak holakorik gertatu. To tabakoa!

FERRANDO: Denak ahanztea baino hobe duk ba, bat ahanztea bakarrik.

MANDDO: Ez baituk halere papera ahantzi eta tabakoa ekarri! Ah! zin-tzurra ere agortzen hasia diat. Egiten baginu ostatuan sar-jali bat!...

FERRANDO: To berdin! Ni ere egarri nuk.

MANDDO: Nik pagatzen diat baso bat. Hik eginen duka bestea?

FERRANDO: Hein hori egin ahalko diat. (*Sakelak miatzen ditu*) Hago ixtant bat. Nun dut moltsa? Ah! Huna. Ez... ez... jes! Hauxe duk burua dutan! Moltsa ere etxean ahantzi diat.

MANDDO: To! Urrikari diat hire arrobatzerat heldu den ohoina.

FERRANDO: Zer nahi-uk etxean behar den dirua etxean uzten diat nik.

MANDDO: To! Ikasi huen mintzatzen. Haugi hunat, haugi hunat! Badiat bien doia eta gehiago ere. Pesta egitekoa ere badiat. Kondu batzuen xuxentzea bainuen egun. Har-ak bonet hori. Lagunt nezak zaku hunen bizkarrerat altxatzen. Are, goa-zen.

BIGARREN GERTALDIA

FERRANDO: (*Ohearen gainean jarririk, jendeari murtzo*) Ba, ni niz ba, ni ohean. Eginen dautzuet ene kofesioa! Barda gaitzeko pesta egina dugu. Eiherazaina sosean baitzen, bazter guziak xahutu dazkogu. Han ginen denak. Zer irriak! (*Bera irriz*)... Goiz-alderat sartua niz etxerat. Gure emaztearen kexua! Ez ninduela bere alderat nahi. Joaiteko bakarrik, ganbera itsurat. Bihar goizean konduak eginen ditugula. Eta orai ene bitxo xarmentaren beha nago. Ikusiko duzue zer emaz-te xarmenta eta molde goxokoa dutan. Eta hemen ziretzen



gizon guziek ikasiko duzue, eni esker, nola bentzutzen diren emazte kexuak.

Gehiago dena, pestalier guziekin parioa egin dut ez dela egun nehor jeikitzen zortziak baino lehen. Baietz atxikia daute parioa. Jeikirik, ene ikusterat jiten direla denak, zortziak baino lehen. Sekula jiten badira, saltsa onik behar dugu ikusi barne huntan. Hau egarría dutan! Pesta biharamuna alabainan. Xo, xo! Horra ene urtxoa heldu! (*Sartzen da estalgien barnera*)

MARTZALIN: (*Emazte izigarri bat oibuka*) Zer? Oraino lo? Ez duka oraino aski erakitarazi hire arnoa, estalgi horien barnean? Jaiki hadi hortik! (*Inarrosten du*) Ah, zer duk, fantasia sartua? Pazaraziko dauzkiat ba fantasía. (*Lepotik inarrosten du eta bi zafalako emaiten*) To! Hor tuk emanak, oñoña beharretan bahiz. Zer uste duk pestan eta ohean biziz haziko dukala familia?

FERRANDO: (*Nekez barrotzen da; hatsa nekez hartzen; ez tul eta dolamenka ari*) Ah Martzalin! Otoi, otoi!... Otoi konpreni nezazu. Eri niz, eri handi. Ez uste izan pestondo nizala... Eri niz...

MARTZALIN: (*Berdin bortitzu*) Eri, eri, hori nahi duk naski sakatu. Hire arno usaina hor duk-eta hirekin. Jaiki hadi!

FERRANDO: (*Gero ta trixteago; iduri hiltzen ari...*)

MARTZALIN: (*Durduzatzzen hasia*) Bainan! Bainan! Ez hiza espres ari?

FERRANDO: Ez, ez! Fini niz, fini! Ekatzu potta!...

MARTZALIN: (*Nigarrez hasten*) Bainan Ferrando, ene senar maitea! Hortan hiza orai.

FERRANDO: Mirikua! Otoi! Hatsa! Hatsa!

MARTZALIN: (*Beti nigarrez*) Ai, ai! Zer gertatzen zaue orai berriz? Zer egin behar diat nik manera hortan joaiterat heldu bahiz? Ai, ai, ai! (*Hipaka nigarrez, bazterrak xuxenduz ganberan*)

FERRANDO: Hatsa... hatsa!...

MARTZALIN: Joan nuk... Joan nuk segidan miriku-keta. Eta denetako bakarrik! Uzten hut ixtant bat bakarrik. Joan nuk lasterka. (*Jalitzen da*)

FERRANDO: (*Jartzen da bere ohearen gainean, lorietan*) Enganatu dutala behingoan! Har modela gizonak! Horra nola behar den egin astelehen goizetan, bezperan gaizki gobernatu zireztelarik! Ene laguna enganatu dut. Orai mirikuarekin konduak. Miriku txar bat badugu herrian, xaharra lausoa, deus

ez konprenitzen, eta gainera kaskoia. Ez daki hitz bat euskaraz. Nik ez dakit hori nola mirakulu izendatu zuten miriku. Beharrik funtsean! (*Irriz*) Bestenaz ene eritasun egiazkoa hatxeman lezake. Beharrik hori mirikuntzan eta ni aireplan gidatzen berdintsu. Xo! Norbait atean! Sar gaiten estalgi azpian eta egin dezagun lo edo eriarrena... (*Jotzen dute*)

MANDDO: (*Sartuz*) Zer debru! Ez duka sartzeko ere erraiten? (*Inarrosten du Ferrando*) Errak to! Iratzartuko hiza? Hemen nuk, gero, zortziak baino lehen. (*Ferrando ez da bigitzen; Manddok ixkilima bat jalitzen du paltoaren azpilduratik... Jendeari*) Ikusiko dugu haatik ixkilima hunekin ez den iratzartuko. (*Ipurdian xixtatzen du*)

FERRANDO: (*Punpatuz*) Ai! Errak to! Debruen basa! Zer uste duk hire mandoetarik naizela ni?

MANDDO: To! Banekian iratzartuko hintzela. Zer haiz urriketua parioa eginik? Hemen izanen dituk gero denak, zortziak gabe. Eta pinta pagatu beharko duk.

FERRANDO: Ba, badiat beste pintarik izpirituan. Eri nuk. Emaztea joana diat mirikuketa.

MANDDO: (*Irriz*) Zer duk hik, atzo mahainean erran bezala egin, emaztea mokokatzerat jin-eta, eri haizela sinetsarazi?

FERRANDO: Ba, hala duk. Hala egin zakoat. Eta orai mirikuketa joana duk.

MANDDO: To, to, azen ontzeko, ez ginian beste beharragorik. Bainan sumatzen diat ate gibel hortan Gattilu, hirrimisku-harramaska heldu. Hori ez duk egun zerbitzuko on izanen. Ez duk gau hurtan etxean sartu ere. (*Borta idekitzen dio*) Sar zaite sar aintzina!

GATTILU: (*Arraila sartzen da, botoila erdikala eskuan, pokerka*) To... hemen nuk gero erran bezala... (*Ferrandori eskainiz*) To edazak!

FERRANDO: Ba, gogotik! (*Edaten du...*) Hau egarría dutana! Hau duk hau gauza! Ez duk holako erremediorik ene eritasunarendako.

GATTILU: Egia! Edan, edan! (*Obe hegian jartzen da, burua ezin jasan...*)

MANDDO: Ta... laster jinen dea miriku txar hura.

FERRANDO: Ba, engoitik ez duk urrun.

MANDDO: Zer behar ziaokogu erran. Zertako ekarrarazten dugula?

FERRANDO: (*Jendeak ikusteko gisan, bainan ez Gattiluk, hau erakutsiz*) Aski dik hau miatzea.



MANDDO: (*Irriz eta akort*) Hori duk to ederki pentsatua!
TTIRO: Zer duzue planta hori ohe hortan?
MANDDO: Ikusiko duk. Mirikua hemen izanen duk ixtante. Biak eri ditiagu. Emaztea joana dik Ferrandok telefonatzera.
TTIRO: Zinez ari hiza?
MANDDO: Zin zinez.
ELKORRA: Eri, horiek biak?
MANDDO: Eri.
ELKORRA: Nik ere burxuro bat badiat. Halako burrunba bat ere, beharrietan. Xutik ez naukek.
MANDDO: Hori ere behar diagu jar-arazi. Hola izanen ditiagu hiru eri. (*Elkorrari kadira bat hurbilduz*) Jar zaitte!
ELKORRA: Ba gogotik!
MANDDO: (*Lorietan*) Oraikotik mirikuak ukanen dik lan, makurren xuxentzen. Baten orde hiru eri. Ez dik ganbera bat izanen, bainan ospitale bat... Ai, ai, ai! Hor diagu hor gure mirikua. Kasu mahainak eta baxerak. (*Atea jotzen dute*)
MANDDO: Aintzina, aintzina!...
MIRIKU: (*Moda xabarrean beziti*) Bonjour mes enfants, bonjour!
DENEK: Bonjour, bonjour! (*Salbu Gattilu zurrungan eta pokerka*)
MIRIKU: (*Lunetak pausabuz*) Alors, ça ne va pas?...
MANDDO: Non, non, ça ne va pas.
MIRIKU: C'est ce brave Ferrando qui n'arrive pas à respirer?...
FERRANDO: (*Fermuki*) Moi pas malade. Lui, lui malade. (*Gattilu erakutsiz*)
MIRIKU: (*Harritua*) Ah! Madame Ferrando m'a dit que c'était vous... Elle est même allée chercher le curé... Ah... j'ai dû mal comprendre...
FERRANDO: Hobe diat jeiki eta beztitu. (*Jeikitzen da, galtzak ezartzen galtzoinen gainetik*)
MIRIKU: (*Gattiluz mintzo*) Et qu'est-ce qu'il a celui-là?
MANDDO: Il est foutu!
MIRIKU: Foutu, foutu! Mais enfin, d'où souffre-t-il?
MANDDO: Errazue hou, zer eritasun behar zioat erran Gattilurentzat?
FERRANDO: Errakok beheitikoa duela.
MANDDO: Ba bainan nola erraiten da beheitikoa frantsesez?
FERRANDO: La kakeri!
MANDDO: Ah, hala duk ba naski! (*Mirikuari*) Hé! Il a la kakeri!
MIRIKU: Qu'est ce que c'est?
MANDDO: Il a des tonnerres dans les tripes.

MIRIKU: Ah! Je comprends... Vouons, enlevez-lui la veste. (*Hasten dira, bainan Gattilu iratzartzen da, aire bitsi batekin behatzen eta izjagarriko koleran sartzen*)
GATTILU: Zer ari zirezte? Burutik joaiten? (*Haserretzen da denak airefutura igorri z miriku ta beste eta furian eskapatzen erranez*) Debru fututuak! Zer zirezte nitaz trufatu nahiak? Ez nuk ez bestek biluzteko heinean oraino!
MIRIKU: Mais, qu'est ce qu'il a? Arrêtez-le. Mais qu'est ce qu'il a?
MANDDO: (*Mirikuari*) C'est rien. Vous comprenez! Il est pressé... Il est allé pour lacher.
MIRIKU: Ah! Je comprends. Ah! J'ai eu peur qu'une crise l'ait saisi...
ELKORRA: (*Mandori*) Errak! Esplikatu dautaka zer ari zareten?
MIRIKU: Qu'est ce qu'il a dit celui-là?
MANDDO: Il dit qu'il a mal à l'oreille. Ici... au trou... Et que ça lui fait comme un tambour.
MIRIKU: Ah! Voyons ça! (*Bere lunetekin hasten da, elkorraren beharri barnera behatzen*)
ELKORRA: (*Ez trankil*) Zer ari duk to, hola, miriku txar hau?
MANDDO: Zure elkorreria sendatu nahi du.
ELKORRA: Zer ditik xorokeria hoik? Zer uste du urteek emana, ixtant batez kenduko duela?
MIRIKU: (*Xilo barnean ikusi nabiz*) Ne bougez pas! (*Bainan kataskan ari dira bakotxa bere alde tiraka, mirikuak beharria atzikiz*)
ELKORRA: (*Furian mirikua lepotik hartzen du eta tinkaldi bat emaiten dio ohearen gainean ezarriko, bera oihu eta oihu*) Zer haiz, miriku kixkil txarra, nitaz trufatu nahia? Erakutsiko daiat xahar eta eriez irri egiten. To tinkaldi bat xirtxil txarra!
MANDDO: Zer egin duzu? Hatsa kendu zio! Xahu gituk. Oi, oi, oi!
FERRANDO: Ja, ja, ja! Ene emaztea heldu! Ene emaztea heldu! Goazen hemendik ihesi, goazen ihesi! (*Estaltzen dute tarrapatan mirikua estalgi batez, eta badoazi denak hura hor utzirik*)
MARTZELIN: (*Sartzen da, griñatsu, behatzen, gorputz hura hunkitzen, zainak eta nigarrak jauzten zaizkola*) Hila! Hila da ene senar gaixoa! Nehor ondoan gabe! Horra beraz nola behar zuen azkenean finitu! (*Estalgien azpian zerbait bigitzen da*) Harrigarria! He... He... He... Ez haiz hila!... Ah! Zeri esker!... (*Martzalinek kanpotik eta mirikuak estalgipetik bainuz estalgi bigitzen dute eta azkenean agertzen da mirikuaren burua... biak harrituak baitira*)



MIRIKU: Vous?

MARTZELIN: Vous?

MIRIKU: (*Zainak tiratzen ditu eta nigar-dolamenetan basten da*) Ah... Madame Ferrando... Ayez pitié de moi!... Soyez bonne pour moi... De grâce soignez-moi... Approchez-vous, touchez-moi. Montrez-moi que vous n'êtes pour rien dans cette affaire... que vous m'aimez...

MARTZALIN: (*Ausartzia hortaz afruntatua*) Zer kopeta! Ah! Ez nuen uste haatik hau holakoa zela!... Zer kopeta!... C'est vilain, monsieur ce que vous faites là... Vilain... Je dirai tout à mon mari... Allez dehors d'ici!...

MIRIKU: Oh, madame, soyez bonne pour moi... Comprenez-moi bien...

MARTZALIN: Dehors! Allez, oust!... Et un peu vite... Quel kopet!... (*Jats ukaldika igortzen du kanpora... gero bakarrik*) So egizue! Gizon kurkuil horri... Adin hurtan hola ibili behar duela! Ez nuen haatik uste hori holakoa zela!... Zer den mundu hau!... Ala zerentzat hartzen nau ni?... Pobrea ba, bainan holakoa ez! Ez naiz holakoa izan; ez izanen ere agian! (*Orduan sartzen dira bost adiskideak, mirikua gabe. Denek inguratzzen dute Martzalin, bi aldetakoek besotik hartzen dutela, gizonak aldiro espaldetarik elgar atxikitzen eta kantatzen, trangelatuz, «Aurten arnoa merke da»-ren airean*)

FERRANDO: Hauxe da filosofia

DENEK: Ontsa joaiteko bizia

FERRANDO: Delarik ontsa balia eta...

DENEK: (*Elgarri galdez*) Eta ez bada?

FERRANDO: Orduan jasan miseria.

DENEK: Eta ez deusetan kanbia.

FERRANDO: Kexaturik andria...

MARTZALIN: Debruen mozkor tzarrak zuek! Aise mintzo zirezte ba! Zoazte hemendik!... (*Jatsa harturik haizatzzen ditu. Bakarrik jendeari*) Zer nahi duzue? Denetarik bagira mundu huntan.

OIHALA

EIHERAZAINAREN ASTOA

(*Gertaldi bakarreko komedia*)

Jokalariak:

PELO: Eiherazaina, 50 urte, zuria, dena irina, edalea eta kalakaria.

ZORRONDO: Tratulanta, 50 urte, gorria, gizona eta alegera.

SANTSUN: Ostalera, 50 urte, ofiziokoaren airea.

ARNAUD: Laboraria, 40 urte, merkatutik etxera, alegera.

GUSTAVE: Botigari baxenabartarra, 70 urte, tipia, zaintsua, kokina.

HERRIKO MUTILA: Edozein.

Bertze zonbait lagun ixil, herriko mutilarekin edo Arnaud-rekin.

Joka-lekua:

Ostatu barne edozein.

1. AGERRALDIA

(*Zorrondo edaten ari Santsunen ostatuan. Pelo heldu*)

ZORRONDO: (*Santsun-i*) To, Pelo heldu zaiku... Pelo eiherazaina, bere astoarekin.

SANTZUN: Bai usaia du. Hemen, zazpigarren estazionea du.

ZORRONDO: (*Irriz*) Eta zenbat estazionetako bidea du?

SANTZUN: Noiz nola! Maiz haatik elizako estazionen nonbrea pasatzen du.

ZORRONDO: Eta dudarik gabe, estazione bakoitzean debozione luzeak egiten!... A, berriz ere aberastuko direla ostalera!

PELO: (*Ate artekatik agertzen da, astoa estekatzen ari*) Ho, Bittor, ho! Ea, ba, Bittor, egon hor, prestu, prestua! Nausia zaldare hartzera zihoak, izanen duk hik ere sarri, hirea.

ZORRONDO: (*Pelo-ri*) To, to, Pelo: Ohoin bat gehiago etxe hontan!

PELO: Zerendako, ohoin bat gehiago?

ZORRONDO: Eiherazain guziak ohoinak direlaketz...

PELO: Bai bazukek, bainan ohointza hortan, hik makiñuna, emak hona esku eta gauden ixilik!



SANTZUN: (*Pelo zerbitzatu?*) Beraz bigarren ohoia zerbitzatu den diat.

PELO: Bai, eta zu, hirugarren bat, ederra. Ostalera baino ohoinagorik ba ote da? Orain ere nork daki zuzen zer den edateko hontan?

SANTZUN: Ai, ai, ai! Izanen diagu naski, hiruek ere, zeruan sartzen lan!

ZORRONDO: Errak, eta, asto txar hori saltzeko duka?

PELO: Ez, ez duk saltzeko... eta, hala balitz ere, hik ez duk aski sos, horren erosteko!

ZORRONDO: Zer petrenitzen duk bada, horrentzat?

PELO: Hik dukan baino... Ez baita zazpi probintzietan —aditzen duk gero, zazpi probintzietan— ene astoa bezain baliosik.

ZORRONDO: Zer dik bada hire astoak, bertzek ez dutenik?

PELO: Kalitate frango, ene astoak, bertzek ez dutenik: Garruzeko garañotik duk gero, ene astoa. Ez duk hemen, nehon, inguru hautan, bertze bat Garruzeko garañotik.

ZORRONDO: Handik edo bertze non-nahitik, zer dik hire astoak, bertze batek baino gehiagorik?

PELO: Ene astoa, arrazakoa duk: Hori konpreni ezak, Arrazakoa. Eta hortakotz, ene astoa bertze edozeintarik seinale duk. To, so egizok ene astoari, orroaz ari delarik. Ene astoak, orroa, beti goratik eta luze finitzen dik; hola!... (*Asto orroaren eskarnioa egiten du*) Ez duk herrian bertze asto bat, holako orroa duenik.

ZORRONDO: Ta, zer abantail dik horrek?

PELO: Hago ixtant bat! Ene astoak, orroa egitean, buztana goiti xut atxikitzen dik (*besoa altxatzen du*) hola, nik besoa bezala, eta beharriak, goiti eta beheiti erabiltzen ditik, xoriek hegalak bezala (*keinu egiten du eskuekin bere buruaren bi aldetariki*). Konprenitzen duk orain? Holako astorik ez duk gero hatzemaenen nonnahi!

ZORRONDO: Ba, bainan, berriz ere, zer abantail duk hortarik?

PELO: Zer abantail! Zer abantail!... Arrazako astoek egiten die bakarrik hola. Eta hola egiten duelakotz, ene astoak, bertze asto guziek baino izpiritu xorrotxagoa dik. Ene astoak baditik bi gauza: izpiritu gaitza eta usma. Izpiritu gaitza, bai, nik aski zioiat, non-nahitik orro bat egitea, segur nuk ene orroa eza gutuko duela eta berehala izanen dudala errepusta. To, so egizak. (*Orro egiten du, eta astoak ibardesten dio gora ta luze. Pelok ondotik, eskarnioa egiten dio beretik*) To, ikusten duk, ene astoak nola bururatzen duen bere orroa: Hortarik ageri duk

arrazakoa dela. (*Sentimentalki*) Gaizo ene Bittor! Gaizoa!... (*Ostalerari*) Santsun, ekar-tzu hona bizpa-lau azukre kokkor! Eman horiek konduen gainera. (*Atera buruz doa, azukre kokkorrekin*) To, gaizo Bittor! To, hire parte! Hire nagusiak maite hau bai, gaizo hi! Emak potta, alo, emak potta!... Ontsa duk! (*Barnera itzultzen da*) Eta bertze gauza bat, ene astoak baduena, hura duk usma... Usma, badakika zer den usmatzea? (*Airea usnatzen du*) Hori duk sudur ona izaitea: Non zer gertatzen den sudurrekin sentitzea. Zakurrek hori badie, ihizientzat. Ene astoak usma badik. Ezin sine-tsia duk zenbat. Hala nola, senditzen dik non diren jende gaiztoak eta non jende onak.

ZORRONDO: Bai, zera!

PELO: Erraiten daia baietz... Utz-ak libro, eta bidean kausitzen badu bide makurreko norbait edo animale bat, ene astoa ikusiko duk, begia zorrotz, belarria xut, uztarra emaitako prest... Hala hala, jende prestuentzat egonen duk maltso maltsoa, kasurik ere egin gabe.

ZORRONDO: Eta hihaur tzarrean haizelarik edo edana, maltsoan duka astoa, ala zorrotz.

PELO: Hiretako bai, begi gaiztoa dik, ez bai hiz bide zuzeneko jendea. Enetako, ez dik sekulan, ene astoak, jestu gaiztorik. Guk bazekiagu elgarren berri. Nik aski diat egitea: «Hi, hi, hi!» (*astoaren eskarnioa eginez*) eta segur nuk astoak konprenituko nauela. (*Astoak erantzuten dio... eta Pelok bozkarioz dio*) To, entzun duk? Ea ez duenetz konprenitzen? Entzun-ezak azken kantu luze hori!... Gaizo Bittor!

ZORRONDO: Ez zekiat, ez zekiat horiek hola direnez. Nik aditu diat hire astoa arrunt zozoa dela. Noiz nahi bidez nahasia dela; etxetik urrunduz geroz, ez dela sekulan, bere baitarik, etxera itzuliko.

PELO: Hori gezurra duk, gezurra!

ZORRONDO: To, nik hola entzuna diat.

PELO: Ene astoa, izanik ere gauik ilunena, izanik ere ni arrunt nahasia, ene astoa bera sartuko duk beti, zuzen, etxerat. Bai, bere baitarik, ez baitu, ene astoak begi beharrik; bere usma aski baitu, gidatzeko; bere usmatik gidatzen baitaki ene astoak. To, nor-nahiri joka niezokek, orain berean, bost kilometra



baitira hemendik eiheralat, Bittor ene astoa, begiak tapatu-ta, zuzen zuzena sartzen dela etxerat.

ZORRONDO: Hori, handiskoa jalgitzen duk, haatik, Pelo!

PELO: Zer handiskoa? Orai berean egiten diat parioa, nahi duenari.

ZORRONDO: Ez zekiat, ez zekiat, ez ote haizen soberaxko fidatzen hire astoari.

PELO: Ez nuk ez airera mintzo: Nahi dituzuen guziak jokatzen daukizuet, ene astoari begiak kuku, hemen libra eta etxera sartzen dela, ber-bera, zuzen zuzena.

ZORRONDO: Ez zekiat bada: Lehen ere ikusi diat izpiritu handiko animale frango... Hoinbertzetarainokorik, ez diat sinesten.

PELO: Zer nahi duzue pariatu? Ea, paria hor! Nahi dituzue arraltsaldeko ostatuko xahupide guziak jokatu?

SANTZUN: Bai pario hori egiten diat... Ale, Zorrondo egin dezagun erdizka...

ZORRONDO: Berdin, egiten diat.

PELO: Ontsa!... Ekar hona oihal beltz bat. Begiak horrekin kukutuko diozkagu astoari eta libratzen dugu. Sarri joanen gira gure etxera, ikustera. Astoa sartua balin bada bere baitarik, zuek arraltsaldeko xahupide guziak paga hemen. Astoa ez balin bada sartua, gastu guziak ene gain.

ZORRONDO: Ontsa duk!

SANTZUN: Nik konduak atxikitzen ditiat, izkirioz.

PELO: Bon, ekar-azu trapu beltz hori: Tapatuko diozkat begiak astoari.

ZORRONDO: Ez, ez, hik: hik argi zirritu bat utziko diok berdin bazterretik. Nik ezarriko zioiat oihala. (*Atera doa*) To, so!... Alo, alo, xo gaixo astoa! Bon, horra egina; begiak tapatuak ditu; ez du fitsik ikusten, gaixo astoa!

PELO: Ken orai soka!... Bego, utz libro.

ZORRONDO: (*Astoari*) Ale, hi, babil hortik!...

PELO: (*Lerbotik*) Hi, gaizo Bittor, habil etxerat, xuxen xuxena gerol!... Beha, beha! Nola usmatzen duen! Airearen aldea hartzen ari duk!... To, hartu dik! Orai salbu duk! (*Alegera*) Ikus, ikus, nola etxeko bidea hartzen duen! (*Esku zartaka*) Hola, hola, gaizo Bittor! (*Irriz*) A, a, a, joanen duk xuxen! Ale, goazen edatera, ausarki eta finenetik!

SANTZUN: Zertarik emaiten dut bada?

PELO: Hoberenetik!... Eta marka hor kondua, izkirioz! (*Edaten du*) A, gaizo Bittor! Nik orai, hik ere izanen duk sarri zaldarea!...

II. AGERRALDIA

ZORRONDO: Ez dik gero balio goizegi aments egitea, parioa irabazi dukala. Izanen duk bai astia gero ere.

PELO: Zer haiz, naski, parioa eginik urrikitia? Peka, peka hor, eta paga!... Bota hona edatera, Santsun!... Eta karioenetik. Ez eni saka edateko txar horietarik!

ZORRONDO: Segur hiza, irabazteaz, to?

PELO: Segur, ez... segur baino segurago: Asto horrekin egin pario guziak, egundainotik irabazi ditiat. To, badakika azkena norekin? Buxtingorriekin. Buxtingorri lasterkaria duk, nahi bezainbat, bainan ni Buxtingorri nausitu.

ZORRONDO: Nola hori?

PELO: Zein lehen egin zioiat, pilota plazatik Eliza bururat, ni astoaren gibeletik eta hura oinez.

ZORRONDO: Eta hi nausitu?

PELO: Bai, ni nausitu, ni Pelo, ene astoarekin.

ZORRONDO: To, nahiko nian ikusi.

PELO: Ez zuian gaitz: Ikus-ak makila hori (*makila bat hartzen dio*). Hola hartu diat esku batez astoaren buztana, eta bertze eskuarekin, jo astoa!... Jo beti!... Jo beti!... (*Laster egiten du, eskarnio-ka*) Eta ni Elizanburura lehen heldu. Buxtingorri ene ondolik, hi, hi, hi! Ekar-azu edatera, Santsun, eta marka, marka kondua! (*Irriz irriz leber egina*)

ZORRONDO: Zer duk hola irriz. Ala zoratu haiz?

PELO: Ez duk ez Pelo hola zoratzen. (*Bizkarretik lotzen zaio tratulantari eta kobla bat kantatzen dio, «Tantum Ergo»-ren airean*) Zorrondo, adixkidea, bai egiten diat irri, Uste baituk nausitza, parioan, Pellori, Kontseilu on bat hemen, partida egilieri, Partida irabazteko... (*Ezin du burura*)

...Ez zekiat bada nola erran. Hau nian erran gogo: Partida irabazteko, behar dela buruz ereman partida; partida egitean dela irabazten; ez partida jokatzean.

ZORRONDO: Guk partida jokatu diagu. Orai egiten ari... ea nork irabaziko duen.



PELO: Baduka dudarik oraino? (*Berriz besoa bizkarrean emanaz Zorrondori, kantuz ari zaió*)
Bide luzearen buruan, hantxet han eihera,
Han ikusten dudana nik, horra hauxe da:
Asto beltz bat han sartzen ari dela,
Eta nik parioa irabaziko...

III. AGERRALDIA

ARNAUD: (*Pelo kantuz ari delarik, Arnaud-k moztan du, irriz leber egina heldu baita*) Egundaino! Ez egundaino ez dudala holako komediarik ikusi!

PELO: Zer du honek berriz?

ARNAUD: Zoazte ikustera! Zoazte! Ehun metrotan duk!

PELO: Errak, bada, zer mirakuilu da?

ARNAUD: Zirkan ere ez duk holakorik gertatzen: Asto batekin duk komedia!

PELO: Asto beltz batekin, aments?

ARNAUD: Bai preseski!

PELO: Begiak tapaturik?

ARNAUD: Bai preseski!

PELO: Zer gertatu da gero?

ARNAUD: Habil ikustera, ez duk urrun.

ZORRONDO: (*Pelori buruz, han kanpora abiatzean*) Errak, oroit hadi, hemen dik goizegi ateratzen bahaiz, parioa gal dukela!

PELO: (*Buruari lotuz*) Hala duk haatik!... Bainan errak, hik, zer gertatu da bada?

ARNAUD: Asto beltz bat duk sartu, begiak kukutuak, Gustave-n botigan.

PELO: Bai usma: Oñoñak zitian sendi... Badik usaia, lehen ere...

ARNAUD: Gustave hasi zaiok, jats ukaldika, kanpora igorri beharrez.

PELO: Debru zirtzila! Badik usaia lehen ere: Ene astoa ezin baitu ikusi. Ez ahal dik bederen kolpatu!

ARNAUD: Kolpatu? Hortarik ziagok, to, hire astoa! Brau! Ausikian galtzi-purtik hartu dik astoak Gustave txar hura.

PELO: (*Esku zartaka*) Merezi! Merezi! Hola Bittor, hola! Eta gero?

ARNAUD: Gero zakurrak ihizia bezala erabili dik, burua dardaratu, eskuin eta ezker.

PELO: Hola, hola, Bittor! Merezi, merezi!

ARNAUD: Han zirela gero zintzimariak: Gustave, oihuka ta orroaz, bere Baxenabartar doinuan, ai, ei, ai, ei!... Bizpahiru zakur bildu dituk marrumaka; emazte zenbait, biloak harro, astoari joka; gizon bat Gustave-ri tiraka; hau desohagarria!... Galtzak abantxu eroriak... Astoa beti jauzi putingoka... Botiga guzia azpikoz gora iraulia: Hemen, ontzi batetarik, «tzur, tzur, tzurl», zerbait ixurtzen ari. Hor, gatz eta olio saltsa. Han, gain behera, baxera ta berineria guzia punpaka beheiti heldu. Eta denen erdian astoa beti orroaz eta zinka. A, mutikoa, ez diat egundaino holakorik ikusi!

PELO: Hola duk ene Bittor! Onez onean prestua, bainan ez hura samur eraz! Merezi, merezi! Nahiko nian Gustave ikusi! Apo zirtzil Garaztarra! Beharko dik haatik pagatu, on bazaio eta ez bazaio... Hea, Santsun! Bota hona edatera eta marka!

IV. AGERRALDIA

(*Bizpalaun lagunekin agertzen da Gustave, hasarre gorrian, jantziak piltzar-tuak*)

GUSTAVE: (*Pelori*) Hor hiza? Hor hiza? (*Zainek harturik bezala, nigarrez ta oihuka*) Gizon honek hil behar dizi! Hil behar dizi! Hil zazie! Hil!

PELO: Zer duk, zer duk, gizon kalaxka?

GUSTAVE: Hire astoak ene bitrina porroskatu... (*Gibel alde erakutsiz*) Hau desohorea! (*Orroaz*) Hil behar dizie astoak eta jabeak.

PELO: Errak, errak! Ez dik balio niri jazartzea: Hire faltak dituk oro; ene astoa bere bidean zioaian; zerendako sar-erazi duk hire botigan?

GUSTAVE: Nik sar-erazi? Nik sar-erazi? Nahi duk muturreko bat? (*Jazartzen zaió*)

PELO: Zer darasa gizon txar horrek? Papotik hartu eta kanpora botatzen diat. (*Han ere atxiki behar dute*)

GUSTAVE: (*Zalapartaka*) Utz nezazie! Hil behar dizit! (*Erortzen da, hasarreak itorik eta alki bat eskaintzen diote, bera hatsa ezin hartuz ari dela*) Phu! Phu...



PELO: Haugi hona, on bahaiz, hi, kukuso kumea! Ene astoa gaizki erabili, ta gero ene gain ezarri nahi haren makurrak!

SANTZUN: Ezti hadi, mutikoa, ez diagu eskandalarik behar! Haugi, edanzak xorta hat!

PELO: Nahi nitek bai eni lotzen ikusi, debru kokkorra! (*Hari buruz keinu*)

SANTZUN: (*Gibelatzen du Pelo*) Utz-ak, Pelo! Utz-ak bere gisa! Badik bere kondua!

PELO: Eta ene astoa? Ene astoaz trufatu duk giza txar hori. Ene astoak bere ohorea zaindu dik. Ez dik hortan horrek fitsik erraitekorik.

SANTZUN: (*Pelo-ri*) Bai, bai, arrazoina duk... (*Aldi txartua den Gustave-ri buruz*) Emozue kopa ttipi bat edatera!

PELO: (*Gustave iratzartzearekin*) Ez zaitak laket flakaturia den gizonaren kontra indarraren erabiltzea, bainan onduko delarik, panpako bat ederra hartu beharko dik. (*Gustave-ri*) Phu! Phu! Phu! Egin-zak orai, sarri eginen duk, Mu! Mu! Mu!

SANTZUN: To, herriko mutila!

PELO: Zer du horrek berriz?

SANTZUN: Ez zekiat! Kopeta tzarrear duk!

HERRIKO MUTILA: (*Atalatzean gelditzen da eta, kexu kexua, Pelo-ri buruz*) Hor hiza?

PELO: Ba Jauna, hemen!

HERRIKO MUTILA: Badakika non den hire astoa?

GUSTAVE: (*Kexu*) Bai, hil behar dizi!...

PELO: Ene astoak ez du hobenik: Ene astoa bere bidean zen.

HERRIKO MUTILA: (*Gogorki*) Ez, hire astoak ez dik hobenik, bainan hik bai: Jaberik gabe dabilan astoa, bakarrik izanik ere, jabearen kondu duk!...

PELO: Ene astoak ez du nehoi gaizkirik egiten, bertzek ez badute atakazten.

HERRIKO MUTILA: Habil, hire astoa non den ikustera: Han ziagok, beso bat hautsia eta bera odoletan, Gustave-n bitrinan, ez kanpo ez barne, ixtaklok emana.

PELO: (*Barna hunkia*) Zer, nere astoak besoa hautsia? (*Nigarrez orroaz*)

HERRIKO MUTILA: Bai, askiko duk hola hola mozkorkerian ibiltzea, ondorioak izanen dituk.

PELO: (*Nigarrez*) Zer egin behar dut nik orai? Gaizo astoa! Besoa hautsia!

ZORRONGO: Errak, eta ez ahantz gero gure parioa... Hor dik Santsunek kondua.

PELO: (*Beti nigarrez*) Gaizo astoa!

HERRIKO MUTILA: Ondoko egunetan izanen duk Pelo, hire astoak botigan hautsi dituenen kondua.

PELO: (*Nigarrez*) Zer egin behar dut bada? Gaizo ni!

HERRIKO MUTILA: Eta asto hura handik kentzeko alderdiak laster hartuko dituk. Bertzenaz nik eginaraziko diat... hire kondua.

PELO: (*Orroaz*) Hau astokeria! Hau astokeria!

OIHALA



SEHI BERRIA

(*Gertaldi bakarreko antzerki jostakina*)

Jokalariak:

ETXEKO-ANDEREA: Atso xahar mokofina.

MAYI: Sehi gaztea, laketu ez dena.

KATTALIN: Sehi berria.

Joka-lekua:

Edozein barne.

I. AGERRALDIA

MAYI: (*Errauts kentzen ari... Atean jotzen dute... Badoa ikustera*) Jesus! Hi hemen, Kattalin? Zertara jina hiz?

KATTALIN: Hi baihintzen plaza honetan! Ez niakinan no, horrelakorik... Beraz, hire ordain heldu nun.

MAYI: Zer! Sehi heldu bai hiz hona?

KATTALIN: Bai, hala heldu nun... Zer dun holako begia?

MAYI: No, gaixoa, urrikari haut: Nik hamabost egun eman ditinat, bainan badinat aski.

KATTALIN: Jes, zer dun hada?

MAYI: Etxeko andere bat, neskatoa, etxeko andere bat... Ikusiko dun zer panpina den.

KATTALIN: Zer du bada etxeko andereak?... Erran, lehenik, hemen dea?

MAYI: Ez, ez dun etxen: Hirira joana dun. Bainan, nik uste, laster jinen dun.

KATTALIN: (*Jartzen da*) Bainan nolakoa da beraz gure Etxeko-anderea?

MAYI: Halako atso meleka, bitzi, mintu, zikoitz bat; oro baditin; onak salbu.

KATTALIN: Ontsa gaitun beraz!...

MAYI: Ikusiko dun: Lehen egunetik ukanen dun katixima: «Jakín ezazu, etxe honetan, zango puntetan behar dela kurritu. Ikusten duzu: hola...». (*Zango puntetan kurritzen da bera*)

KATTALIN: Jes, hauxe dun xoxokeria! Zerendako hori?

MAYI: Arrabotsik ez egiteko. Bainan, hago, ez dun hori fitsik... Ez dun sekulan mokanesarekin mukirik kendu beharko, etxeko anderearen aintzinean, ezin jasan duelakotz.

KATTALIN: Ha, ha, ha! (*Irriz ari da*) Zer da bada, etxeko andere hori?

MAYI: Hago, hago neskatoa! Ez dun horretan fini: Badin gatu beltz bat; hura beharko dun beti zaindu eta kanpora ez utzi, marran-tatzen ahal baita.

KATTALIN: Ama maitea!

MAYI: Eta barre betedura zerbait izanen baitu artetan, so egin ezan: errauts honetarik emanen dion. (*Ontzi tipi bat erakusten dio*)

KATTALIN: (*Ontziaren izena irakurtzen du*) «Purge chats»... Egundaino! Eta beheitikoa balin badu?

MAYI: Beheitikoa balin badu, beste errauts honetarik: «Pilules antidy-sentériques» (*Irakurri du beste ontzi:ka baten gainean*)

KATTALIN: No, ontsa gaitun! Ez nun, ez nun ni hemengo on...

MAYI: Eta badun oraino besterik: Kantatzea ez dun haizu; ahapetik behar dun beti mintzatu; kafean berak emaiten daun azukrea... eta mokor bakar bat; frangotan igortzen hau bi sosen gatzaren erostera...

KATTALIN: Ta, ta, ta, ez nun ni hemen egon gogo. Orain berean emanen zionat despeida.

MAYI: Ez, hobe dun ixtaño bat egoitea, eta gero, zortzi egunak emaita. Horrela ukanen dun kitorik, zortzi egunen irabazia.

KATTALIN: Ez, ez nun segur gau bat ere etxe honetan egonen: Egundaino berean nitaz aseko dun Etxeko-anderea eta ikusiko dun ni hemendik aterako naizela, egundaino berean, zortzi egunetako saria eskuan.

MAYI: Bai ote? Ez ziakinat haatik!

KATTALIN: Ikusiko dun, ikusiko dun.

II. AGERRALDIA

MAYI: To, norbait heldu... Segur nun, gure atsoa dela... Hi hago hor. (*Kattalin jarrikik dago*)

ETXEKO-ANDEREA: (*Etxeko-anderea agertzen da xapel irringarri bat buruan, moda xaharreko onbrela eskuan, mintzoa labur eta idor, doinu gora*)



gora batekin) Hea, Maril... Paisola hau! (*Mayik aterkia hartzen dio*) Nor da andere hori? (*Galdatzen du etxekandereak, leber egiteko irriz ari den Kattalini buruz*)

MAYI: Hori sehi berria, Etxeko-anderea!

ETXEKO-ANDEREA: Ontsa da... Mayi, zu zoaz kanpora! (*Mari badoa, zango puntetan; Etxeko-anderea aldi, fotil batean jartzen da eta bere «Face à main» eskuan Kattalin-i galdatzen dio*) Nola duzu izena?

KATTALIN: Kattalin, Etxeko-anderea!

ETXEKO-ANDEREA: Izen hori ez zait pollita... Hemendik goiti, deituko zira Gaxuxa.

KATTALIN: Baina, Etxeko-anderea, Kattalin dudala izena eta ez Gaxuxa.

ETXEKO-ANDEREA: Ha, Kattalin... Gaxuxa, zer dakizu egiten?

KATTALIN: Orotarik, Etxeko-anderea, badut segur laneko usaia: Hiru urte iragan ditut leku batean, nehor, orain arte, ez baitzen zortzi egun egoiten ahal.

ETXEKO-ANDEREA: Eta zer zen leku hori?

KATTALIN: Atso mutzurdin bat zen, zahartua, mutzitua, bitzitua; bazuen segur ni bezalako baten beharra, poxi bat zentzatzeko; atso tzarra! (*Irriz leber egina*) Oraino oroitzen naiz, zer eskandala egin zaitan, erran niolarik nahi nituela gauak libro, larunbat eta igande arratsaldeak libro. Ez zaitan erdietan jatera emaiten, bainan nik ebasten bainizkion jatekoak armariotik. (*Beti irriz*) Gatuz zahar bat bazuen, bera bezain itsusia. Pozoinatu nion egun batez; zer eskandala ez zuen egin! Azkenean hezia nuen, hezia. (*Irriz*) Jats kiderrarekin kuskako batzu emaiten nizkion, kexarazten ninduelarik soberaxko.

ETXEKO-ANDEREA: O, O, O! A, A, A!...

KATTALIN: O, o, o eta a, a, a! Etxeko-anderea, gazte naiz eta nahi dut ene gaztetasunaz baliatu... Dena den, ene gaizo atsoari etxea erre diot azkenean. O, ez nahitara, bainan su handiegia eginik eta ziminciari su loturik...

ETXEKO-ANDEREA: Ho, ho, horrelakoa balin bazira ez zira on ene zer-bitzuko. Ez dut zutaz deus besterik jakin nahi.

KATTALIN: Zer, jada despeida emaiten dautazu?

ETXEKO-ANDEREA: Bai, bai... ez dut fitsik nahi zutarik.

KATTALIN: (*Haren aintzinean zutituz eta botza altxatuz*) Errazu, bainan ahantzia duzu zure sinadura hemen dudala: egunetik haste zure zerbitzuko naizela. Bai joanen naiz, bainan ekar-tzu zortzi egunak.

ETXEKO-ANDEREA: Zortzi egunak!

KATTALIN: Bai zortzi egunak: Legea da; ez nauzu kanpora emaiten ahal, zortzi egunen aintzina eman gabe. Ekar eni zortzi egunak!

ETXEKO-ANDEREA: Zer... paga pretenitzen duzu, lanik fitsik egin gabe?

KATTALIN: Legea hola da. Paga nezazu edo joanen naiz jandarmetara.

ETXEKO-ANDEREA: Ontsa da... Banoa bila... Zer presuna! (*Badoa diru bila*)

III. AGERRALDIA

MAYI: (*Bere xokotik deika*) Psit, psit! Bildu duna?

KATTALIN: Bai, neska! Baditinat oro. Joana dun sos-keta.

MAYI: No, xantza dun!

KATTALIN: Eta ez din fini: Beharko din konduaren gaineratikoa ere eman.

MAYI: Zer ote?

KATTALIN: Ixo! Gorde hadi! Heldu dun.

IV. AGERRALDIA

ETXEKO-ANDEREA: Zenbat behar duzu?

KATTALIN: Hiru ehun libera gutienik... Gehiago emaiten baduzu, hobe.

ETXEKO-ANDEREA: Hiru ehun libera! Baduzu kopeta!

KATTALIN: Hilabete laurdena da astea: Xuxen gira konduetan.

ETXEKO-ANDEREA: Hiru ehun libera. (*Doluturik bezala*) Ori, har-aitzu! Hiru ehun libera, ho!... (*Trenpu-txartzen da bere fotilaren besoe-tan*)

KATTALIN: (*Mayi-ri deika*) Mayi, haugi, haugi! Atsoa flakatu zaikun... Ekar-ezan zerbait.

MAYI: (*Armarioan zerbait hartzen du eta eskaintzen Kattalin-i*) Ez ziakinat zer den bainan emon hortarik.

KATTALIN: (*Irakurtzen du*) «Purge-chats». Bainan hau gatuz purga dun! (*Biak irriz*) Ekar ezan beste zerbait, minagre edo...

MAYI: Minagrea, bai! Aise erraiten dun hik: Gatuz purgaz beste guziak gakoaz ditun.



KATTALIN: Zer egin behar dinau bada? Hago, ikus ea bihotza ari zaion
(*Atsoaren bihotz gainean jarri z belarria*) Bai, ari zaion, ari zaion.

MAYI: A! Hago, badinat zerbait horren iratzartzeko. (*Beste ontzixka bat eka-
rri du*) No, emon sudurretik errauts hontarik.

KATTALIN: Zer da hori?

MAYI: Hori ere gatu erremedioa: Gatua marranta delarik, sudurretik eman
hortarik eta urtzintzaka hasten dun, hustu artino.

KATTALIN: (*Ontzia idekitzen du, usaintzen eta urtzintzaka hasten da*) Bai ona
dun, hauta.

ETXEKO-ANDEREA: (*Iratzartzen da eta urtzintzaka hasten*)

KATTALIN: (*Errantsa eman ez Mayi-ri berari*) No, hik ere hire partea, bestek
bezala egiteko. (*Hiruak urtzintzaka ari direla*) Goazen, goa-
zen, etxe madarikatu hontarik... Adio Atsoa!

OIHALA

LAU DONADOAK

(*Bi gertalditako ikusgarria*)

Jokalariak:

BENAT: 55 urte, mehe, idor.

ZALBAT: 53 urte, zaintsu.

GANIX: 51 urte, edozein.

ANTON: 50 urte, pisu.

FATURRA: 40 urte, atsegin.

ANDEREA: 26 urte, bipil.

Joka-lekua:

Etxeko sukaldea.

1. GERTALDIA

1. Agerraldia

Zalbat kozinan ari, Anton supazterrean jarria, Benat kanpotik heldu.

BENAT: Moldatua duka kozina?

ZALBAT: Ba, to, ez zakiat batere... ari nuk beti zerbait!

BENAT: Ez duk oraino jina Ganix?

ZALBAT: Ez, hura ere ez zakiat non dagon egun...

BENAT: Bon, bon, egungo janaria ere, ahal dena diagu...

ZALBAT: Beha-zak, errara diat jada, aski badutala ofizio hontarik! Emaz-
te lanetan artzea baino, zernahi nahiago diat... Hihauerek
badakik hori: Ahalgegarri duk; bagaituk hemen lau anaia
handi, lauak ezkongaiak eta, lauen artean, ez gaituk on
emazte baten etxera biltzeko!

BENAT: Ez zakiat bada! Hihauerek eginak dituk kondizione partear: Hire-
tako kozina eta barneko garbitasuna; enetzat kanpoko
lanak; Ganixek aldiz komisioneak eta bokata xuritzeak.



Badakik hori arras ongi: Ez diagu guk hautatu gure ofizioa; hihaurek manatu bezala dituk...

ZALBAT: Ez diat hori erraiten, bainan emazte bat baitezpada behar genikek: Behazak, Anton ere, lau urte hontan hor zia gok zoko hortan, eri... Ez duka uste balukeela horrek ere emazte baten beharra?

ANTON: (*Intzirika*) O! Bai, bai! Ontsaxko beharra! Gaixo ni! Ai, ei, ai!

ZALBAT: Ez, ez gaituk hola egon behar: Zin egiten diat, bi hilabete gabe emazte bat sartuko dutala etxe hontan.

BENAT: Zer eginen duk bada orai? Ezkondu?

ZALBAT: Bai preseski!

BENAT: Ontsa duk... Eta Ganix non ote dabila?

ZALBAT: Non dabilan, ez zakiat. Hemen behar likek, engoitik. Norapait joan-eta, ez dik etxera itzultzerik. Nik ez zakiat zer ari den komisioneketa joan-eta...

2. Agerraldia

Aintzineko berak eta Ganix

GANIX: Egun on! Ari zireztea?

ZALBAT: Ba, ari gaituk beti zerbait: Lanean ez bada, erasian bederen...

GANIX: Zer duzue oraino arregura?

ZALBAT: Nik nioian Beñati, beharko ditugula gure alderdiak hartu. Ez diagu hola segitzen ahal: Lau anaia handi... lauak donado... emazte bat etxean gabe.

GANIX: To, ez zakiat bada nik. Zer egin gogo duk? Emazte bat hartu?

ZALBAT: Zertako ez? Holako bat gertatzen duk...

BENAT: Ez zakiat haatik: Gero polliki izanen gaituk!... Emazte bat hona ekartzen baduk, erretxena egin izanen duk: Nor da gero hartaz okupatuko? Ez duk ikusten emazte batek guk ez bezalako mainak behar dituela?

ZALBAT: Zer maina?

BENAT: Gu gure artean nolazpait akomeatzen gaituk, jesturik gabe, gure galtza petaxatuekin, oi hu bat goiti beheiti. Harekin aldiz, dena «Xu», dena konplimentu, beharko diagu izan.

ZALBAT: Ez diat ez, Jauregiko kontesa honat ekarriko.

BENAT: Ez, nahi dukan bezainbat... bainan berdin dik... nik ezagutzen ditiat emaztekiak: Den gutieneko kontra egin-ezotek eta... egonen zaizkik mutur, holako ezpain mehe batzuekin... edo joanen dituk ganbera zokorat, nigarrez artzera... edo jarriko dituk zainetan, baxera guziak inarosten dituztela... edo galdatzen badiotek zer duten arregura, ihardetsiko daiete halako moko luxe batekin: «Fitsik, fitsik!...» Batzuetan berriz, denak buruko minaren gain emanen ditiztek.

ANTON: (*Intzirika*) Ba, ba!... Gaixoak!... Ba, nik ere buruan min diat ba usu...

BENAT: (*Antoni kasurik egin gabe, Zalbat buruz*) Bainan hi ezkontzen bahiz, hi haren zerbitzuko... eta gu?... Konpreni-zak!... Gu, bai gu?

ZALBAT: Gu, gu!

BENAT: Gu, zuen mutil, to!...

ZALBAT: Hori balin baduk hire gibleko mina, lehenago aipatzen ahal huen... (*Isilik*) Errak... eta... aski diagu orduan ez ezkontzea, bainan neskato adineko bat gure zerbitzuko hartzea.

BENAT: Baduka burutik? Emazte bat, lau gizonen erdian!... Polita lukek, to!... Ez ginikek bertze beharragorik... Laster mihiak ala litezkek: Badakik ontsa, herrian berean; hainitzek ez dutela deus konprenitzen zilkoz goragoko adixkidantzetan; pentsa emak orduan, neskato bat hartzen badugu gure etxean!...

GANIX: Eta bertzalde, ez duk erretx neskato bati fidatzea. Hura beti, bere aldera, tira-ahala-tira ariko duk... Bereziki gurea bezalako etxe batean, oro bere eskuko izan bailitzake.

ZALBAT: Baituk bai, emaztetan ere, funtsezkoak.

BENAT: Hum! Gutí, biziki gutí! Nahi dukana erranik ere, ez diat uste neskato batek gure etxean ongi eman lezakeela... Hasteko, nork manatuko dik hura? Hik? Nik? Ganixek? Manatzale bat baino gehiago balin badu, ez dik luzaz irauen gurekin.

ZALBAT: To, ez zakiat bada zer egin. Ez gaituk ere hiruak ezkontzen ahal berarekin.

ANTON: (*Hurbiltzearekin*) Eta ni? Beti ni bazter uzten nauzue.

GANIX: Hik, zer nahi duk? Hi eri haiz... Hik supazter xokoan egoiteaz bertzerik ez duk...

ANTON: Ni ere ezkontzeko on nauk...

ZALBAT: Hi, ezkondu?... Burutik habila, mutikoa?... Planta hortan nahi duk ezkondu? Are, are!... Emaguk bakea!



ANTON: Zuek bezain on nauk bai ni ere... Gaixo Maria! (*Jartzera badoa, nigarrez*)

BENAT: Alta... Hiruak ezkondu-ta, sobera... Bat ezkondu-ta, ez aski... Edo, behar ginikek, etxetik joan, ezkont arau...

ZALBAT: Ba!... Nora? Hatzemak to, hik etxe bat, oraiko egunean!...

GANIX: Nik beti, nahiago ditiat ene hezurak hemen utzi, ahal badut...

BENAT: Gure etxea ordea ttipiegi duk hiru parte egin eta, denak hemen bizitzeko. Joan bagine bederen gaztean Ameriketara! (*Norbaitek atea jo du*)

HIRUAK: Aintzina!...

3. Agerraldia

Aintzineko berak eta faturra.

FATURRA: (*Sartzean*) Jainkoak dizuela egun on!

HIRUAK: Bai zuri ere!

FATURRA: Denak etxean egun? Ez da maiz gertatzen zuen etxen...

GANIX: Sar zait! Baso bat hartuko duzu, holako bidearen ondotik! (*Emaiten dio edatera*)

FATURRA: Berdin ba! Kazeta txar honekin etorria nintzen. (*Edaten du erranez*) Zuen osagarriari!

HIRUAK: On dagizula!

FATURRA: On egiten du edateak... Zer ari zineten gero hola, denak etxean bildurik.

ZALBAT: Ba, ori, egia erran, mokoka ari ginen...

FATURRA: Mokoka? Ez duzue bada emazterik hemen.

ZALBAT: Hain zuzen, bat behar ginuela, hortan ginaukan gure kalapita.

FATURRA: Bai eta segur, nonbait beharra balin bada, hemen baliteke, hoinbertze gizonen artean: jatekoentzat eta arropentzat berentzat... Nola akomeatzen bazirezte ere.

ZALBAT: Errozute bada hori bertze horiei... Ez omen da emazte bat, hemen ongi eman lezakeenik.

FATURRA: Ez da hori hola... Herrian ez bada, auzoan bederen!...

BENAT: Zuk ezagutzen duzu norbait?

FATURRA: Hori xantza bat da... (*Irriño batekin*) Batzuetan, nehork uste ez duenak emaiten du ongi.

BENAT: Nor ikus zinezake hemengo? Hea, mintza zaitte garbiki!

FATURRA: Ez da niri zuen aferetan sartzea, baina badakizue, zer behar zinuketen egin?

ZALBAT ETA BENAT: Zer?

FATURRA: Horra: Hartzen baduzue herriko edo auzoko ezagun bat, jendeak beti erraiteko zerbait izanen du horrentzat. Arras arrotz norbait behar zinukete hartu... Nehork ezagutzen ez dituen horietarik bat...

BENAT: Bai, baina nola?

FATURRA: Egun guzietz aipatzen da kazetetan «Agence Matrimoniale» Bordalen den bat.

BENAT: Zer da hori?

FATURRA: Etxe bat baduk Bordalen eta etxe hortan, ezin ezkonduz ari diren emaztek, ezkontzeko adinean direlarik, emaiten die beren izena. Izenarekin agertzen ditie xehelasunak: zertsu dote duten; alargunsa diren; azkarrak diren... eta... jakin behar direnak oro.

BENAT: Hauxe da bitxikeria! Eta gero?

FATURRA: Gero, to! Emazte bat ezin hatzemanen ari diren gizonen aski die hara izkiriartzea, zertsukoa nahi duten eta hola... Handik bat edo bi proposatzen ditie. Eta gero zuek ikus, zein duzuen gostukoa.

GANIX: Nola erran, gostukoa denetz, ikusi gabe?

FATURRA: Delako emazte hura jinen zaizu hona berera, nahi baduzu: Iku-siko duzue elgar, elgar ezagutuko. Ez bazira kontent, gibelera igortzen duzu; ez zaizu piaiaz bertzerik gostako.

BENAT: Ba... baina hiritarra nola nahi duzu gure zokoan laketzea?

FATURRA: Badira horietan kanpainarrak ere, edo bederen lehenago kanpainan egonak. Badira kanpainara joan nahiak; galda hola-bat.

BENAT: Ez du ordea euskaraz jakinen.

FATURRA: Hori hala da... baina gerta daiteke emazte euskaldun bat ere kasu hortan. Bertzenaz ere, zer erran nahi du mintzairak? Gero ere ikasiko du ba, euskara. Eta zuen frantses poxiarekin, elgar aditzeko tira badakizue!

BENAT: (*Karkulan ari; anaier buruz mintzo*) Eta zer zaizue?

ZALBAT: Ni hortan ados: emazte bat hemen gauza beharra dela... Haatik norena izanen den, duk guzia.

GANIX: Nik ere ez diat «ez» erraiten. Eta kaskoina bada, kasik hobe... mokoka artzeko, parada gutiago; ez baitugu elgar adituko.



BENAT: Beraz, izkiriaturko diagu etxe hartara.

ZALBAT: Ba, bainan, beti gauza bera: Norentzat behar den emaztea galdatu?

BENAT: Bon!... Ez dik balio hortaz arrenuratztea: Lehenik jin dadila emaztea; hemen egonen duk eta berak eginen dik bere hau-tua. Aditzen duka? Berak. Hola ez diagu izanen nehor-k erraitekori: Berak hautaturko dik. Ez dea hola ontsa?

ZALBAT: Ba, ontsa duk hola.

GANIX: Hortan denaz geroz, ni ere akort nauk!

ANTON: (*Nigarrez*) Eta ni? Nehor-k ez nu aipatzen? Ni denetan errefus! Nik zer egin behar dut?

BENAT: Arta harturko diagu, ba, hitaz.

ZALBAT: (*Ixil egon ondoan*) Bon! Letra egin behar diagu... edo egin-arazi.

GANIX: Faturrak berak eginen dik hobekienik.

FATURRA: Ba, berdin... eta segidan, nahi baduzue... berriz hemen ibili gabe. Hea, zer nahi duzuen ezarri?

BENAT: Ba! Guk ez dakigu! Emazu beti, nola emazte bat behar dugun, nola giren...

FATURRA: Eginen dut lehenik halako zirriborro bat, gero etxen hobeki emanen dut... Beraz, holatsuko zerbait: «Nous sommes ici trois hommes qui désirons nous marier...» Zenbat urte dituzue?

ZALBAT: Hiruek ere berrogoita hamar hurbil... Ni gazteena. Bainan ez dugu adinik eman behar; bertzenaz iziturko da...

FATURRA: Nahi duzuen bezala. Eta zer heinetako emaztea behar dut galdatu?

ZALBAT: Boool!... Ez ginuke zaharregi behar halere... Nik dakita?

BENAT: Ba, mutzurdin bat, lau donadore artean! Ez ginikek deus behar-rragorik!

ZALBAT: Hortakotz bada... orduan, 25-30 heintsu hori? Berdin gazteagoak ez dira guretako.

FATURRA: Ontsia, ontsia! Emanen dugu beraz: «Trois jeunes hommes désirent...» Gero ere antolaturko zarete elgarrekin, gezur poxi bat emanik ere...

ZALBAT: Emazu nahi duzun bezala.

FATURRA: Ongi da! (*Izkiriatur du: «Trois jeunes hommes... Bonne situation...»*)

ANTON: Trois! Trois!... Eta ni?

ZALBAT: Hi, mutikoa, eri haiz eta supazter xokoan behar duk egon. Bertzerik ez!

ANTON: (*Nigarrez*) Ni ez nauzue maite. Ni beti bereiz, ni beti bazter!...

ZALBAT: Ez dik balio holakatztea, gizona! (*Faturrari ezetzko keimua eginez*) Faturra, emazu beraz «quatre», hiruen orde!

FATURRA: «Trois»... edo erran nahi dut «Quatre jeunes hommes, bonne situation, ferme à la campagne, cherchent épouse, pour l'un d'entre eux, au choix de la future. Age exigé de la future: 25-30 ans...». Berdin zaizue doterik ez badu ere?

HIRUAK: Ba, ba, hortaz berdin.

GANIX: Haatik hobe, zerbait ekartzen balin badu.

FATURRA: Emaiten dut beraz: «Avec ou sans do». (*Paperak biltzarekin*) Etxen hobeki ezarriko dut. Ezteietan eginen ditugu konduak. Are agur! (*Badoo*)

HIRUAK: Bertze aldi bat arte!

BENAT: Badiat uste errexena egin dugun.

GANIX: Ageriko: Gauden beba!

2. GERTALDIA

1. Agerraldia

Antzineko leku berean, jokalarik berak.

ZALBAT: (*Kanpara begira*) Heldu duk, to... heldu duk.

BENAT: Nor, heldu?

ZALBAT: Ganix, to... Nahi duka, pixten zaikula, letra hau ikustean?

GANIX: (*Sartzean*) Jainkoak dizuela arratsalde on!

BENAT: Egin dituka, komisioneak?

GANIX: Bai, ustez...

ZALBAT: Ea, pentsa, zer den letra hau! (*Letra erakutsiz*)

GANIX: Zer ditek? Ala bederen, emaztek izkiriatur?

ZALBAT: Ba, halako batek berak... Irakurturko daiat... Hago ixtant bat! (*Irakurtzen du*) «Messieurs, informée de votre désir d'associer votre vie à celle d'une épouse, je me permets de me présenter à vous. Je m'appelle Juliette Ladouce, je suis âgée de 26 ans, célibataire, sérieuse, je n'ai jamais couru après les hommes. L'un d'entre vous sera le premier auquel mon coeur se donnera. A bientôt donc, pour celui qui sera le premier mari chéri de mon coeur! Je viendrai le 19, de



Bayonne, par le train de 4 heures. Je serai chez vous vers 6 heures. Un gros baiser! Juliette». Zer zaik to? Ez ote da polliki itzulikatua?

GANIX: Ba, ba... Badik manera.

ZALBAT: Eta ez bide duk nor-nahi: Entzun duk, «le petit mari chéri de mon coeur...».

BENAT: Ez dik balio aintzinetik laudatzea... Gero berak emanen dik erakustera.

ZALBAT: Hi beti hola haiz!... Bon, behar ditiagu bazterrak birilgatu eta garbiki eman.

BENAT: Zer haiz, ala, ergeltzen ari? Ez dik balio jaunean agertzea, berdin sarri berean, trapuz bezi ikusiko hau.

ZALBAT: Berdin dik... lehen agurrak frangotan hainitz erran nahi dik.

BENAT: Badiagu segur auzina, oraino: Ez duk honako, bi orenez bederen!

ZALBAT: (*Ixil egon ondoan*) Iduritzen zaitak ikusten dutala: Zernahi joka nezakek presuna eder bat dela, ontsa egina eta denbora berean sanoa eta gotorra. Letra horren arabera segurik ba! Ez nuk ez ni tronpatzen...

GANIX: Uste duka?

ZALBAT: Ikusiko duk... ikusiko.

BENAT: Bainan mutikoa, ez haut gehiago ezagutzen: Zer haiz, ala burxoratzen ari letra hori ukanez geroz.

ANTON: (*Zutitu da eta atera buruz abiatu*)

BENAT: Anton, Anton! Norat abian haiz, hi berritz?

ANTON: Zer nauzue, ni nahi bereizi? Ba banioak ni ere beztitzera!

BENAT: Zer zarete, ala denak zozotzen ari? Emazte baten esperantzak holakatzen bazaituzte, zer izanen da hemen izanen delarik?

ZALBAT: (*Zapetak ziratzzen ari*) Ni hemen egonen nauk, leiho ezkinan eta etxe aintzineko itzulian agertzen deneko, baliza hartuko zioiat.

GANIX: Eta nik bertze zerbait eginen zioiat: Baratze xokoan baitira lili batzu biziki pollitak, «pensées» deitzen dituztenak, zenbait bilduko ditiat eta ezarriko salako mahainean eta hemengo ximinean, erakusteko guk ere badugula gazte molde pixka bat.

ZALBAT: Errak, eta... zer emanen diogu jatera?

GANIX: To, berak nahi duena: Hik aski diok eskaintzea xingar-eta-arroltze edo moleta eder bat. Nik ekarriko diat buxundatu on bat.

BENAT: Ba duka ur bero xorta bat? (*Zalbat buruz*)

ZALBAT: Ur beroa, zertako?

BENAT: Bizar honen kentzeko: Ez duk ikusten zortzi egun hontakoa hemen dutala?

ZALBAT: Hala duk!... Guk ere egin behar ginikek, Ganix! (*Kaxa baten bila don eta artetik kanpora so egiten du*) To, andere bat heldu... Nor ote da hori?... Ez, ez dukek hura... To, hona heldu... (*norbait atean joka*).

HIRUAK: Aintzina!

2. Agerraldia

Aintzineko berak eta anderea.

ANDEREA: Bonjour, Messieurs!

HIRUAK: Bonjour, Madame!

ANDEREA: (*Letra bat zakuatik harturik irakurtzen du*) C'est ici la maison «Kukuarreko-Borda»?

BENAT: Kukuarreko-Borda? Oui, oui, c'est ici. C'est moi que j'en suis le patron!

ANDEREA: Ici? Non! Ce n'est pas possible!

BENAT: Oui, oui, Madame! C'est moi le patron, avec deux ou trois frères... Tenez, regardez, ils sont ici...

ANDEREA: Certainement, il y a erreur... Il y a certainement erreur. Il s'agit d'une ferme où il y a trois jeunes gens, en âge de se marier.

BENAT: Ai, ai! Hura duk! Hura duk! Oui, oui... Asseyez-vous, asseyez-vous, Madame! Zalbat, errak, errak! Hura duk! Mahaina garbi-zak! Kadira ere, jartzeko kadira, garbi-zak.

ZALBAT: (*Lanari loturik*) Zerk hatzeman gaituen!

ANDEREA: (*Jarri da*) Bien, enfin! Etcheverrigaray, c'est bien ici?

BENAT: Oui, oui, présent, présent!

ANDEREA: Vous êtes sans doute des domestiques. Où sont vos maîtres?

BENAT: Errak, Zalbat, emak berehala jats ukaldi bat zoko hortan! (*Andereari*) Vous avez beaucoup voyagé: vous allez manger, Madame... (*Bere alde*) Ez du haatik «Madame», «Mademoiselle» duk... Mademoiselle!



ANDEREA: Oui, je viens de Bordeaux; je viens régler une affaire avec vos... enfin, avec trois jeunes gens qui désirent... enfin, que je suis venue voir...

BENAT: Hauxe duk, hauxe bera duk!... Errak, Zalbat, emak solas, hik ere. (*Andereari*) Il fait beau, hé, Madame, —ez— Mademoiselle!

ANDEREA: Oui, oui, le temps est très beau!...

ANTON: (*Sartzen da*) Hemen omen duk, to! (*Andereari hurbilduz*) Oh! Mademoiselle, jolie, jolie!

ANDEREA: (*Zainetan*) Qu'est-ce qu'il me veut celui-là?

ZALBAT: (*Antoni*) Utzak bere gisa! Habil otoi hemendik, mutikoa!

ANTON: Ba, nik ere badiat gero zuek bezainbat dretxo!

ZALBAT: (*Zerbitzaturuz*) Tenez, Mademoiselle, une omelette... mangez, mangez!... C'est moi que je l'ai fait.

GANIX: (*Edatarea emanetz*) Tenez, à boire, du bon vin, c'est de chez nous!

BENAT: (*Zalbat*) Errak, eta zerbita!

ZALBAT: Hala duk eta... (*Ekartzen du*)

HIRUAK: (*Irriz ari dira*)

ANTON: (*Hurbiltzen da*) Ez dik balio ni bereizi beharrez artzea. Madame, madame!...

ZALBAT: (*Kexu*) Beha-zak, hi, habil jartzera... desohorez ere...

ANTON: Nik badiat zuek bezainbat dretxo!

BENAT: Mademoiselle, fais pas attention à lui: il est un peu fou!

ZALBAT: Zer arropa pollita duen!

GANIX: Lepoa ez dik haatik hain garbia!

BENAT: Arrazoina duk... Ezpainak gorriak eta lepoa zikina, marka txarra hori!

ANDEREA: Mais enfin, je ne comprends rien: Voyons... je suis bien ici à la ferme «Kukuarreko-Borda»?

BENAT: Oui, Madame!

ANDEREA: Est-ce que vous voudriez m'indiquer où sont les trois jeunes gens propriétaires de cette ferme?

HIRUAK: (*Durduzaturik ixilik daude*)

ANDEREA: Mais, enfin, parlez donc!

BENAT: C'est moi, un, et puis lui, deux, et les deux autres, quatre...

ANDEREA: Vous, vous?... Mais je ne rêve pas... Les trois jeunes gens qui ont écrit à l'Agence de Bordeaux en vue du mariage, ce n'est pas vous?

BENAT: C'est nous, oui, oui!

ANDEREA: Mais alors, vous vous êtes moqués de moi... Vous avez écrit que vous étiez des jeunes gens...

BENAT: On n'est pas vieux, vieux, nous...

ANDEREA: Mais c'est malhonnête: Vous abusez d'une pauvre innocente que vous dérangez depuis Bordeaux. Vous en paierez les conséquences, Messieurs! Je porterai plainte contre vous.

ZALBAT: Mais moi, je veux me marier, Mademoiselle!

ANDEREA: Vous marier? Pas, en tout cas, avec moi! Ah! L'on ne m'y reprendra plus! Je porterai plainte; je vous le promets. (*Badoa zalu*)

3. Agerraldia

Lau donadoak bakarrik.

BENAT: To, orai ontsa gaituk!

ANTON: Merexi, merexi, merexi!

ZALBAT: (*Kexu*) Anton, bakea emak, hik... Hago ixilik edo bertzenaz!...

BENAT: Ez nian bertze beldurrik... Egundaino ez diat emazterik begi onez ikusi... eta hemendik goiti berdin izanen duk. Hasteko horrek ezpainak gorriak zitian eta lepoa zikina... Nahiz ez den bakarra.

ZALBAT: Denak hire falta dituk: Zertako ekar hona, ezagutzen ez den presuna... eta bertzalde kaskoina. Herrian berean bazuian ba asko emazte, hemengo on zenik. Denak hire falta dituk.

BENAT: Nahi dukan bezainbat, bainan berdin dik... So egizak! Sekula santan ez diat bertze bati kasurik eginen! Sobera aldiz sobera gaizki jalgi nauk!

ZALBAT: Ni beti oraino ezkonduko nauk!

BENAT: Bihar berean, nahi baduk... Ez haut nik gibelatuko... Antola hor!... Bainan ni, utz geldirik!

OIHALA



OKILOMENDI JAUN MERA

(Gertaldi bakarreko komedia-1955)

Jokalariak:

OKILOMENDI: Jaun Mera.

AÑA: Haren emaztea.

MIRIKU XAHARRA

XANTXO: Kantoniera.

OSTALERA

KUKUTXAR

I. AGERRALDIA

MERA: *(Baso bat uretan eria bustiz egiten du oihu)* Aña! Aña!

AÑA: *(Bere zokotik jaliz)* Zer da?

MERA: Eri hau aski bustia da engoitik... Zato orratzarekin.

AÑA: *(Argi bat pizten du, orratza berotzen)* Ba! Ez duzu deus handirik... Hor beha eta beha, hola artzeko zure eri horri.

MERA: Emeki gero... Hor sista-sista ari gabe oihal bastatzen bezala.

AÑA: Baietz ba gizona!... Ha! Gizonak, denak berdina zarete... Denak berdina putrunak.

MERA: *(Artetik)* Aditu duzuia pitsik iturri hortaz? Ba omen dira ene kontra direnak, iturri berri hori eliza saihetsean egiten dudalako. Uste dute gibelaraziko nautela... Ez dute ezagutzen nor duten beren mera berria... Ni ba ni... Joanes Okilomendi... Erakutsiko diotet hor zenbaiti zer den mera bat herrian eta zer den meragoko karguaren betetzea... Emazteki!... Emazu bada emeki...

AÑA: Ba, aski zinuena eskua hola ez mugitzea, zure mera eta meragoarekin... Ernazu eri hori argitarako...

MERA: *(Muttur eta kurrinka)*

AÑA: Hauze! Zer arno usaina duzuna... Zuk arnoa edan duzu oraino non bait.

MERA: Arnoa edan ba... Zera!... Zuk gakozen eman hartarik... Ur eta bikarbonata zikin hortarik ba, edan dut!... Phu... miriku zozoa... gibela eri dudala eta hortarik edateko... eta hortarik bakarrik. Ur eta bikarbonata... Phu... Pentsatzeak berak bihoz-tarra emaiten daute. Ai! Ai! Emaztea!...

AÑA: Ez dakit zertarik edaten duzun, bainan ez da beti erremedio hori botoila hortan, biziki beheiti ari... Ez bazinu hoinbertze arno edaten ez liezke hola zure xixtako guziak gaixta.

MERA: Ai! Ai!

AÑA: Badut gizona, badut... Ori huna non duzun!... Zer marrumak ote txar batentzat... Ori... busti zazu eria berriz ur hortan.

MERA: Bizar egiteko puskak ere behar ditut.

AÑA: Tenore huntan bizarra? Norat abian zira?

MERA: Itzuli bat egin behar dut plazan gaindi... Ikusi behar dut zer dioten ene iturriaz... Xantxo kantonierari erranen diot arratsaldeko bietako lot dadien iturriaren ziloa egiten, han eliza saihetsean.

AÑA: *(Bizarraren oihala ezartzen diola senarrari lepotik)* Ba... Zure iturriarekin aitzaki ederra duzu segurik, berriz ere ostaturat joaiteko.

MERA: Ba, ostaturat, ba... miriku xaharrak han aurkitzeko gero... Ostaturat. *(Nabela xorroxten du)*

AÑA: *(Salboina ekartzen du)* Eta non egin gogo duzu gero iturria?

MERA: Han, eliza saihetsean... Ama Birjinaren aldarearen eskualdetik. Zer zare zu ene kontra?

AÑA: Ba, ori... ez dakit ba... Hilerriak ere han eta... proasioneak eta hilak handik pasatu behar eta... ez dakit ba...

MERA: Berdin du... nahi duzuen erranik ere... Zuk eta bertzek... iturria han izanen da... han... eta erakutsiko diotet Okilomendik errana; errana dela gero.

AÑA: *(Leihotik behatzen du)* To, mirikua... miriku xaharra heldu... Jes, zertarat heldu da hori? Errana zuen ba sendatua zinela... Ez zela gehiago jinen... *(Norbaitek joiten du)* Ekartzu puska horiek, gorde ditzadan. Idekozu. *(Badoa)*

II. AGERRALDIA

MERA: *(Atea idekiz)* To, agur Jaun Miriku Xaharra. Zerk zerabiltza hemen?



MIRIKU XAHARRA: Ba, ez nuk hiretzat jina... bainan gauza bati oharturik jina nuk. Pasatzean behar hintuala abisatu...

MERA: Zer da? Jar zaitte...

MIRIKU XAHARRA: Ez, ez nuk batere jarri gogo... Hor, ohartu nuk, Xantxo kantoniera ari zela zilo egiten, elizaren ondoan, hil herriari hurbil... eta galdatu zioiat zer ari zen han... eta erran zaitak, hik manaturik, iturri baten ziloa egiten ari zela... Edanxkoa zela ere iduritu zaitak, bere usaia ez galtzeko... eta zernahi erranik, handik igorri diat... Errak, ez ahal duk hik manatu, han iturri baten muntatzea?

MERA: Zertako ez?

MIRIKU XAHARRA: Mutikoa, ez duka ikusten han kasik hil herrietan hizala?... Ala zer duk... herri guzia pozoinatu gogo?... Zer uste duk, hola edan ditakela hil hezurrez hazia den uretik?... To, gerta lukek pollitik.

MERA: Ba, ori... ez dakit ba... Nehork ez daut orai artino holakorik aipatu.

MIRIKU XAHARRA: Hori mutikoa gauza ageria duk... Horko ura hil gaxura izanen duk... Hire egitekoa duk, bainan toki hortan iturri bat... horrek ez dik kanorerik... Eta gibel hori, nola duk, nik eman erremedioekin?

MERA: Hobekil!... Hobekil!... Jaun Mirikua!

MIRIKU XAHARRA: (*Botoila ikusi-ta*) Ez duk biziki edan ur hortarik... hartzen ahal duk basotara bat ona jan ondo guziez, eta utz gero, arno eta gaineratikoak, bere gisa...

MERA: Uzten ditut, uzten, Jaun Mirikua... eta beharko oraino, dudan emaztearekin.

MIRIKU XAHARRA: Hire emazteak hortan arrazoina dik... Bon... erranak erran, hihaurek ikus-ak, eta arratsalde on... To!

MIRIKU XAHARRA: Ba, arratsalde on, Jaun Mirikua!

III. AGERRALDIA

MERA: (*Bakarrik*) Debrua, ontsa erremedio zikin hori eni edanarazi beharrez ari zarete... Beheitiaraziko diat ba botoila hori, behe titu behar bada... (*Zorta bat ixurtzen du lili ontzi batetara!*) To, edan-zak hik ene partea... Phu zikinal!... Beharrik

baitut hortxet gordea hori baino hobeagorik. (*Kautzuzko bota baten barnetik ateratzen du, polliki, botoila bat arno, eta edaten*) Hau ba, hau duk egiazko erremedioa!... Hunek bederen barnea puxka bat hunkitzen zaitak. (*Zerbait entzunik laster gordetzen du bere botoila*)

AÑA: (*Zerbaiti oharturik*) Jes!... Zer ari zinen hor?

MERA: Pitsik, pitsik... Ene ihiziko zapeta hauieri beha... Hauk ere ez ditudala aspaldian soinean ezarri...

AÑA: Mirikua laster joan da... Zato oihala lepotik esteka... Hum!... Erremedio botoila horri, haatik, tanka bat eman diozu...

MERA: Bakea emazu ori!... Miriku debrua!... Edateko eta edateko... Phu!... Ekar-tzu bizar egitekoak!

AÑA: Han dituzu sullardan... aski duzu bizarra han berean egitea. Norbait heldu bada ere, trankilago izanen zira... (*Mera hadoa*)

IV. AGERRALDIA

AÑA: (*Artean botoila arnoa batxeman du eta baren orde bikarbonata ezarri*) Gizonak ba, gizonak!... Politik zarete. Nindagon ha nondik ote zuen arno usain hori... Gaixoa... Nahi nuke ikusi zer sudur eginen duen bertze zuri hortarik, turta, turta, emanen duenean. (*Norbaitek atea joiten du. Anak senarrari*) To, Xantxo kantoniera!... Errazu Joanes, Xantxo hor duzu.

MERA: Sar araz-azu...

AÑA: (*Botoila arnoari behatuz*) Hau behar nuke nonbait gorde. (*Han berean uzten du*) Nor da hor?

XANTXO: Xantxo... Idek hortik...

AÑA: (*Atea idekiz*) Zer?... Zu hemen!... Tenore huntan?... Zer egin zare? Berriz ere lanarekin samurtu?

XANTXO: (*Trenpu-trenpuan, zakua eta pala bizkarrean*) Hop, barkatu, Andere Merala!... Nik ez dut zurekin pitsik nahi... Ni ez naiz zure meneko, bainan Jaun Meraren meneko...

AÑA: Zu, Jaun Meraren meneko zira, bainan sala hau ene meneko baita, pala hori utziko duzu kanpoan.

XANTXO: (*Umil-umila*) Bon, ontsa da... Badakit, badakit ez naizela on saluna ziratueta... Zer zira beldur ene galtza zikinekin zure kadirak zikinduko ditudala? Ez beldur izan, Andere Mera-



sa, ez ditut zikinduko... Jarriko naiz lurrean. Lurreko taula bederen haizu izanen ahal dut... Ez dautzut edaterat ere galdatuko... Berdin badakit ez dautazula gogotik emanen... Badut edatekoa nihaurek... Ba, huna hemen... (*Xorta bat edanez*) On dagizula!... Ogia eta gasna ere badituzt hemen, gose naizelarik jateko.

MERA: (*Bizarra erdia eginik*) To, hi hiza, Xantxo, holako elasturietan!... (*Emazteari*) Horrengatik, bizar ondar hau hemen berean kenduko dut (*Tresnen bila badoa*)

AÑA: Ontsa da... Zure botoila erremedio hau kendu-eta, zure puskek hemen emanen ditut. (*Aña badoa*)

MERA: (*Bizarraren egiten has-eta*) Eta Xantxo zertarat jina hintzen?

XANTXO: (*Ogi eta gasna jateri ari delarik*) Jaun Mera... Jaun Mera, nahi nuke jakin nork manatzen duen herri huntan.

MERA: Hi, herriko langilea, ez dakika nork hauen manatzen?

XANTXO: Batere ez dakit gehiago... Kanpoan, lehenik zu eta gero miriku xaharra jin zarete ene manatzerat... Hunat sartu-eta berriz, zure «madama» hori ukan dut manatzale.

MERA: Zer erran dauk miriku xaharrak?

XANTXO: Ba ori... Iturririk han ez egiteko... Hango ura pozoinatua dela... Nola erran daut ba... A! Ba!... Hango ura hilen hezurretarik jin gazura dela. Phu zikina! (*Xorta bat edanez*) Okaztazten ere nau pentsatzeak berak, zer pesteria jaliko den putzu hartarik.

MERA: Ontsa duk Xantxo... Mirikuak arrazoina dik... Eta hortakotz, hasi putzu hura tapatuko duk eta bertze putzu baten zilatzen hasiko haiz bertze toki batean...

XANTXO: Bertze toki batean? Non?

MERA: Kukutxarrek badik hor baratze ttipi bat hutsa begiratzen duena; hartan lotuko haiz zilo egiten... haren erdi-erdian.

XANTXO: Plaza hegiko baratzean?

MERA: Han berean... Baratze hura herriko lurrean duk gero... Kukutxarrek, ene aintzineko merarekin ontsa baitzen, baratze hura here meneko hartu zikan. Eta geroztik, han zaukak, iduri berea. Nehori pits arrendarik harentzat eman gabe...

XANTXO: (*Bere buruari loturik*) To, orai, orai ikusiko ditugu ximixtak eta ortziak... Azken bozetan, ni zure alde mintzatu-eta, zafloko bat eman baitzautan Kukutxarrek, oraikoan ikusten badut, hobeko dut kontrizionezko akta egitea.

MERA: Ez duk deuseren beldurrik... Emaiztik denak ene gain... eta erroknik manaturik haizela han... eta ez bazaio ontsa joan, jin dadiela enegana.

XANTXO: Ba! Ba!... Ez da dudarik hala erranen diotala...

MERA: Bon, orai habil lanerat...

XANTXO: Zeruko Jauna! Galdatzen dautzut arratsean ene burua oraino bi beharri handi hauien artean izan dezadan... Zeren eta horietarik bat Kukutxarrek eskuratzen badu, dituen zainekin beharrik gabe geldituko naiz... Ez bada oraino ausikiz lotzen... (*Badoa*)

V. AGERRALDIA

MERA: (*Bizarraren pusken altxatzen ari delarik*) Orai konprenituko ditek herri huntan, nor den Joanes Okilomendi... Lehengo mera ilaunarekin sobera bakotzak nahi zuena egiteko usaia hartua zuten... Azkenik mintzo zenak zuen beti arrazoin. Holakorik ez enekin... Kukutxarren beldur? Ez da behin ere okiloa kukuaren beldur izan. Eta hanbat gaixto harentzat... Aski zuen bere burua ez hola erakustea, ene kontra, azken bozetan...

Hum!... Zintzurra ere agortua diat... Arno xorta bat ez likek kalte (*Itzulian behaturik, botoilari lotzen da bere gordagian eta zorta on bat edaten du... Sudurra zimurtzen duela*) Phu! Phu! Zer da zikinkeria hau botoila huntan... Aa!... Debruen figura!... Emazte debrua! Atxeman dik ene gordegailua... Phu! Emaztea baino debruagorik ba ote da gero?... (*Norbaitek atean jo du*)... To, norbait atean, azen ontzeko... Bon dagozila denak hola hola. (*Botoila bere gordagian ezartzen dit... Atera oibu egiten*) Aintzina, aintzina! (*Ostalera sartzen da*)... To, Ostalera!... Nere xorte lagun gaizoa, hi hintzena?... Non habila hemen?... Jar hadi, jar...

OSTALERA: (*Xutik eta goratik*) Joanes, kontent nuk... kontent nuk hitaz... Azkenean badiagu mera bat herrian... Eta trinkatu behar dugula elgarrekin, buxundatu batekin jina nuk... Badituka bi baso?...

MERA: Ba, baditiat hor. (*Ekartzen ditu*)



OSTALERA: A debrua! Buxona jalitzekoa ahantzi diat...

MERA: Ba, hein hori ba ahal diagu... (*Emaztea deitzen du*)...Aña, ekazu buxona jalitzeko bat hunarat... (*Biak jartzen dira*)

OSTALERA: Ba kontent nuk iturri hortaz... Ikusi diat Xantxo zilo egiten hasia zela... Hor behar den tokian duk.

AÑA: (*Sartzean*) Agur Ostalera! Hemengo aldi?...

OSTALERA: Ba, ba... Bi eleren egiterat jina... A!... Hor duzuia buxona jalitzekoa?... Ori botoila jali-azu zuhaurek!

MERA: Badakik, dudarik gabe Kukutxarren baratzean egiten dutala iturria...

OSTALERA: Kukutxarren baratzean?... Ez araz... Xantxo ikusi diat lur zilatzen ari eliza saihetsean.

MERA: Ba, bainan geroztik mirikuak erran zaitak, hilerrien gatik hobe nuela han ez egitea. Eta geroztik bertze gogorik diat... (*Ostalerak edaterat erraiten dio lagunari*)

AÑA: (*Basoa altxatu*) Bon, aski badu hola.

OSTALERA: Zer?... Utz-azu emaztea!... Badu baso horrek bere izaria.

AÑA: Ez du behar gehiago... Mirikuak debekatua dio gain-gainetik.

MERA: Bai, mirikuaren eta emaztearen erraneri kasu egin izan banu, aspaldian harren hazteko despetua izanen nindukan.

OSTALERA: Utz-azu emaztea baso hori!... (*Merari*) To... Eda-zak ausarkil!... Hau buxonatua duk. Ez dauk hunek kalterik eginen...

AÑA: (*Senarrari keinu eginez bikarbonata botoila ateratzen du bere gordagitik eta, mahainean ezartzen erranez*) Ori, arno hori, huntarik nahaste-ka-azu...

OSTALERA: Nun debrutik jali duzu botoila hori? Zer duzu bota hortan zure xaia?

MERA: Ba, emazte hauk baditie hola beren segetutzko gordelekuak.

AÑA: (*Idor-idorra*) Segeretuzko lekuak ba... Gizonek erakutsiak. (*Badoa kexu. Bi adixkidek edaten dute*)

OSTALERA: Errak... Zerbitzu bat egin behar dautak... Ez zakela miriku ahul horri kasurik egin eta munta-zak iturria han, lehengo tokian...

MERA: To Kukutxarren pentzean egin gogo nian ba... Kukutxarrek konpreni zezan zer gostatzen den hola bere buruaren erakustea, bozetan, ene kontra.

OSTALERA: Errak... Hik eta nik ez diagu egundaino elgar saldu... Badakik bozetan ene ostatuak zer zerbitzu egin daukan... Errak eta ondoko egunetan iturri hori egiten baduk han, elizaren

saihetsean, ene ostatuaren aintzinean, jendea iturri hortarat bilduko duk... eta iturritik ostaturat ene menturaz... Ikusten duka ondorioa?... Eta ene onetan duk iturri hura egin dezakan toki hortan.

MERA: Ontsa duk... Baduk aski erranik... Konprenitu diat... Ene hitza emaiten daiat iturria hik nahi dukan tokian izanen dela eta bertze nihun ez... Ene hitza hor duk... eta Okilok hitzema-na, hitzema duk gero.

OSTALERA: To, milesker, gaizoa!... Ez nian bertzerik igurikatzen hireganik!... To, eda-zak!... Hi eta ni, egundainoko xorteko lagunak gaituk gero... (*Basoak koxkatuz, xutik edaten dute*)

MERA: Bon, eta erran bezala.

OSTALERA: Ontsa duk... Botoila ondar hori aski duk gordetzea afariko... Ta sarri artino to... Pasatzean, sar-jali bat egin-zak.

MERA: Ba mutikoa, ba... jinen nauk azken berriekin. (*Ostalera badoa. Merak bakarrik*) A, beraz orai joan behar diat Xantxoren atzemaiterat lehen lehenik. Agian ez duk segidan Kukutxarrerat joan!... Gero berriz... A, botoila hau gorde dezagun! (*Gordagj xaharrari buruz abiatu rik gelditzen da*) Ez hor ez... Hori jada arrapatua dik... To sarri artino hortxet ezarriko diat; palto horren sakelan...

AÑA: (*Senarra ikusirik furian*) E ben... baliatu duzu ontsa... ontsa jastatu duzu botoila muturra? Eta edanaren ondorioak, nork beharko ditu jasan? Nik? Nik ba nik... Gero, ariko zira intzirika «hil» hemendik eta «ha!» handik «Mirikua eka-zu, mirikua!» Ez du ez balio arno hori ezin gordez artzea... Hemen pausatuko duzu hori, plazer baduzu, hemen, erre-medioaren ondoan... agerian egonen dira biak... eta ikusiko dugu zoin duzun lehenik hustuko.

VI. AGERRALDIA

AÑA: (*Atea norbaitek joiten du*) Oraino ere bertze norbait... Zu mera sartuz geroz, etxe madarikatu huntan, ez gira gehiago minuta bat deskantsuan. Mera eta meragoa segur gauza pollitak dira... Nik beti bi soretan sal netzake bat ala bertzea. (*Senarrari*) Joaiten ahal zira idekitzerat... (*Bera badoa barnerat*)



MERA: To, Kukutxar, zu hemen?... Jar zaite.

KUKUTXAR: Kukutxar ba, Kukutxar hemen! Ala uste buena Xantxo xakurra ene ausikitzerat igorrita, atx egin gabe egonen nintzela.

MERA: Gizona ezti zaite!... Esprika gaiten...

KUKUTXAR: Aski esplikaturik baduk hola hola... Hi, haizen bezalako kurkuila!... Zer uste duk, mera haizela eta, nahi dukana eginen dukala herrian?

MERA: (*Kexu*) Errespeta nezazu, bertzenaz errespetaraziko dut gero ene burua... Ikusiko duzu gero exarpa hartzen badut.

KUKUTXAR: Exarpa ba, exarpa!... Joare uhal bat ba behar huke hik lepotik, ez exarpa ez...

MERA: Errazu berritz holakorik!... Errazu berritz!

KUKUTXAR: Sar hadi, sar ene baratzean, hire iturri eta miturri-ekin!... Ikusiko duk zer gostako zaukan!...

MERA: Zure baratzea herriko lurreen da... Nik hor iturria nahi dutalarik eginen dut...

KUKUTXAR: Egi-zak... Bainan jaki-zak hik iturria egiten baduk izanen direla ere boketa eginen dutenak.

MERA: Egizu nahi duzuna. Ikusiko duzu nor den nagusituko... eta orai zoazi kanporat...

KUKUTXAR: Joanen nuk... bainan jaki-zak bertze norbait ere, nik, bertze nonbaitik, igorriko dutala. (*Badoa. Mera ixil eta koskan*)

AÑA: (*Sartzean*) Jes!... Zer zuen gizon horrek holako ortzian?... Ez duzu bada horren baratzean iturria egiten? (*Lusagar xuritzzen hasten du*)

MERA: Ez, ez nuen hola egin nahi. Bainan orai bertzerik izanen da: Kukutxarrek nahi edo ez nahi, iturria han izanen da, han... Baratzearen erdi erdian... Erakutsiko diot nik Kukutxarri nor den mera herri huntan. (*Oinetakoen bila doa*)

AÑA: (*Trufaz*) Badakizu norbaitek gizon batentzat zer zitzaitan erran behin, ezkontzari buruz, haren berri galdegin-eta?

MERA: Zer?

AÑA: Gizon hura ez zela ez zaldi ez asto...

MERA: (*Irriz*) Beraz mando zela?

AÑA: Ez, ez, ez zen arrunt astoa bezain astoa, ez eta ere arrunt zaldia bezain abila: bietarik bazuen, bainan ez zen mandoa: mandoa baino gutiago zen...

MERA: Zer zen bada?

AÑA: Ori, orai asto eta gero zaldi... gero zaldi eta ondotik berritz asto eta hola beti jauzika, astotik zaldirat, eta zalditik astorat...

MERA: Gizagaizoa bide zuen lan bizitzen eta denen ara egiten ere, hola balin bazen...

AÑA: Ba, bazuen lan bizitzen, eta denen ara egiten ere, gizagaizoak... Eta badakizu nor zen delako gizon hura?

MERA: Nor ote?

AÑA: (*Kexu*) Eta nik behar nuela haren emazte izan...

OIHALA



INTZOLAKO BIDEAN

(Gertaldi bakarra, jostakina-1956)

Jokalariak:

GANIX, ANTON, MARTIN, XAN eta PETTAN: Kontrabandistak.

JULOT: Guarda, moxkor, eñula.

KAPITAINA: Guarden aintzindaria.

Jokalekua:

Oihala idekitzean, ez da nehor ageri... Bortz kontrabandixtak sar-tzen dira, lerro lerro, zango puntetan, Ganix buru, sasian ikerka...

GANIX: Xit! Xit!... (*Denak ukurtzen dira eta gero keinu batez berritz xutiaraz-ten ditu. Badoatzí aintzina*) Hau duk guarden posta lekua. Mia ongi bazterrak; ean hemen egon berriak diren ala orai-no etortzekoak. (*Bat bertzeari, ahapetik Ganixen errana kurri-tzen diote eta denak atzaparka lurra miatzen ari dira*)

XAN: Ixo! Guarden galtzetako botoin kobre bat hemen!

GANIX: (*Ahapetik*) Mia, hola hola, aintzina!

XAN: Zer?

ANTON: Hobeki miatzeko!...

XAN: Guarden usaina? (*Denak usainka hasten dira*)

GANIX: (*Gora mintzo*) Bon! Ez duk hemen guardarik. Har ditzagun gure kargak. Bazakiat salatuak garela eta guardak hemen postat-zekoak direla... Ni emanen nauk bide idekitzaile... Mugi gaiten! Leku hauk hustuz geroz, salbu gaituk.

DENEK: Ongi da, Nausia! (*Ateratzen dira Ganixen ondotik*)

JULOT: (*Apur batez nehor ez da ageri. Gero sartzen da Julot, zutinka*). Pas moyen de dormir, dans ce métier! C'était pas mon tour, mais ça leur est égal: le brigadier, il m'a dit de venir prendre la garde ici... que le Capitaine il risque de passer. Mais moi, le Capitaine, je m'en fous. J'ai envie de dormir. (*Jartzen da lurrean, erdi lo eta aboa zabalik, berritz hasten*) J'étais à la noce hier soir. Voilà le plat qui m'attend au retour. Il fallait

un douanier qui comprend le basque. Moi je ne sais pas le parler, mais je le comprends. (*Loakartzen da*)

GANIX: (*Hurbiltzen da bere kargarekin*) Debrua! Guarda! (*Gibel egiten du, karga gordetzen eta Julot-en ondora beltzen*) Heup, Julot! Zer haiz lo?

JULOT: (*Amentsetarik*) Par-Pardon, mon Capitaine! Mes respects, mon Capitaine! Rien à signaler! (*Salutatzen du Kapitaina*)

GANIX: He, Julot!

JULOT: (*Iratzartzen da*) Hé, quoi? Halte là! Ou je fais feu!

GANIX: Emeki, gaizoa, ni nuk!

JULOT: Ah! C'est toi, Ganix! Tu m'as fait peur! Je croyais que c'était un contrebandier. Qu'est-ce-que tu fais là?

GANIX: Ardietan, to! Eta hi?

JULOT: Ils sont fous! Moi, j'étais de nocés... Il paraît qu'il y a des ballots par ici. On m'envoie pour les attraper... Ils sont fous!

GANIX: Arrazoina duk! Uste badute, kontrabandixtak hemen ariko direla karga gordetzen!

JULOT: C'est ce que je leur ai dit, moi aussi. Mais ils ne veulent rien écouter. Alors je vais m'embêter ici, pendant trois heures!

GANIX: To, ni ere, hi bezala, hemen egon behar nuk, ardiengatik. Biak musean ariko gaituk, nahi baduk.

JULOT: Tu as des cartes?

GANIX: Nik, museko kartak, beti sakelan erabiltzen ditiat enekin.

JULOT: Quelle idée! Se promener avec des cartes dans sa poche!

GANIX: (*Ahapetik*) Hala duk bai; oixtian Intzolan erosiak ditiat. (*Gora gora*) Totzik kartak! (*Urruntzen da*)

JULOT: Où vas-tu par là?

GANIX: Heldu nauk berehala; zombait ttantto behar ditiat bildu. (*Ahape-tik*) Lagunei erran behar diotet nola joka.

JULOT: (*Bakarrik*) Ces cartes-là ne m'ont pas l'air très catholiques! Bah, té! On passe le temps comme on peut. Si le capitaine vient, il ne me trouvera pas en train de dormir! La noce, c'est plus de mon âge!... Hé Ganix, où-es-tu?

GANIX: Heldu, heldu! Hago ixtant bat, ezkur zenbait biltzen ditiat ttant-totako. (*Azkenean agertzen da*)

JULOT: Bien! Asseyons-nous et jouons!

GANIX: Zer pariatzen dugu?

JULOT: Une chopine à boire à Herboure?

GANIX: Ongi duk!



JULOT: Dis, Ganix! Ces cartes, tu ne les as pas achetées en France?

GANIX: (*Gogorkei*) Errak, to, edo guarda bezala nahi duk mintzatu eta orduan ez gaituk musean ari, edo adixkide nahi duk izan, eta hago ixilik!

JULOT: Ne te fache pas... Je voulais seulement... Allez... coupe. (*Kartak emaiten dizkio*) Parle...

GANIX: (*Gora mintzo*) Pasa, handia pasa! (*Lagunei keinu egiten diote*)

JULOT: Inbido!

GANIX: Tira!... Pasa, ttikia! (*Berritz keinu eginez*)

JULOT: Pourquoi dis-tu, «Pasa!» et non «Paso!»?

GANIX: Berdin dik, «Paso!» edo «Pasab», ale, «Pasa!».

JULOT: Paso!

GANIX: Pareak, ba!

JULOT: Ba!

GANIX: Berritz ere pasa... Hasian hasi, denak pasa! (*Keinu*)

JULOT: Inbido!

GANIX: Tira! Jokorik ez!

JULOT: Ez joko!

GANIX: Pasa, berritz ere? Hauk kartak! Pasa laster!

JULOT: Inbido!

GANIX: Tira!

JULOT: Alors tu n'as rien! «Paso!», «Pasab!», tu n'as que ça à dire!

GANIX: Zer nahi duk, ene jokoa horrela baita! Beti pasa! Denak pasa!

JULOT: J'ai fait tous les «tantto».

GANIX: Ez duk ez irabazi halere.

JULOT: On verra bien.

GANIX: Bai, bai, ikusiko diagu: Irabaziko duk beharbada, bainan nik ere ez diat galduko.

JULOT: Moi, je suis content de ce que j'ai fait.

GANIX: Bai eta ni ere...

JULOT: Je suis content, nais j'ai soif... Je vais boire au ruisseau... Ah, la noce! Ce n'est plus fait pour moi!

GANIX: Ura edaterat. Uretik behar duka edan? Ez, ez, nik badiat hor arnoa; nendiko janarekin ekarria. Hago apur bat. (*Ateratzzen da*)

JULOT: J'ai la gorge sèche et la tête lourde. Ah, la noce!

GANIX: To, xahakoa!

JULOT: (*Edaten dit*) Ah, ça fait du bien! C'est du vin d'Intzola non?

GANIX: Hori menttako arnoa? Ez sekulan izan ere... Trabeneko Mattin-i erosia zioiat honarakoan.

JULOT: Hum! Je ne sais pas! Ou alors, je nie trompe fort... A toi les cartes! (*Kartak ernaiten dizkio Ganixi*) «Inbido!» au grand!

GANIX: Bortz gehiago!

JULOT: Oh! Oh! Tu changes de tactique. Il n'y a plus ni «Paso!», ni «Pasa!».

GANIX: Ez, orai badiat aski paso eta pasaturik.

JULOT: Tira, tira! Je t'attraperai bien encore.

GANIX: Oraiko honetan ez beti.

JULOT: Paso, ttikia!

GANIX: Bortz tantoz inbido!

JULOT: Là tu mens! Tu es en train de me rouler...

GANIX: Ahal badut, bai!

JULOT: Tira... Tu ne perds rien pour attendre. Ez pare!

GANIX: Ba pare eta hogei-ta-hanicka, joko!

JULOT: Ez joko!

GANIX: Ba joko, hogei-ta-hameka!

JULOT: Alors, tu tires tous les «tantto» et moi, rien!

GANIX: Nik ene alderdia zaintzen diat. Hik egi-zak hirea!

JULOT: Passe-moi le «xahako»... J'ai soif.

GANIX: To! Oixtian baino hobeki jastatuko ahal duk oraiko aldian!

JULOT: (*Bapatean edatetik gelditzen da*) Dis, tu as entendu ces bruits?

GANIX: Boo!... Pottoka zenbait!

JULOT: (*Xutibt da*) C'est pas des contrebandiers par hasard? Regarde un peu de ce côté là... Moi, je regarde par ici.

GANIX: Errak, ez nuk gero ni guarda! Nik, ez diat hire aferetan sartu nahi. Ni banioak. Antola hadi, nahi dukan bezala. (*Urruntzen da*)

JULOT: (*Abapetik, bakarrik*) Attention! Un de ces salopards qui arrive dans les broussailles. Il ne va pas au moins me tomber dessus! Et s'il m'attaquait par derrière!... (*Egur mutur bat eskutan hartzen du*) Je vais l'assommer. Mais j'ai peur!... (*Orroaz*) Halte là! La douane!... Ah, salopard, je t'y prends!... (*Itsura joiten du*)

KAPITAINA: (*Kapitaina agertzzen da, kepia airean, odola sudurrean, basarre gorriari, oihuka*) Vous êtes fou! Vous me prenez pour quoi, à me taper dessus?

JULOT: (*Ikaran, salutatzzen du*) Mes, mes excuses, mon Cap... mon Capitaine! Je vous ai pris pour un contrebandier.



KAPITAINA: (*Orroaz*) Ah, c'est comme cela que le règlement vous a appris à agir envers les contrebandiers! Vous aurez de mes nouvelles, espèce d'ivrogne!...

JULOT: Je suis un ancien de la Colo, de la Coloniale...

KAPITAINA: De la Colo ou pas, je m'en fous! Rompez! Allez, oust!...

JULOT: (*Kapitainiarekin badoa*) Si c'est pas malheureux! Si j'arrête personne, on m'engueule... Si j'arrête quel. qu'un, on m'engueule quand même...

OIHALA

MUTIL BERRI

(*Gertaldi batetako ikusgarria - 1959*)

Jokalariak:

AITA: 55 urte, laborari edozein.

AMA: 50 bat urte, garbi eta fin.

DOMINIKA: 21 urte, airoski arropatua.

JAKES: 30 urte, trastuki arropatua, arras zozo-bisai itsusi bat.

FATURRA: 25 urte, gazte garbi bat.

BEÑAT: 25 urte, gazte eder bat, pizu-aire gorputz eta moldez.

PARISTARRA: 30 urte, eder eta jaun-aire bere moldetan.

Taula-gaina:

Edozein Euskal Herriko sukalde.

I. AGERRALDIA

(*Aita eta Ama eleketan*)

AITA: Gure mutila arras saindatzen ari zauku. Nik ez dakit zer gertatzen zaion! Ez du gehiago laneko funtsarik... Batzuetan, gaitzeko ero-bultek hartzen dute. Deus arrazoinik gabe, hasiko da oihuz orroan, eskarnioka... edo berdin, kantuz! Ez dut behin ere hola edana ikusi, nola iragan igandean... Atzo berritz, belar epaiten ari zelarik, sega bet-betan arrunpeka aurtiki du eta etzaterat joan da itzalerat.

AMA: Horren gaitza errex da zilatzea... Jelos da.

AITA: Jelos?... Nortaz jelos?

AMA: Gure Dominikaz... Ez zirea hortaz oraino ohartu? Gure Dominika faturrarekin gurutzatzen hasiz geroz da hola.

AITA: Jes!... Zer behar dio gaizo burtxoro horrek gure Dominikari?

AMA: Nik dakita! Burtxoroa da, bainan gure Dominikarentzat izan du beti halako tirantza bat. Ez zirea ohartu?... Zuk eta nik erraneri frangotan bihurri agertzen da... Sekulan Dominikak erraneri... Dominikak sudurretik ibiltzen du... Nahi duen guzia eginarazten dio. Harenganik, oro ontsa hartzen ditu.



- AITA:** Ez ahal du ba, Dominikarekin ezkontzeko petrentzionerik?
- AMA:** Ez! Bainan Dominika du bere bihotzeko izarra... Ho! Berak ez dakielarik...
- AITA:** Bihotzeko izarra, ele tetelea duzu hori!
- AMA:** Erran nahi dut, gure mutilak, burtxoroa izanagatik, baduela — denek dugun bezala— bere baitan, xokoño bat, kantuz, liliz eta xoriz apaintzen duena... Bere penetan, guk guretan bezala, xokoño hura du ihesleku eta kontsolamendu... Eta preseski, gure mutilarentzat, Dominika da, liliz, kantuz eta xoriz apaindu xokoño hura... Hortako ez du nahi hartan sar dadien nehor, beraz bertzerik.
- AITA:** Ba, ba... Ez bada hola ere, paso!... Eta, Dominika zertan dugu fatur horrekin?
- AMA:** Hortan du arras bere gogoa.
- AITA:** Ori... Horrekin ezkontzen hada, pollitak geldituko gira zu eta ni! Zer bilakatu behar dugu, holako ontasuna bizkarrean?
- AMA:** Mutilak ere hor izanen dira, ba!
- AITA:** Mutilak ba!... Dugun hori bezalako batzu izaitekotz... Mutil ona behar da pagatu... Eta, gure etxeak ez luke bererik, mutil on bat pagatuz.
- AMA:** Zer nahi duzu erran dezadan! Bertzek bezala, eginen dugu ahal duguna. Haur bakarra dugu... Hori ezkonduz geroz, ez du balioko lanean lehertuak artzea... Norentzat?... Berdin buena, ttur-ttur ariz bilduko dugu.
- AITA:** Uste nuen Beñatekin zuela apailatuko bere geroa... Beñat gure etxekotz hauta zela, lorietan nindagon... Kapablea baita eta lur lanetako gizona.
- AMA:** Zer nahi duzu!... Amodioa gidatzen ahal da, bainan ez da bortxatu behar... Te, mutila hor duzu!

II. AGERRALDIA

(Berak eta mutila)

- AITA:** *(Mutilari)* Hor hiza Jakes!... *(Agertzen da)* Salda-xorta bat edan-eta, behiak uztar aitzik!... Perdekatarat joan behar diagu.
- JAKES:** *(Mabainean jarriz)* Luzerna ala soroa?...
- AITA:** Luzerna... Eta sari, arto-ondo horren iraulden behar diagu lotu.

AMA: Lurra sasoinean dea hortako?

- AITA:** Hezexko da, bainan egunak han-harat doazi, eta ez gaitezke beti so egon... Errazu, eta... Dominika joaiten ahalko dea, Jakeseri esku-kolpe bat emaiterat, perdearen kargatzeko!
- JAKES:** *(Lorietan)* Ba, ba!
- AMA:** Hori ez aise, nik uste... Faturra ere jitekoa du, eta, badakizu, hura ez luke huts-egin nahi.
- JAKES:** *(Gaitzeko errabian)* Faturra?... Faturra?... Phu!... Phu!... *(Ukamiloz mahaina joz)* Nik muturra hari hautsiko!... Muturra!...
- AITA:** Apaltxago, to!... Hire konplimenduak atxik-aitzik hiretzat!
- JAKES:** *(Salda bazterrerat utziz)* Phu! Phu! Faturra!... *(Dominika agertzen da)*

III. AGERRALDIA

(Berak eta Dominika)

- AMA:** Hor zirea, Dominika!... Ontsa etorria zira!
- DOMINIKA:** Zer nahi zinuen? Jes, zer duzu hola kexu, Jakes?...
- AMA:** Zu nahi zaitu laguntako perde kargatzeko.
- DOMINIKA:** Jes, zertako ez, behar bada!
- JAKES:** *(Loriatua)* Ba, ba!... Zu, Dominika, enekin!... Ba, he, ba??
- DOMINIKA:** Baietz ba... Etorriko naizela...
- AITA:** Bon... Kontent orai! Jan-ak eta mugi-hadi behi uztartzerat...
- JAKES:** *(Loriatua, Dominika begiz jaten duela, arramaska salda edaten du, agua hartzez hantsiz. Bururatu ondoan, xutitzen da)* Etorriko, zu, Dominika? Enekin hel!... Ez gero faturrarekin.
- DOMINIKA:** Ba, ba... Zurekin... Etorriko naiz!... Bi biak joanen gira perdekatarat... *(Jakes jaltzen da, loriarekin eskuak torratuz)*

IV. AGERRALDIA

(Aita, Ama eta Dominika)

- AITA:** Ez dakit zer behar dugun mutil horrekin bilakatu!... Geroago eta burtxorago ari zauku egiten.
- DOMINIKA:** Ordaina beharko hartu... Delako Paristar hura ere agertuko da ba laster, dudarik gabe...



AITA: Ba, zure fatur horrek atzo edo egungo hitzemanaz zaukun haren bisita. Bainan zer gizon da delako Paristar hori?... Aipatu dautzuia?

DOMINIKA: Ez du berak ezagutzen... Haurrean hemen hazitako Paristar umexurtzetarik omen da... Gero hemendik norapait joanik egona... Orai berritz gibelerat itzulia, lanketan ibilki!...

AITA: Hum! Gehiago ezagutzen ez den gizonaz, ni mesfidatzen naiz!...

DOMINIKA: Ez du balio, aita, aintzinetik odol gaixtorik egitea... Utza-azu etortzerat... Berak erakusterat emanen du zer motatik den.

AITA: Ha, zuk ere, hautua izanki-eta, laborari bati baino, fatur bati lotu nahiago ba!

DOMINIKA: Ene zorzea da hola, aita...

AITA: Nago ez ote dudan, nik ere, hobeki egingen, ontasuna utzi-eta, karrika garbitzale sartzea!

DOMINIKA: Zure suhi-beharra, laborari-seme duzu gero, aita!... Hor izanen da, behar orduan, esku-kolpe baten emaitako ere.

AITA: Faturkoa eta laborantza, ura eta sua bezalatsu dira... Bon, hobeko dut naski mutil xoro horrekin, nihaurek joaitea... Zu zaude hemen, Dominika!...

AMA: Ni ere, oilotarar noa... (*Biak jalitzen dira*)

V. AGERRALDIA

(*Dominika eta Fatura*)

(*Dominika, leibotik so egin-eta, paxiño bat apaintzen da*)

FATURRA: (*Atea joz*) Hep!...

DOMINIKA: (*Idekiz*) Hor zirea Mixel!

FATURRA: Bakarrik zirea?...

DOMINIKA: Ez... Denak etx'alde gira... Ama hor da oilotan, eta aita Jake-sekin... Jakes arras bulta gaxtoan dugu.

FATURRA: Zer du?

DOMINIKA: Nik erran behar banu, jelos da, zu enekin gurutzatzen ikusten baitzaitu... Jelos eta ez doi bat bakarrik, bainan izigarriko errabiarekin... Kasu-emaiten ahal duzu, zuk ere, harekin buruz-buru gertatzen bazira... (*Edaterat ematen dio*)

FATURRA: Izanen ahal dugu aski indar, kokkor horren bentzutzeko...

DOMINIKA: Aitarekin oixtian zu aipatu zaitugu...

FATURRA: Zertaz?

DOMINIKA: Ez da zure kontra, bainan nahiagoko zuen ni laborari batekin ezkontzea, ezenetz fatur batekin.

FATURRA: Eta, Beñat, beti ondolik ibilki zautzuia?

DOMINIKA: Ez du iduri oraino etsitua duela... Bizkitartean aski erakusterat emaiten diot, ez naizela harentzat.

FATURRA: Ene aldetik, gero eta gehiago gogoan nago, ez ote dudan faturgoa utziko, hemen, lur-lanari lotzeko...

DOMINIKA: Ez zinueke segur gure aita kontra!

FATURRA: Eta zu?

DOMINIKA: Eni berdin lakiket!

FATURRA: Bon... Ikusiko dugu... Denborak erranen du...

VI. AGERRALDIA

(*Berak eta Jakes*)

JAKES: (*Agertuz... Errabiak hartzen du*) Phu!... Phu faturra!... Dominika enekin!... Perdailua karga!...

FATURRA: Zer duk, Jakes gaizoa? Zer!... Kexu hiza?...

JAKES: Phu!... Faturra fuera!... (*Mahaineko baso bat nabi luke hartu, Faturrari tiratzeko bezala...*)

DOMINIKA: (*Eztiki... Basoa kenduz*) Utz-azu hor hori, Jakes! Eta ar zaite eztiki!... Behiak uztartu ditutzuia?...

JAKES: Ba... Zu enekin!... Kargatzerat!...

DOMINIKA: Bon, jinen naiz perdea kargatzerat... Abia zaite behiekin!... Heldu naiz berehala...

JAKES: (*Faturraki ukamiloa eginez*) Phu!... Ustela, hil!...

DOMINIKA: (*Emeki kanporat pusatzen du*) Zoaz, Jakes, zoaz!... Heldu naiz berehala... Has zaite perdea orgari hurbiltzen! (*Jakes jalitzen da*)

FATURRA: (*Xutituz*) Arrazoin zinuen. Xoro horren errabia, orai berritz, bertzen gainerat! Bon, segitu behar dut ene itzulia... Gibelarakoan geldituko naiz asti gehixagorekin.

DOMINIKA: Ontsa da... Ixtant artio beraz!...

FATURRA: Ba... Ixtant artio, Dominika. (*Jalitzen da*)



VII. AGERRALDIA

(Dominika eta Ama)

(Dominika apur bat bakarrik... Leiboa idekitzen du... Adio bat egiten dio faturrari... Berritz laneko dabantala hartzen du...)

AMA: *(Sartuz)* Errazu Dominika, aitaren partez, hemen egoiteko!... Berak lagunduko duela Jakes...

DOMINIKA: Gaizo Jakes!... Ez bide da kontent...

AMA: Zer nahi duzu? Ez ditake denen komplimendua egin!...

DOMINIKA: Faturrak sar-atera bat egin du...

AMA: Ba, oilotan nintzen... Oilo-koloka bat bada harrotua... Nehondik ezin berritz kafiarat bilduz ari naiz...

DOMINIKA: Itzulia bururatu-eta, gibelarakoan jinen dela erran du... Agian, xitako arroltzeak ez zaizkit hoztu... Bainan, ama, ez duzu kasurik ere emaiten, zer erraiten dautzudan...

AMA: Ba, haurra, ba... Bainan, zu zureari ari eta ni eneari... Ha, entseatu behar dut arto bihiarekin bilduko dudanetz *(Jalitzen da)*

VIII. AGERRALDIA

(Dominika eta Beñat)

(Dominika apur bat bakarrik... Leibotik behatzen du, eta asaldatzen da...)

DOMINIKA: Ha, Beñat!... Beñat hunarat heldu!... Berritz ere ene ondolik!...

BEÑAT: *(Atea joz)* Hep!...

DOMINIKA: Aintzina!...

BEÑAT: *(Sartzen da)* Bakarrik zirea?...

DOMINIKA: Ba, bakarrik... Jar zaitel!... *(Mintza ditela biak, ebas-ka bezala, galde eta errefera bakotxaren ondolik, apur bat ixilik egonez)*

BEÑAT: Zera!... Etorria nintzen, zera...

DOMINIKA: Zuen lanez, dudarik gabe.

BEÑAT: Ba, ba!...

DOMINIKA: Zer ari zirezte?...

BEÑAT: Ba!... Usaiakoetan!

DOMINIKA: Aroa, ez soberarik alde, naski?...

BEÑAT: Bool!... Ba, ba...Orotarik!...

DOMINIKA: Gure aitak zion iraulden behar duela hasi.

BEÑAT: Ba, ba... Sasoina da... Baduia irauleko laguntzarik?

DOMINIKA: Ba, usaiakoa!...

BEÑAT: Zuen etxean ere laguntza xuhur!...

DOMINIKA: Zer nahi duzu?... Ezin bertzela egin!...

BEÑAT: Ba, zuen etxean bada bi gizonen lana...

DOMINIKA: Balitake ba!...

BEÑAT: Aita ere xahartzen hasia da-eta!...

DOMINIKA: Bakotxa gure saindian!...

BEÑAT: Ba, trixte da etxe bat, laguntzarik gabe!

DOMINIKA: Ba, ba, hala da! Bainan beharbada izanen dugu mutil berri bat...

BEÑAT: Ha!...

DOMINIKA: Harekin errexago izanen da lanen moldatzea...

BEÑAT: Eta zer mutil hartzen duzue?

DOMINIKA: Hemengotz on dena ba, dudarik gabe...

BEÑAT: Laborantzan dakiena, segur?...

DOMINIKA: Ez du beharbada hori izan ofizio bakarra, bainan hortan ere trebetua...

BEÑAT: Ha... bon... bon... Ez, dudarik gabe, hilabeteka pagatzen diren-tarik?...

DOMINIKA: Hori, gero ikusiko... Hitzak egitekoak ditugu oraino!

BEÑAT: Orduan, ez duzue gure laguntzarik beharko!...

DOMINIKA: Hori ezin erran, nortaz behartuko giren.

BEÑAT: Bon... bon... Mutil berri batekin ez bazirezte antolatzen, hor izanen gira gero gu, beti. *(Xutitzen da)*

DOMINIKA: Ba, ezagutzen dugu segurki zuen bihotz ona!...

AMA: *(Agertuz)* Dominika!... Ez berehalakoan, bainan bildu dut gero oilo-koloka! Urde filda!...

IX. AGERRALDIA

(Ama eta Dominika)

DOMINIKA: *(Zainetakoek hartu balute bezala, irri-karkarikan lotzen da)* Ama, ekazu musu!... *(Beti irriz, musu emaiten dio)*

AMA: Zer ari zira, haurra? Enoxentzen?

DOMINIKA: *(Beti irriz)* Ez, ama!... Beharrik jin zira!...

AMA: Bainan, zer derasazu?



DOMINIKA: Beñat hemen nuen... Zu sartzean jali da... Bulta bat huntan itzuli-mitzulika ari zautan, punperat ezin jautsiz!... Eta ene aldetik, ari nintzen forni eta forni... Azkenean arras agortua nintzen; ez nakien zer jali... Beharrik jin zira!

AMA: Zer behar zuen?...

DOMINIKA: Nahi zuen jakin ene eskua beti libro zenetz...

AMA: Eta erran diozu garbiki zure xedea?

DOMINIKA: Ez diot erran, bainan konpreni-arazi!

AMA: Gaizo mutikoa!... Zertako ez diozu dena den salatzen?...

DOMINIKA: Ez naiz atrebitzen... Ez da mutil gaxtoa Beñat, bainan zerbait pisu harrapatzen diot... Halako apostolu-aire bat... Ez da haren jitea ontsa joan enearekin...

AMA: Ez dakit hura zer den; bainan zu beti, axeri on bat zira!... Horiak hola, mugi zaitte... Entzuna dut ogiketari-otoa tut eta tut ari, bide-gurutzetik... Har azu moltsa eta ekazu lau liberako ogi bat.

DOMINIKA: Ontsa da, ama... Berehala banoa. (*Jalitzen da. Ama bakarrik, zerbait laneri lotzen da*)

X. AGERRALDIA

(*Ama eta Paristarra*)

PARISTARRA: (*Atea joz*) Hep!...

AMA: Aintzina!...

PARISTARRA: (*Agertuz*) Hau da Ezkurrenea?

AMA: Ba, jauna, hauxe bera... Nor zaitut, zu?

PARISTARRA: Etxe hontan, mutilketan omen zabilzate!

AMA: Egia da... Zu zira, bederen, delako Paristar, hemen hazi hura?...

PARISTARRA: Hura eta bera!...

AMA: Jar zaitte, jar, jauna! Nork gidatu zaitu hunarat?

PARISTARRA: Duela zenbait egun, zuen inguruko norbaitek aipatu zautan etxe hau... Argitu naiz hemengo harat-honatez, eta orai hemen nauzu.

AMA: Beraz ez du balio xehetasunetan sar gaiten gure etxeaz eta gure familiaz!

PARISTARRA: Ez!... Oroz jakintsun naiz!

AMA: Zer hartuko duzu?... Nahi duzuia salda-xorta bat, baso bat arnorekin?

PARISTARRA: Berdin...

AMA: (*Zerbitzatur*) Gizona perdekatarat joana dut eta alaba ogiketarat... Hemen izanen dira laster... Non zinuen, orai artio, zure lan-tokia?

PARISTARRA: Paris-inguruko ontasun handitan...

AMA: Nik uste, ez dituzte han, gure lan-molde berak...

PARISTARRA: Ez, han laborari guziak traktorretan dira.

AMA: Ez dira beraz gu bezenbat lanean akitzen!

PARISTARRA: Han, zortzi orenak egin-eta, libro ginen.

AMA: Eta, irabazi ona zinuen?...

PARISTARRA: Hiritako langileena... Bertzalde igandeak libro, eta ere astean arratsalde bat...

AMA: Holako lan-toki ona nolaz utzi duzu?

PARISTARRA: Diru-puska bat badut bazterrerat emana, eta honat etorria naiz, hemengo ontasun bat erosteko xedearekin, ene gain jartzeko... Non ez naizen ezkontzen etxalde oneko alaba batekin...

AMA: Ez zaut iduritzen gure etxean ukaiten ahalko dituzula Paris ondoko kondizione berak!

PARISTARRA: Ez ditut pretenitzen ere... Badakit hemengo irabazi eta bizi moldearen berri...

AMA: Bon... Senarra kanpoan dut perdekatarat joana... Sartzean, harekin mintzatuko gira...

XI. AGERRALDIA

(*Berak eta Dominika*)

DOMINIKA: (*Agertuz*) Egun on Jauna!

PARISTARRA: Bai, zuri ere, andere gaztea!...

AMA: Hona gure alaba... Dominika du izena... (*Alabari*) Jaun hau, lekua-
ren ikusterat esperantza ginuen mutil gaia da...

DOMINIKA: Ha!... Arras ontsa... Hona ogia!... (*Moltsa emaiten du hartu tokian*) Ez du hanbatekoa, egun ere.

PARISTARRA: Ni, hemen egoiten banaiz, nihaurk erreko dautzuet ogia...

AMA: Badakizua lan hurtan ere?



PARISTARRA: Ba... Egona naiz ogi-egile baten etxean ere mutil... Eta, ogi erretzen, nor-nahirekin buruz-buru artzeko on naiz.

AMA: Ez da abantail tipiala...

PARISTARRA: Ofizio bat baino bi ikastea hobe zela, betitik pentsatu izan dut...

AMA: Ni zure alde, hortan...

PARISTARRA: Oto-zaingoan ere ari izana naiz...

AMA: Izan zirea oto baten jabe ere?...

PARISTARRA: Ba... Egun hartan saldua dut azkena, eta berri ederragoko bat manatua dut.

AMA: Sekulan hemen sartzan bazira, ibiliko gira, mutila otoan eta nausia oinez...

PARISTARRA: Ba, berdin dira esku artean izanki-eta, kurri araztea hobe zela, pentsatu dut...

AMA: Ez da gaizki pentsatua... Ho! Gizon hek hobe ditut mugi-araztea!... Bertzenaz zuri hemen denbora gal-araziko dautzugu... Banoa hetaraino!... Zuk Dominika, segi-atzu hemengo lanak! (*Jalitzen da*)

PARISTARRA: (*Apur bat ixilik egonik*) Dominika, ez dut nehon zu bezain andere xarmantarik aurkitu! (*Dominikak espaldak altxatzen ditu... Bere lanari ari da... Ixilik daude apur bat*)

PARISTARRA: Nahi duzua, esku-kolpe bat?... Lagunduko zaitut...

DOMINIKA: Ez, ez milesker!... Ez dut laguntza beharrik! (*Apur bat ixilik daude... Paristarra xutitzen da... Dominikaren ondotik dabil... nahi luke zerbaitetan lagundu... bainan Dominikak ez dio paradarrik emaiten*)

PARISTARRA: Dominika, nik otoa ukaitean, gaitzeko piaiak egingen ditugu, biek, buruz-buru.

DOMINIKA: Ez dut otoan ibiltzea maite!

PARISTARRA: (*Baliatzen da, Dominikak bi eskuak tratatuak baititu, bari musu baten emaiterat entseatzeko*) Nik maite zaitut zu! Ekazu, musu, Dominika!...

DOMINIKA: (*Zaflako bat emaiten dio... arras kezu da*) Eta, zuk bakea eni!... Ez naiz batere zure gutizietan!...

PARISTARRA: (*Frango minberatua*) Bon, bon! (*Dominika sar-jalika dabil izigarrri kezu... Bet-betan nigarra eskapatzen zaio eta jalitzen da. Paristararak laster-lasterra leibotik so-egiten du... Badoa armariorat, eta ebatsirik sakelerat sartzen ditu, brin-brau, moltsa, kuller-furtxeta zilarrezko batzu eta holako... Berritz jartzen da... Arno zorta bat*

bere buruari zerbitzatzen dio... Iduri luke bura presaka edan-eta, ibesi joango duela)

AMA: (*Sartuz*) Tel!... Bakarrik zirea?... Non da Dominika?

PARISTARRA: Hemen zen orai berean...

AMA: Orga hagatzen ari dira gizonak. Heldu dira berehala... (*Dominika agertzen da, kopeta ilun... Hitzirik erran gabe, bere lanari ari da*)

AMA: Laster eguerdi baita bazkalduko duzu... Hola izanen duzu deskantsuan solasean artzeko denbora senarrarekin...

PARISTARRA: Barkatuko duzu, bainan lagun bati hitzeman diot harekin bazkaritea ostatuan...

AMA: Nahi duzun bezala...

PARISTARRA: Aferezko bazkari bat dugu... Diru puxka bat banion prest emana, duela bi urte, etxe berri baten altxatzeko... Diru haren intresak behar dauzkit eman.

AMA: Ha, orduan hango bazkaria hobe zuretzat hemengo baino... Edazu ba xorta bat... (*Nahi dio zerbitzatu*)

PARISTARRA: Ez, ez, milesker! (*Xutitzen da*) Hemen egoiteko orde, kanpo horietan egingen dut izuli bat... Zuen ontasuna ikusiko dut eta bi ele hasiko senarrarekin...

AMA: Nahi duzun bezala...

PARISTARRA: Bon!... Ixtant artio beraz!... (*Jalitzen da*)

AMA: Ba... Ixtant artio... (*Apur baten buruan: Dominikari*) Nola kausitzen duzu gizon hori?

DOMINIKA: Hori, ez-deus bat da!...

AMA: Jes! Zoin laster eta aise jukatzen duzun, zuk, jendea!

DOMINIKA: Ba... Baititut ene arrazoinak!

AMA: Zer arrazoin?

DOMINIKA: Zu hemendik urrundu ziren denbora laburrean, zer gizon den erakutsi baitu.

AMA: Zer gertatu zaitzu?

DOMINIKA: Bo... gizona, beti gizona!... Zer nahi duzu?

AMA: Bainan, haurra, mintzatzekotz, mintza zaitte garbikixago... On da guk ere jakin dezagun nor hartzen duzun...

DOMINIKA: Bah!... Maite ninduela erranez, musu zautan nahi eman, nehondik ere. Eta, zaflako on bat bildu du...

AMA: Ha, baia?... Ausarta tzarra!... Nehor ez ezagutzen, bertzeen etxean, eta sartu gabe ere, horiek ditua moldeak?... Gero ere, xori hori, luma bereko izanen da... Ez dugu segur gure ohanterat utziko sartzerat, holako balin bada...



DOMINIKA: Ni segurik, desgustatu nau...

AMA: Bon... Aintzin aldea hartuko diot... Banoa berehala aitarenganat, ez dezan mutil hori etxerat har erraiterat.

XII. AGERRALDIA

(Ama, Dominika eta Faturra)

FATURRA: Hep!

AMA: Aintzinal!... Ha, zu zirea?... Uzten zaituztet apur bat... Aitarenganat noa jauzi batez...

FATURRA: Ez bide da urrun... Mutila hor heldu da segurik, furtxa bat bizkarrean. *(Ama jalitzen da)*

DOMINIKA: Badakizu zuk guretzat galdatu zinuen mutil-gai Paristar hura?...

FATURRA: Ba... agertu da azkenean?

DOMINIKA: Ba... Oraintxet hemendik jalia duzu...

FATURRA: Zer mutil da?

DOMINIKA: Biligarro bat ona... Ez du segur gure etxean zangorik sartuko... *(Kafea preparatzen dio)*

FATURRA: Oixtian jada aipatu dautzut... Ni, gogotik, faturgoa utzi-eta, hemen lur lanari lot naiteke... Bainan zuk nahiko duzuia?...

DOMINIKA: Nik?... Zertako ez?... Gogotik nik ere...

FATURRA: Lorientan nuzu... Uste nuen laborari batekin ez zinuela ezkondu nahi... Egiaz dautzut, ez naiz batere faturgoari atxikia... Ene ametsa zen, laborari, zuen etxean sartzea; bainan ez naiz orai artio atrebitu zuri aitortzerat...

DOMINIKA: Ez dut nik laborantza hastio... Enezat miletan hobe da amaren ondorat ezkont nadien... Burasoentzat ere, bertze goxotasunik izanen da hola... Lorienta behar dute zure xedea entzun-eta!...

FATURRA: Sarri berean jakin araziko diotegu...

XIII. AGERRALDIA

(Dominika, Faturra eta Jakes)

JAKES: *(Arrant erotua, furtxaz eskaintzen dio Dominikari)* Zuk gezurra erran!... Zu ez etorri enekin perde kargatzerat! Fatur ustela nahiago... *(Dominika ikaran dago)*

FATURRA: *(Guduka labor baten ondotik, faturrak furtxa Jakeseri kentzen dio)* Furtxa hori hunarat to!... Xoro tzarra hi!... *(Pusako batez kanporat igorri)* Habil hortik kanporat! Eta ez ager gehiago gure arterat!

JAKES: *(Marruma-orroaz berriz sartzen da)* Ene boneta... Ene boneta!...

FATURRA: *(Boneta lurretik bilduz)* To, hire boneta eta habil hortik!...

JAKES: *(Marrumaz beti, jalitzen da)* Ni gehiago ez hemen egonen... Ni etxerat... etxerat joanen, betikotz!

DOMINIKA: Ho, ikaratu nau!... Zoin tzarrean zen!

FATURRA: Ba, eroez beti mesfidatzeko da... Nago orai zer egingen duen!

DOMINIKA: Hori, segur bere etxerat joanen da... Lehen ere egon zauku hola, egun-multxo bat, etxerat joana, bere penak ahantzi artio. *(Kafea zerbitzatzen dio eta badoa armariorat kulliraketarat)* Jes, non dira hemen ziren kuller-furtxetak?... Moltsa ere ez hemen? Ez ahal ditu bederen Paristar delako harek eba-tsi?...

XIV. AGERRALDIA

(Dominika, Faturra eta Ama)

AMA: *(Agertuz)* Aita ikusi dut... Gure mutil beharra ez omen zaio agertu. Hemendik jali ordu, motorat igan-eta, tira-ahala urrundu omen da...

DOMINIKA: Ama, zuk hunki ditutzuia hemengo moltsa eta kuller-furtxeta zilarrak?

AMA: *(Asaldatua)* Nik ez!... Zer dira?... Eskas?...

DOMINIKA: Segur naiz gizon tzar harek joan dituela! Minuta bat egon da bakarrik, bainan baliatu, urdea, eskuaren ibiltzeko!

FATURRA: Berehala banoa jandarmerirat...

AMA: Zoaz!... Zoaz!... Oraino ez daiteke urrun... Telefonaz, inguruko bideak trabaraziz, arrasta dezakete...

FATURRA: *(Jalitzen da)* Laster hemen naiz berriz.



DOMINIKA: Zaflako bat eman-eta, doi-doia atera naiz, ez haren aintzinean nigarrez ari nahiz... Segur naiz, orduan egin duela bere kolpea!

AMA: Eta, zoin ontsa mintzo gizona!... Ofiziokoa, lan-mota guzietan usatua, diruduna!...

DOMINIKA: Ba, axala sobera eder, barnea ez ustela izaiteko!

XV. AGERRALDIA

(Aita, Ama eta Dominika)

AITA: *(Sartuz)* Zer gertatu zaio Jakesi?... Nigarrez urundu da, etxerat doala erranez, eta ez dela gehiago honarat itzuliko!

DOMINIKA: Furtxa nahi zautan sartu, ez nintzelakotz harekin perdeketa-
rat izan... Beharrik faturra hor baitzen, furtxa hari eskutik kentzeko...

AMA: Eta, ez dakizu bertze berria!... Gure mutil Paristar famatuak, ateratzean, berekin joan dituela armariotik moltsa eta kuller-furtxeta zilarrezko batzu!

AITA: Debruen urdea!... Hori dea hemen utzi duen oroitzapena?... Eta, joan duia diru hainitz?

AMA: Ez biziki, bainan dena ere sobera!

AITA: Beraz planta onean gelditzen gira... Ginuen mutila, joana, esperantza ginuena ez heldu, eta gainerat, etxea ohointzaz arindu...

DOMINIKA: *(Irriño batekin)* Ez zaitela ilun aita! Ez etsi!... Ekarriko dautzut ba, nik, mutil berri bat...

AITA: Zuk ba, zuk!...

DOMINIKA: Nik ba, nik, aita!... Haur ttipiak postatik ekartzen direnaz geroz, ekar ditezke ba mutilak ere!

AITA: Oro arreguraka ari dira gure etxaldeak larre joaki direla... Hala joanen dira, heien lantzeko, kanpainetan gelditzen badira bakarrik zozoak eta zaharrak.

DOMINIKA: Ikusiko duzu zer gazteria ederra muntatuko dautzugun etxe huntan!

AITA: Ez dut erraiten gazte guziek, kanpainan sortuz geroz, kanpainan bizi behar dutela... Ez... ez liteke denentzat bizitzeko-rik... Bainan gure etxean, jali daiteke familia baten hazte-

koa... Sobera gaztek, sobera aise uko egiten diote sortetxeari.

DOMINIKA: *(Kantu:)*

Badut andrea, badut semea

Badut alaba ere nik!

AITA: Ba, ba... Trufa zaite aitari!

DOMINIKA: *(Amari)* Gure aita arras mokorrean dugu.

AMA: Nor ez da hala izanen gure kasuan!...

DOMINIKA: Bon, pareak ba eta tira tantoa, beraz!...

XVI. AGERRALDIA

(Berak eta Faturra)

FATURRA: *(Agertuz)* Preso da gure ohoina... Jada arrastatua zuten...

AMA: Hoin laster!

FATURRA: Ba, mandil bat omen da gizon hori... Jada hamar bat aldiz preso egona... Atzo, merkatutik etxerakoan, makiñun bati ebatsia omen zion dirua... Jandarmez segitua zen, hunarat jin delarik.

AMA: Hemen ebatsiak, berekin zituena?

FATURRA: Ba, Jandarmek galdatzen dautzute, hetaraino itzuli bat egin dezazuen bietarik batek... *(Aita agertzen da)*

DOMINIKA: *(Aitari)* Entzun duzuia aita, zer gizon den gure ohoina?...

AITA: Ba, oro entzun ditut... Betitik errana da: Ez atea nola-nahizka idek ezagutzen ez den gizonari! Eta futxo, hortaratzea bortxatuak, ezagunik ez daitekellarik harrapa etxeko lanetako.

DOMINIKA: Errana dautzut jada, aita, nik egina dudala etxe huntako mutil berria!

AITA: Ba, nahi nuke jakin nongo zozoa!

DOMINIKA: Postatik heldu zauku!...

AITA: Postatik ba!... Ori, manatzen ahal duzu berehala landarat joan dadien lur altxatzerat, iraulden behar baiginuke hasi!

DOMINIKA: *(Faturrari)* Entzun duzuia manua?

FATURRA: *(Aitari)* Ba, Dominikarekin deliberatu dugu, faturgoa nik uztea... Eta hunarat ezkontzea, hemengo lanen segitzeko... Aitak eta amak, hola nahi baduzue segurik!



AITA: (*Arras bunkitua*) Hola nahi dugun?... Hola nahi dugun?... (*Ixililik dago apur bat... Nigar bat xukatuz, eskua emaiten dio, emeki erranez*) Milesker!... Gure etxea salbu da!...

OIHALA

ZIRI-ZIRI

(1966)

Jokalaria:

ZINGIL eta TRIPERO: Bi gizon, arpegia tapatua dutela maska itsusi batzuz.

AINGERU: Neskatxa pollit bat.

Oharpena: Antzerki hau laburra da, bainan, jokalariek luza lezakete, bako-txak, gogoan duenez. Izan dadiela beti alegera zerbait ateratuz eta zuzendariak onartuz. Beraz idatziaz bertzalde, bada idatziz gabeko parte on bat, jokalariek berek pentsatu behar dutena.

I

Oihala idekitzean, tauladura agertzen da dantzaleku, zintzilik dauzkala Veniziano argi-ontzi batzuz. Musika aire arin bat entzun ditake. Oihuka eta jauzika, sartzen dira, bi jokolari, debru mutur batzuz maskatuak. Bat da lodito bat, Tripero izenekoa. Bertzea da mebe bat, Zingil izenekoa.

ZINGIL: Adi-zak, Tripero, agur-aitzik hemengo jende guziak. Eta deneri mintza hadi errespetuz. Bertzenaz, zanpaldi bat ukanen duk.

TRIPERO: Ba, Zingil nausia, ba. Nik ez dut neheri sekulan errespeturik galdu. Bainan egiak, bere aiterra behar du. Ez dut behin ere ikusi, barne huntan bezenbat jende zozo.

ZINGIL: Non ikusten dituk hik hemen zozoak?

TRIPERO: Hor bat, ostatutik, bero-beroa egina, heldu den gizon hori!

ZINGIL: Hago ixilik Tripero. Bere jar-tokia pagaturik heldu baita.

TRIPERO: Ba, eta erradazu, hortxeko emazte horrek, ez duen bere etxean utzi, berekin ekartzen daukun haur mukitsu hori. Hasteko, atso horrek, behar likek doblea pagatu ehun kiloz goiti pisu baititu.



- ZINGIL:** Jar-tokia hemen, ez duk pagatzen pisuaren arabera. Bainan norberaren arabera.
- TRIPERO:** Hantxeko mutil hura ere, ez duk hunarat etorri, teatroagatik, bainan neskaxen ondoan jartzeagatik.
- ZINGIL:** Utzak gaizo mutil hori bere gisa. Neskaxtek ez ziotek nehon kasurik egiten, eta hemen dik bakarrik, heien ondoan jartzeko padara.
- TRIPERO:** Bainan, berritz ere, nausia, so egizu zoin itsusiak diren hemengo jendeak! Harako emazteak, hortz bat du bakarrik. Hura ere beltza eta makurra, eta haren ondoko gizonak, bere sudur luzearekin, ziminiak tapatzen dio ahoa.
- ZINGIL:** Hola aski dik mihia luzatzea, zurrup egiteko.
- TRIPERO:** Hortxeko mutil horren buruko ileek, iduri dute sasia. Segur naiz sasi hortan, usu daukala ihizia.
- ZINGIL:** Bakea emak, Tripero, manatua daiat hemengo jendeari, ongi etorri egiteko eta ez haren jorran aritzeko.
- TRIPERO:** Nik ez dut, egia dena baizik salatzen eta ez ditut oro erranak. Hemengo jendeen itxurak bezenbat, heien usainak nau desgustatzen.
- ZINGIL:** Zer usain duk hemen sentitzen. Ez duk ba hemen akerrik ageri.
- TRIPERO:** Aker usaina zait laket. Bainan ez dut hemen senditzen aker usain ederra.
- ZINGIL:** Egizak hobeki usain.
- TRIPERO:** Nere iduripena da sentitzen dutala zerri baten haragi gala.
- ZINGIL:** (*Sardeaz ziztatuz Tripero*) Zuti hadi hortik, Tripero eta habil hire sudur ziloen garbitzerat. Senditzen baduk zerri usaina, segur hirea dukek, eta, dukan hoberena gainerat.
- TRIPERO:** Ai, ai, ai. Ez da balio hortako eni, gibel aldea ziztatzea.

II

Agertzen da nonbaitik neskaxa pollit ongi bezitu bat. Triperok, xixtu batez erakusten dio bere plazerra.

- ZINGIL:** Utz nezak, Tripero, neskaxa hortaz arta hartzerat.
- TRIPERO:** Zergatik zu eta ez ni!
- ZINGIL:** Hi haizen bezalako eskoilak, ez baitu deus onik aterako neskaxa horrenganik.

- TRIPERO:** Beraz beti zuretzat lehen liliak eta neretzat ondarkinak.
- ZINGIL:** Ez ahal duk usteko, nekatxa horri, nik bezain ohorezki, agur egiten diokala! Horrentzat ez ditek grazia bera nere itxurak eta hire zinkoil handiak.
- TRIPERO:** Hori, berari duk erraitea eta ez hiri.
- ZINGIL:** Agur neskaxa ederra, toki hautako lilitan pollitena! Nondik heldu zira gutarterat!
- AINGERU:** Ni naiz aingeru bat, zerutik jausia.
- ZINGIL:** Zertan zabilta toki hautan?
- AINGERU:** Zueri agur erraiteat etorria naiz.
- TRIPERO:** Zeruan, lurrean bezala dea? Handiak agurtu eta ttipieri, kasurik ere ez egin?
- ZINGIL:** Tripero errespetatuz aingerua.
- TRIPERO:** Hik ere bai!
- ZINGIL:** Zarpaldi bat ukanen duk gero, hola mintzatzen bahaiz hire nau-siari.
- TRIPERO:** Neskaxa hori, enea duk, hirea bezenbat.
- AINGERU:** Ni naiz hemen, ene buruaren jabe bakarra. Mintza hor, bako-txak egin ditzala bere proposamenduak, nitaz jabetzeko.
- ZINGIL:** Enekin, milaka zorion gehiago ukanen duzu, asto pullo horrekin baino.
- TRIPERO:** (*Protestan bezala, zakur zahar baten sainga eginez, lotzen da baur-bauka*) Egizak hik bertze hainbertze.
- ZINGIL:** Ez, ez nauk ni on, hire marraken egiteko. Ni nauk, saluneko xakur pollit hetarik eta ez hi haizen bezalako otso zakur zaharra. (*Xakur baten sainga entzunarazten du*) Egizak hik bertze hainbertze!
- TRIPERO:** (*Zakur zahar baten sainga entzunaraziz*) Hik egizak bertze hainbertze. Ikusiko diagu, gure aingeruak nor hautatuko duen: Hi edo ni!
- AINGERU:** Nik ez dut mutil bat hartzen bere bozarengatik. Nahi nuke ene senarrak izan ditzan haurrak eta haur ederrak.
- TRIPERO:** Sar zaitte enekin ohean eta ukanen dituzu haur eder batzu.
- ZINGIL:** Holako gizonarekin, haur batzu segurago sortuko zaizkizu asto pullo batzu.
- TRIPERO:** Ikus eta sinets. Nahi baduzu, aingeru, ohean sartuko gira elgareekin eta laster ikusiko dugu zer sortuko den gureganik.
- AINGERU:** Xix baietz, sar gaiten berehala ohean. (*Gordetzen dira oihal gibe-lean*)



ZINGIL: Zer!! Aingerua ohean sartzan, ezkondu gabe?

TRIPERO: Ba, holako bat gertatzen duk gaur, gutartean ere. Zer haiz! Ene jelos!

ZINGIL: (*Marrumaka orroaz hasten da*) Ene aingeru ona, ez nezazula abandonada. (*Beti nigarrez ari dela*) Tripero asto ziri horrekin, zure bizia ez duzu zorionduko, bainan errekaratuko.

TRIPERO: Hori, gero ikusiko.

AINGERU: (*Hasten da gaitzeko oibutan*) Ai, ai, ai, senditzen dut haurra egiterat noala.

TRIPERO: Zer egin behar diagu!

ZINGIL: Habil berehala untzi baten xeka, odola galtzen hasiko baitu.

TRIPERO: Odola? Nondik?

ZINGIL: Ba, zeratik... Sudurretik... Habil, mugi hadi.

TRIPERO: Ha, urde zerria, hi. Zer uste duk? Atzo sortua naizela!

ZINGIL: Zer duk hola kexatzeko!

TRIPERO: Ba, hik urketarat igorri nahi nauk. Ni joan-eta, hihaur goxoki etzateko aingeruaren ondoan.

ZINGIL: (*Tripero lepotik bartuz*) Habil berehala urketarat... Edo urkatzen haut.

AINGERU: (*Oihuka*) Ai, ai, ai! Ez zazula gizon hori urka. Ai, ai, ai! Haurra heldu da.

ZINGIL: Tinka-atzu izterrak. Haurrari pasaia debekatzeko.

TRIPERO: Zer etorriko ote da? Arra edo emea?

ZINGIL: Nik nahiago nitek arra. Kanpoko lanen egiteko.

TRIPERO: Eta nik emia, oheko lanen egiteko.

AINGERU: Arra edo emea, orai hor da.

ZINGIL: Ean ba, ikus dezagun... (*Lorietan irriz*) Ha, arra da. Bi koropilo ederrekin. Hori, ene umea da segur. Den-dena nere eitekoa baita.

TRIPERO: Segur hiza, to, haur hori hirea dela?

ZINGIL: Norena nahi duk izan dadien.

TRIPERO: Galde-zok aingeruari!

AINGERU: Salatari tzarra, zu.

ZINGIL: Ala zer! Hik ere baduka parte ñiñi hortan?

AINGERU: Eta, haurra balitz buena, zer egin zinezaketel!

ZINGIL: Hemen bi gizon gira bakarrik. Tripero eta ni. Nola ez baitezaket sinets gure aingerua lot ditakela Tripero bezalako gizon petral bati, hortarik jujatzen dut, ni naizela haur hunen aita.

TRIPERO: Betidanik, hik ez duk mesprezio baizik izan enetzat. Oraiko huntan, gostako zaik, urde ustel zikina. (*Lepotik barturik, tinkatzan du*)

AINGERU: Ez zazula hil, gizon gaizo hori.

ZINGIL: Aski du ixilik egoitea. Berriz aipatu gabe eni, bera dela haur hunen aita.

TRIPERO: Galda zer dion angeruak.

AINGERU: Bon, ikusten baitut, enegatik makurtzerat zoaztela, nik biak antolatuko zaituztet. Haur ttipi hau, hartzen dut nere kondu. Zuek, bi aitak aski nauzue laguntzea, haur hunen hazten. Hola, haur hau izango da hiruena. Bazaiztea?

ZINGIL: Ni, konforme naiz.

TRIPERO: Ni ere bai.

AINGERU: Beraz alegera gaiten eta dantza dezagun haur hunen ohoretan.

OIHALA